



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 9an

94 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektua. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektua

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2000ko uztailaren 3ko 57 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 30, 49, 57 eta 72 zuzenketak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 14, “in voce” 13, 34, 43, 45, 47, 54, 56, “in voce” 23, 62, 65 eta 69 zuzenketak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 5, 7, 9, 19, 40, 46, 50, 53, 61 eta 66 zuzenketak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak 6, 16 eta 44. artikuluei aurkezturiko boto partikularrak.

– 11, 13, 24, 28, 29, 33, 37, 38, 41, 48, 51, 52, 58 eta “in voce” 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 24, 25, 26, 27, 29, 30 eta 31 zuzenketak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Hala ere, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko 6 zenbakiko zuzenketa mantentzea ez da onartzen, talde honek Batzordean aipatu zuzenketa bertan behera uztea eta “in voce” motako 6 zuzenketarekin ordeztzea erabaki zuelako. Gainera, “in voce” motako 6 zuzenketa bai mantendu dela.

Zuzenketa horiek 2000ko urriaren 4ko 78 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2000ko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Mantendutako “in voce” zuzenketak eranskinean argitaratzen dira).

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren proiektua

I **Aurrekariak eta oinarriak**

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak Nafarroako oinarrizko araua izan behar du Tributuen antolamenduan, funtsezko zubia baita zergadunen eta Foru Komunitatearen Zerga Administrazioaren artean. Honako alderdi garrantzi handiko hauek arautzen ditu: zergagaiaren definizioa, tributuen sailkapena, tributu gaitako lege-hausteak eta zehapenak eta tributuak aplikatzeko prozedurak oin hartuko duten printzipioak, hau da, kudeaketa, ikuskatzea eta dirubilketa. Deskribatzen ere ditu tributu egintzak errebisatzeko bide ekonomiko-administratiboaren lerro nagusiak.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 45.2 artikulua ezartzen du ezen “Nafarroak baduela eskumena bere tributu erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko, kasuko Hitzarmen Ekonomikoan agintzen dena ezertan galarazi gabe.”

Lege testu horrek aipatzen du Foru Komunitateak baduela ahalmena “bere tributu erregimena” ezartzeko. Hortaz, Nafarroak tributu desberdinak erregulatzeko botere konkretu batzuk ez ezik, bere tributu erregimena mantendu eta arautzeko eskumena ere badu, eta bai tributuentzako antolamendu juridiko propioa ere, batasun eta sistema bat izateko moduan, autointegratzeko gaitasuna eta osotasunerako joera duena. Alta, Nafarroako

zerga autonomia hori Estatuaren sistemarekin bateratu behar da eta hartarako hain zuzen Hitzarmen Ekonomikoa dago. Hau da, Foru Komunitateko zerga autonomia ez dator hitzarmen Ekonomikotik; bera du erabide.

Foru Lege proiektu honek hutsune larri bat betetzen du Foru Komunitateko arau sisteman, handia baita tributuentzako antolamendu juridiko batek bere giltzarria falta izatea, bere harkantioa, bi ezaugarriok izan behar bailituzke Tributuentzako Lege Orokor batek.

Egia da Konstituzioaren 149.3 artikulua heldu dela falta nabarmen horren aringarri, zeinak baitio "Estatuaren zuzenbidea, beti ere, autonomi erkidegoen zuzenbide-hutsuneen betegarri izanen da." Hala ere, izaera horrek gatazkabide asko eta handiak eman ditu, zeren nahiz eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 40.3 artikulua azpimarratzen duen Nafarroak bere zuzenbiderik ez duen tokian Estatuaren zuzenbidea izanen dela betegarri, betegarritasun hori ez da hain automatikoa, Nafarroako tributuentzako antolamendua ez baita arau-pilatze hutsa, erregimen juridikoa baizik, eta Estatuaren arauetara jo baino lehen, arau-integratio batera jo behar baita.

Bestetik, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak herritarren oinarriko eskubideak osorik beretzen ditu, zeinak otsailaren 26ko Zergadunen Eskubide eta Bermeei buruzko 1/1998 Legearen bidez sartu baitira Estatuaren tributuentzako antolamenduan.

Bi arauok promulgatzea aurrerapauso nabarmena da Zerga Administrazioaren eta zergadunen arteko oreka bat lortu beharrezko bidean, segurtasun juridikoa handitzen baitu eta zerga eginkizunak betetzea errazten.

Gauzak horrela, foru lege proiektu honen bidez formalki erantsi nahi zaizkio Nafarroako antolamendu juridikoari zergadunen eskubide berme horiek guztiak, halatan non Nafarroako zergadunek gutxienez Estatuak duten babes maila bera izanen duten.

Hartarako, foru lege proiektu honetan berregin nahi izan dira Nafarroako tributuentzako sistemaren alderdi orokorrak, eta haiekin batera bai eta tributudunen eskubide eta berme oinarrikoak, lege testu bakar batek segurtasun juridiko handiagoa ematen baitu eta aplikatzea errazagotzen.

Hitzarmen Ekonomikoaren 7. artikuluko 1. idatz-zatiak ezartzen du Foru Komunitateak tribu-

tu Lege Orokorreko terminologia eta kontzeptuen arabera moldatuko duela bere tributuentzako araudia.

Ildo horretatik, otsailaren 26ko Zergadunen Eskubide eta Bermeei buruzko 1/1998 Legearen 1.1. artikulua aditzera ematen du "lege honek arautzen dituela zergadunek dituzten eskubide berme oinarrikoak tributuentzako administrazioekiko harremanetan, eta haiei guztiei aplikatuko zaiela".

Aurreko gogoetak eginek, bada, eta arauaren beharra frogaturik, aipatu behar da foru lege proiektu honi zer ondorio berritzaile eta biziak emanez eman nahi zaizkion. Izan ere, tributuentzako buruzko Foru Lege Orokorra Nafarroan tributuentzako aplikatze-ko ardatz izanen da, eta tributuentzako prozedurak errotik berritatzeko abiapuntu. Horrek zergadunen segurtasun juridikoa handitu eta tributuentzako administrazio jardunbideak gaurkotuko ditu teknologia berrietara moldatuz. Ildo horretatik, garatu eginen da Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 45. artikulua, arautzen baitu baliabide informatiko eta telematikoa nola bereganatu zergaduneri Nafarroako Zerga Ogasunarekiko harremanak errazteko.

Esan dezagun denboraren joanak, batetik, eta Estatuaren arauetan izan diren aldaketak larriek, bestetik, nolabait ere zaharkitu egin dutela Nafarroako tributuentzako araudiak tributuentzako aplikazioaz agintzen duena, eta horrek berekin dakar aplikazio horrek operatibitatea eta efikazia galtzea.

Foru Lege proiektu honekin errotik erreformatu nahi da Foru Komunitateko tributuentzako kudeaketa. Horretarako ezinbesteko aldaketak egin behar dira zerga ikuskapeneko prozedura arauetan eta bai Nafarroako bide ekonomiko-administratiboan ere. Beharrezkoa izanen ere da marko berria itxuratzea tributuentzako zehapenak ezartzeko eta hainbat testu banandutan dauden diru biltze arauak multzotu eta sistematizatzea.

Ildo horretatik, hasi behar da aztertzen, halaber, zer ondorio izanen dituen tributuentzako kudeaketaekin lotura duten beste zenbait figura abiarazteak edo erreformatzeak, hala nola entzunaldi-ko tramitearen prozedura mugatzea, konprobazio laburtua, tributuentzako gainerako kontsulta, zuzenez kontrako diru sarrerak itzultzea, autolikidazioen inpugnazioa, tributuentzako atxikipen eta egozpen egintzak errebisatzea, tributuentzako zor bat betearaztea eteteo aurkezten diren berme-kosten itzultzea eta abar.

Hartarako, foru lege honek 2001eko apirilaren 1. arte ez du indarririk hartuko, aukera izateko Parlamentuan tramitatzen ari den artean eta vacatio legis delako aldi behar bezala gogo eman ahal

izateko zer aldaketa behar diren antolamenduan eta araudian, eta bai aldi berean "Administrazioko bideak" premia berrioi erantzuteko moduan jarri.

Egia bada ere arau honek gehiengo baten borondate politikoa duela abiaburu, ez da ahaztu behar, bestetik, proiektua oso teknikoa dela, esan nahi baita garatzen dituela Nafarroako tributu sistemaren oinarritzko printzipioak. Halaber, behar adinako malgutasuna ere eman nahi zaio gero batean tributu bakoitzaren legeetan izaten diren aldaketek gehiegi ez eragiteko. Izan ere, tributu bakoitzeko araudiaren eta Tributuak buruzko Foru Lege Orokorren arteko harreman orekatua izan behar du gobernabide Nafarroako Foru Komunitatearen tributu egiturak.

Foru Lege proiektu hau itxuratzeko, azken hila-beteetan gogoeta eta eztabaida ugari izan dira. Bertan, bai Nafarroako tributu administrazioko teknikariek nola Nafarroako Unibertsitate Publikoko Finantza eta Zerga Zuzenbidearen Departamentuek hartu dute parte. Iritzia eskatu ere zaie Nafarroako zerga ogasuneko administrazio unitateei, eta bai Idazkaritza Teknikoari, eta Zerga Gaietako txosten eta Ebazpenak emateko Erakundeari. Iritzi truke handia izan ere da beste tributu Administrazio batzuekin.

Foru Lege proiektuak honako egitura du: lau titulu, 159 artikuluz, zortzi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Aski foru lege proiektu luzea delarik, titulu, kapitulu eta ataletan banatu da, erabilera errazagokoa izan dadin. bestalde, zehazki arautu nahi izan ditugu hainbat gai, eta horrek, testua luzatu egiten badu ere, tributudunen segurtasun juridikoa handitu ere egiten du.

II

Tributu antolamenduaren eta haren aplikazioaren printzipio orokorrak

I. tituluak Nafarroako tributu antolamenduaren oinarritzko printzipioei buruzko arauak garatzen ditu, bere barnean tributudunen eskubide orokorrak ere bilduz.

Foru Lege proiektuak Foru Komunitateko tributu sistemaren erregimen juridikoaren oinarritzko printzipioak garatzen ditu. Kontuan harturik toki entitateak autonomoak direla eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak Tributuak buruzko Lege Orokor baten gai oinarritzko gehientsuenak jorratzen dituela, hala nola kudeaketarako prozedura, tributu likidazioak, dirubilketa, hausteak eta zehapenak eta abar, ontzat eman da gauzak bere horretan uztea. Ildo horretatik, foru lege proiektuaren 1.2 artikulua

aditzera ematen du foru lege honetako aginduak Nafarroako Toki Entitateen tributuak ere aplikatuko zaizkiela, haien araudi berariazkoak besterik agintzen ez duen guztian.

Tributu gaietako erregelamendu ahalmena Nafarroako Gobernuari dagokio, eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariak zilegi du ahalmen hori lege eta erregelamendu arauak betearazi eta aplikatzeko erabiltzea. Tributuak kudeaketa Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagokio eta Nafarroako Zerga Ogasuna deitu erakunde autonomoaren bidez erabiliko da, berriki sortu baita tributuak kudeatzeko eginkizuna malguago eta efikazago egin ahal izateko.

9. artikulua deskribatzen du tributudunak zer eskubide orokor dituen eta eskubide horiek gero banaka garatzen dira gainerako artikuluetan. Hona aipagarrienak: errekerimendu egin beharrik ez izatea zuzenez kontrako diru sarrerak itzultzea eta dirua ofizioz eta berandutza korrituak pagatuz itzultzea lortzeko; tributu egintzak etenarazteko aurkeztu bermeen kostua kobratzeko eskubidea, egintza horiek bidegabekotzat deklaratzeko direnean, entzunaldi tramitean mintzatzeko eskubidea, erosi edo eskualdatu beharreko ondasun higiezin baliorei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, konprobazio eta ikertze egintzen izaerari eta irisbideari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, prozeduren tramitazioa zertan den jakiteko eskubidea, Administrazioaren eginbeharra ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoan aurreko urtean aldatu diren Lege eta Foru Dekretuen testua argitaratzeko, Administrazioaren informazioa emateko obligazioa administrazio irizpideen gainean, kontsulta aipagarrienen gainean eta Zerga Gaietako txosten eta Ebazpenak emateko Erakundearen ebazpenetatik interes handiena dutenen gainean.

Foru Lege proiektuak tributudunaren terminoa sartzan du 9.3. artikuluan; haren barnean subjektu pasiboak, arduradunak, ondorengoak, ordezkariak eta tributu administrazioari informazioa emateko edo lagun egiteko obligazioa dutenak sartzan dira.

II. tituluak tributu arauen gainean ari da eta bi kapitulu ditu: lehenbizikoari Printzipio Orokorrek deritza, eta bigarrenak arauen aplikazioa hartzen du aintzat.

I. kapituluak lau alderdi ardurazko arautzen ditu: Nafarroako tributu zuzenbidearen iturriak zein diren, zer gai arautu behar dituen foru lege honek, Nafarroako araudia eta Estatuarena nola ezkondu, eta nola tributuak buruzko arauak ematen dituzten foru lege eta Erregelamenduek hala eman behar duten aditzera beren tituluan eta kasuko artikuluen errubrikan.

II. kapituluak tributu arauak non noiz aplikatu behar diren finkatzen du, eta bai nola interpretatu behar diren ere.

III Tributuak

III. tituluak honako alderdiak jorratzen ditu denak ere garrantzi handikoak: tributuen sailkapena, zergaia, tributudunak, tributu zorra eta hausteak eta zehapenak. Sei kapitulu ditu.

Haietako lehenbizikoak tributuak sailkatzen ditu: zergak, tasak eta kontribuzio bereziak.

II. kapituluak zergaiaz ari da eta honela definitzen du: foru legeak tributu bakoitza itxuratzeko finkatzen duen kasu juridikoa, gertatzean tributu emateko obligazioa sortzen duena.

Legeak egitez definitzen duen kasuaren izaera juridikoaren arabera eskatuko da tributua, interpretazio funtzional edo ekonomikoa defendatzen duten teoretatik urrunduz.

III. kapituluak arautzen du tributudunak non diren, foru lege proiektuaren 9.3 artikulua agintzen duenarekin bat.

Kapitulu honek bost atal ditu. 1. atalak subjektu pasiboak hartzen ditu aintzat, haien barnean zergadunak, ordezkioak, atxikitzaileak eta konturako sarrerak egin behar dituztenak daudela.

2. atalak arautzen du arduradunen erregimen juridikoa; 3.ak ondorengoak eta erosleak hartzen ditu aintzat.

4. atalak arautzen ditu jarduteko gaitasuna eta ordezkaritza. 5. atalak arautzen du helbide fiskalaren erregulazioa.

Titulu honetako IV. kapituluak zergaiaz ari da eta hiru atal ditu.

1. atalak oinarria finkatzeko sistemak hartzen ditu aintzat; tributu bakoitzarentzat bere foru legeak finkatuko ditu. Estimazio zuzenekoak, objektibokoak eta zeharbidekoak izan daitezke.

Kapitulu horretako 2. atala balioen konprobazioaz ari da eta bi artikulua ditu, haietako bat balioak konprobatzeko baliabideen gainekoa eta bestea aldez aurreko balorazio hitzarmenaren gainekoa.

3. atalak likidazio oinarria definitzen du: zerga oinarriari tributu bakoitzaren foru legeak ezartzen dituen kenketak egin ondoko emaitza.

III. titulu V. kapituluak tributu zorraz ari da eta bost atal ditu.

1. atalak honako kontzeptuak arautzen ditu: karga tasa, kuota eta tributu zorra.

Karga tasak, proportzionalak izan nahiz progresiboak, likidazio oinarriari aplikatuko zaizkio kuota finkatzeko.

Tributu zorraren osagaiak dira kuota, konturako paguak nahiz pagu zatikatuak, atxikitako dirutzak edo konturako sarrerengatik atxiki beharko zirenak.

Zilegi izanen da, halaber, tributu zorraren osagai izatea legez eska daitezkeen errekarigutak; haien arteko aipagarrienak dira epe kanpo errekerimendurik gabe egindako aitorpenetatik heldu direnak, eta bai berandutza korritua ere, premia-mendu errekarigutia eta diruzko zehapenak.

Berandutza korritua kalkulatzeko, diruaren korritu legala hartu eta ehuneko 25 erantsiko zaio, foru lege batek besterik agintzen ez badu.

2. atala tributu zorraren pagamenduz ari da. Zilegi izanen da dirutan nahiz tinbre gaiez pagatzea. Zilegi izanen ere da Espainiako Ondare Historikoko ondasunak entregatuz pagatzea edo honetarako propio Nafarroako Gobernuak interes sozial edo kulturekotzat deklaratzeko dituen edo Foru Komunitatearentzat bereziki interesgarritzat jotzen diren beste ondasunak entregatuz.

3. atala preskripzioaz ari da eta preskripzioaren epea, kontatzeko modua, etendura eta ofiziozko aplikazioa zehazten ditu.

Lau urtetan finkatzen da tributu zorra zehazteko preskripzio epea, likidatutako tributu zorra pagatzea exigitzeko, zehapenak ezartzeko eta zuzenez kontrako diru sarrerak berreskuratzeko eskubidea izateko.

4. atalak aurreikusten du tributu zorrak iraungitzea, izanen direla beste modu batzuk, haien artean konpentsazioa, kondonazioa eta ordain-zintasan frogatua.

5. atalean arautzen diren bermeak kredituen prelatzioari dagozkie, legezko hipoteka isilbidezkoa deritzana eta atxikipen eskubidea.

III. titulu VI. kapituluak tributu hauste eta zehapenez ari da. Bi atal ditu, hurrenez hurren hausteen eta zehapenen gainekoak.

Ezin gehiagoko ardura duen gaia da iruzurraren kontrako borrokan eta lege honetan aldaketa handia hartzen du Foru Komunitatean gaur indar duen araudiaren alderako.

Foru Lege proiektuak honako printzipioak egiten ditu bere, besteak beste: legalitatea, tipikotasuna, erruduntasuna edo erantzukizuna, zehagarritasuna

na, preskribitatea eta araurik mesedegarrienaren atzera-eragina. Honen asmoa da tributu zehapenei buruzko zuzenbidea hurbiltzea Zuzenbide Penala gobernatzeko duten oinarriko printzipioetara. Ildo horretatik aipatzen da arau-hauslearen halabeharrezko erruduntasuna eta erantzukizun objektiboa baztertzeko da.

Tributu gaietako arau-haustearen kontzeptua 66. artikuluan arautzen da: "Foru Legeetan tipifikatzen eta zehatzen diren egintzak eta egintza ezak dira tributu gaietako arau hauste eta zehapen. Tributu gaietako arau hausteak zehatzekoak dira utzikeria hutsezkoak badira ere. Zergadunen jokaera berez on beharrezkoa dela suposatzen da."

Arau-hauste bakun deritzenak formazko egin-beharren urratzeak dira, ez baitute berekin ekartzen diru sarrerak gutxitzea, zeina baita arau-hauste larrien ezaugarria. Gainera ez-betetze horiek arau-hauste bakuntzat sailkatu ahal izateko, ez da erabili behar zehapena graduatzeko irizpidetzat.

Zehapen larriak bost ataletan biltzen dira:

- Borondatez pagatzeko aldiaren ez sartzea tributu zor osoa edo haren parte bat, non eta foru lege proiektuko 52. artikuluan arabera egiten ez den (hau da, non eta epea kanpoko eta aurretiazko errekerimendurik gabeko diru sarrera bat egiten ez den) edo premiamenduzko errekerimendua aplikatzea bidezkoa den.

- Ez aurkeztea, epea kanpo eta aurretiaz errekerimendu eginik aurkeztea edo osagabe edo oker aurkeztea tributu administrazioak autolikidazio prozeduraz eskatzen ez diren tributuen likidazioa egin ahal izateko behar dituen aitortpenak edo dokumentuak.

- Zuzenez kontra onura fiskalak, salbuespenak, desgrabazioak edo itzultzeak lortu edo izatea.

- Bide denaz kontra partida positibo edo negatiboak edo zerga kredituak finkatzea, gero bateko aitortpenetako, norbereetako nahiz besterenetako, oinarrian edo kuotan kendu nahiz konpentsatu beharrekoak.

- Gardentasun fiskalaren araubideko entitateek errealtatearekin bat ez datozen zerga oinarriak finkatzea edo sozioei egotzi beharreko kopuruak deklaratzeko.

Kapitulu honetako 2. atala tributu zehapenez ari da eta zehapen horien sailkapen bat du hasiera, diruzkoak eta ez diruzkoak bereizten dituela:

- Diruzko isun finkoa nahiz proportzionala. Sartu behar eta sartu ez diren kopuruei aplikatuko zaie edo zuzenez kontra izandako onura edo itzulien zenbatekoari.

- Bost urtetarainoko epean galtzea laguntza publikoak jasotzeko aukera eta onura fiskalak izateko eskubidea.

- Bost urtetarainoko epean debeku izatea Foru Komunitatearen Administrazioarekin edo beste inolako erakunde publikorekin kontratuak egitea.

- Urtebeterainoko epean etetea lanbide ofizialtako eta kargu nahiz enplegu publikoetan aritzea.

Zehapen prozeduraz den bezainbatean, 70. artikuluan jasotzen ditu oinarriko alderdiak. Arau-hauslearen tributu egoera ikertzeko eratu dena ez beste espediente bat tramitatu beharko da, eta arau-hausleak entzunaldirako eskubidea izanen du. Espedientea ebazteko luzeeneko epea sei hilekoa izanen da eta zilegi izanen da zehapena ezartzeko egintzaren kontra erreklamazio apartekoa jartzea. Zehapenak betearaztea besterik gabe etenik geratzeko da, bermea aportatu beharrik gabe, kasurako errekerimendua aurkeztea eta ez da zilegi izanen betearaztea administrazio bidean irimotzen diren arte.

Arau-hauste bakunen zehapen tipologiari dagokionez, kasu orokor bat hartu behar da abiatu, zeren bete ez dena formazko egin-behar bat delarik, arau-hauste bakoitzak isun finko bat izanen du zehapentzat, duen larritasunaren arabera, nahiz eta batzuetan gehieneko muga batzuk ezartzen diren. foru lege proiektuak xehero azaltzen ditu zehapenak.

Arau-hauste larriek diruzko isun bat izanen dute zehapen, sartu ez diren kopuruaren edo zuzenez kontra izandako onuren arabera.

IV Tributuen kudeaketa

Titulu honen helburua da tributuen kudeaketa erregulatzea eta zazpi kapitulutan banaturik dago.

I. kapituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu eta hasieran espreski ebazteko obligazioaz eta tributu egintzen arazoiez ari da.

Ondoren, foru lege proiektuak hainbat eskubide arautzen ditu tributudunen jarrera sendotzen dutenak, eta bai kudeaketa prozeduran duen partehartzea, adiera zabalean:

- Prozeduraren tramitazioa zertan den jakiteko eskubidea eta espedientea osatzen duten doku-

mentuen kopia erdiesteko eskubidea, kasu tasatuetan izan ezik.

– Tributuak kudeatzeko prozedurak tramitatzeko ari diren langileak nor diren jakiteko eskubidea.

– Berak aurkeztu dituen aitopenen ziurtagiriak edo bertako alderdi jakin baten gainekoak erdiesteko eskubidea.

– Kasurako den araudiak eskatu gabeko dokumenturik ez aurkezteko eskubidea, eta bai lehendik aurkeztu duen eta kasuaz arduratzen den Administrazioak bere esku duen dokumenturik ez aurkezteko eskubidea.

– Administrazioaren egintzak tributudunarentzat erraz-arinenak izateko moduan egin daitezen eskubidea, horrek ez badie kalterik egiten tributueginbeharrak betetzeari.

– Kudeaketa prozedura guztietan entzunaldia izateko eskubidea salbu eta prozeduran ez bada jasotzen ez eta kontutan hartzen interesatuak aurkezten dituen beste alegazio eta probarik.

II. kapituluak tributudunari informazioa eta laguntza eman behar diren gaineko alderdiak jasotzen ditu.

III. kapituluak tributuek kudeatzeko prozedurak ari da eta hiru atal ditu. Haietako lehenbizikoak prozedura hasteko bideak jorratzen ditu eta bitara biltzen: tributudunaren aitopenez edo tributudunaren autolikidazioaz, batetik, eta administrazio erakundearen konprobatze eta ikertze lanaz, bestetik.

2. atala konprobazioaz eta ikerketaz ari da. Lan hori egiteko aztertu eginen dira dokumentuak, liburuak, fakturak, frogagiriak eta kontabilitateko idazpenak eta bai zer ere beste aurrekari beharko baita tributua finkatzeko.

III. kapitulu honetako 3. atala frogaz ari da eta printzipio orokortzat ezartzen du ezen inork bere eskubidea baliatzen badu, frogatu beharko dituela eskubide horren oinarri diren gertaerak, eta hartarako honako frogabideen eta frogak baloratzeko bideen gaineko arauak aplikatuko dira: Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Bildumakoak, Kode Zibilekoak eta Auziperatze Zibilari buruzko Legekoak.

IV. kapituluak tributuek likidazioak arautzen ditu eta behin-behineko eta behin betikotzat sailkatzeko.

V. kapituluak tributuen bilketaz ari da. Gai horretan begiratu egiten da gaurko itxurapena: hau da, bereizi egiten da borondatezko aldiak pagatzen den edo betearazteko aldiak pagatzen

den tributua. Borondatezko aldiak pagamendua foru lege proiektuko 52. artikulua arautzen du, eta 116.3 artikulua ezartzen du noiz hasiko den betearazte aldia.

Lehenbizi, aipatzen ditu Ikuskaritzaren eginkizunak: zergagaien ikerketa, zerga oinarrien integrazio behin betikoa, estimazio zuzeneko, objektibo nahiz zeharbidekoaren bidez, eta pertsona nahiz erakundearen gaineko ikertze ekintzak egitea. Berririk, ordea, beste zerbait du legeak: hemendik aurrera Ikuskaritzak zilegi izanen du konprobazio eta ikertze ekintzen ondoriozko tributuek likidazioak erregelamendu bidez ezartzen den moduan egitea.

Egintzen edukari dagokionez, beste berritasun bat ere bada, ez baitira aurrerakoan egindako arau-hausteak ez eta kasurako zehapenak aipatu beharko, erabat bereizik utzi baitira konprobazio prozedura eta zehapen prozedura, espediente bana eginaz. Beraz, arau-hauste eta zehapenei dagokien guztia zehapen espedienteari erantsiko zaio.

Tributudun bati ikuskatze partziala egiten bazaio, zilegi izanen du tributuek administrazioari eskatzea konprobazio hori ikuskatu beharreko tributuek eta ekitaldiaren gainean oro har egitea.

Azkenik, foru lege proiektuak hamabi hileko epe luzeenezkoa ezartzen du ikuskapenak egiteko. Zilegi izanen da epe hori zenbait kasu jakinetan beste hamabi hiletarako luzatzea, erregelamendu bidez ezartzen diren irispidea eta baldintzak emanaz.

IV. tituluko VII. kapituluak arautzen ditu administrazio bideko egintzak nola errebisatu.

1. atalak garatzen du zer prozedura berezi izanen diren errebisiorako. Lehenbizi egintza baliogabeen errebisioaz ari da: Ekonomi eta Ogasun kontseilariari dagokio, aurrez Nafarroako Kontseiluek irizpena emanik, honako egintzak baliogabetzat deklaratzeko: hartarako eskumenik ez duten erakundeek emandakoak, delitua direnak, eta lege ezarria den prozeduraz kanpo edo organo kolegiatuen borondatea osatzeko behar diren arau funtsezkoen kanpo emandakoak. Zilegi izanen da prozedura hori egintza eman zuen organoak, haren gaineko hierarkikoak hala erabakita edo interesatuak hala eskatuta hastea.

Preskribitu ez duten artean, zilegi izanen da Ekonomi eta Ogasun kontseilariak errebisatzea tributuek kudeaketako bidean eman diren egintzak, legea nabarmenki urratzen badute edo frogak berri batzuek agertzerik ematen badituzte tributuek administrazioak errebisatu beharreko egintza eman

zuen denboran erabat ezagutzen ez zituen zergagai elementuak.

2. atalak egintzak errebisatzeko arau orokorrak jorrazten ditu eta egintzaren betearaztea nola eten aipatzen du eta bai tributu zorraren betearaztea eteteko aurkeztu diren bermeen kostuak nola itzularazi.

3. atalak arautzen du tributu egintzen kontra berraztertze errekurtsoa nola jarri, errekurtsu hori aukerakoa izanzen da eta errekurtsupeko egintza eman zuen erakundean jarriko da, zeinak eskumena izanzen duen ebazteko. Berraztertze errekurtsoa espreski edo suposatuki ebatzi ez den artean, interesatuak ez du zilegi izanzen erreklamazio ekonomiko-administratiborik jartzea. Errekurtsoa ezetsizat hartuko da, hurrengo errekurtsu jartzeari begira, erregelamenduz ezarritako epean izandako ebazpena espreski jakinarazten ez denean. Berraztertze errekurtsoak beste errekurtso batzuk jartzeko epeak eteten ditu.

4. atalak arautzen ditu inpugnazio ekonomiko-administratiboak eta bi modalitate ezartzen: erreklamazio ekonomiko-administratiboa eta berrikus-teko errekurtso ez ohikoa. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak kudeatzea, Nafarroako Gobernuari dagokio, zeinak zilegi izanzen duen eginkizun horiek delegatzea hartarako sortutako organo bati. Nafarroako Gobernuaren ebazpenek administrazio bidea agortuko dute eta administrazioarekiko auzi bidean errekurritu ahal izanzen dira.

Xedapen gehigarrietan Nafarroako Ogasun Publikoaren hainbat alderdi aldatzen dira, tributu kudeaketaren gainekoak eta berandutza korrituaren gainekoak. Aldatzen ere dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Sozietateen eta Balio Erantsiaren Zergari buruzko Foru Legea ofiziozko itzulketen gain.

I. TITULUA

Antolamenduaren printzipio orokorrak eta tributudunen eskubideak

1. artikulua. Helburua.

1. Foru lege honek Nafarroako Foru Komunitatearen tributu sistemaren erregimen juridikoa osatzen duten oinarritzko printzipioen funtsezko arauak garatzen ditu eta tributu guztiek aplikatzeko dituzten arau komunak ezartzen.

2. Foru lege honen aginduak Nafarroako Toki Entitateetako tributuei ere aplikatzen zaizkie, bakoitzaren berriazko arauak besterik agintzen ez duten artean.

2. artikulua. Tributu ahalmena.

Foru Komunitateak badu ahalmena bere tributu erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetze-ari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren printzipioen arabera.

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Tributuen antolamenduak tributudunen gaitasun ekonomikoa hartu behar du oinarri, eta bai justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitate, tributu zamaren banaketa egokia eta konfiskaziorik eza ere.

2. Tributu sistema aplikatzeko, orokortasuna, proportzionalitatea, efikazia eta formazko eginbeharrak betetzeak sortzen dituen kostu zeharbidekoak ahalik eta gutxien izatearen printzipioak hartuko ditu oinarri. Halaber, foru lege honek ezartzen dituen tributudunaren eskubide-bermeak begiratzea segurtatuko du.

4. artikulua. Tributuen helburuak.

1. Tributuek, diru sarrera publikoak lortzeko bide ez ezik, politika ekonomiko orokorraren tresna ere izan behar dute, gizartearen egonkortasun eta aurrerapenaren mesedetan lan egin eta errenta hobeki banatzen lagundu.

2. Foru Komunitateko tributuen bidezko etekinak komunitatearen gastu orokorrak asetzeko erabiliko dira, non eta foru lege batek beste erabilera jakin bat esleitzen ez dien.

5. artikulua. Zuzenbide publikoko entitateak.

Udalek, legeek ezarritako muga barruan, tributuak ezarri eta eskatu ahaliko dituzte eta haien kudeaketa hitzartu Nafarroako Foru Ogasunarekin.

Zuzenbide publikoko gainerako entitateek ez dute zilegi izanzen tributuko ezartzea, baina bai eskatzea, Legeak hala agintzen duenean.

6. artikulua. Erregelamendu ahalmena eta tributu kudeaketa.

1. Tributu gaietako erregelamendu ahalmena Nafarroako Gobernuari dagokio. Ekonomi eta Ogasun kontseilariak, halaber, erabili egingen du ahalmen hori lege eta erregelamenduzko arauak aplikatu eta betearazten dituela.

2. Tributuen kudeaketa Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagokio, eta honek horretarako sortutako erakunde publikoei eskurodetu ahaliko dio.

7. artikulua. Aurkatzea.

Zilegi izanen da erregelamendu ahalmenaren erabilera eta tributu gaietako kudeaketa egintzak administrazio eta jurisdikzio bideetan aurkatzea xedapen indardunek agintzen duten moduan.

8. artikulua. Legalitatearen presuntzioa. Bete-araztea.

Tributu administrazioak ematen dituen egintzek legalitate presuntzioa dute eta haiek balio gabetzeko bide bakarra ofiziozko edo kasurako diren baliabideen bidezko errebisioa izanen da.

Halaber berehala betearaztekoak izanen dira, foru lege honetan xedatzen denaren arabera.

9. artikulua. Tributudunen eskubide orokorrak.

1. Honakoak dira tributudunaren eskubide orokorrak:

a) Eskubidea du tributu administrazioak eman diezazkion informazioa eta laguntza bere tributu eginkizunak betetzeko eta eginkizun horien eduki eta irispidearen gainean.

b) Eskubidea izanen du itzul dakizkion zuzenez kontra egindako diru sarrerak eta ofizioz tokatzen direnak, eta orduan foru lege honetako 50.2.c) artikulua aurreikusten duen berandutza korritua paga dakion, hartarako errekerimendurik egin gabe ere.

c) Eskubidea du paga dakion, foru lege honek agintzen duen moduan, tributu zor baten bete-araztea eteteko abal eta beste bermeen kostua, administrazio epai edo ebazpen irmo batek zor hori zuzenez kontratatzat deklaratzan duen orduko.

d) Eskubidea du partedun den prozeduren tramitazioa zertan den jakitekoa.

e) Eskubidea du berak jakiteko tributu administrazioako zein agintarik edo langilek duen bera interesatua den tributu kudeaketarako prozedurak tramitatzeko ardura.

f) Eskubidea du berak aurkezten dituen aitopenen ziurtagiria eta kopia eskatzeko.

g) Eskubidea du lehendik aurkezturik dituen eta Administrazioak bere esku dituen dokumentuak berriz ez aurkezteko.

h) Eskubidea du, Legeak agintzen dituen baldintzetan, tributu administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izanen horiek guztiak erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak egitez aplikatzeko baizik, ez eta hiru-

garrenei laga edo jakinaraztea, legeak aureikusiriko kasuetan salbu.

i) Eskubidea du tributu administrazioaren langileek behar bezalako errespetuz eta begiramenez trata dezaten.

j) Eskubidea du tributu administrazioaren egintza batek tributudunak parte hartzea behar badu, arinena zaion moduan egin dadin.

k) Eskubidea du alegazioak egin eta dokumentuak aurkezteko, eta erakunde eskudunak horiek kontuan hartzeko kasuko ebazpen proposamena idazterakoan.

l) Eskubidea du entzunaldiaren tramitean mintzatzeko, ebazpena eman baino lehen.

m) Eskubidea du informazioa jasotzeko erosi edo eskualdatu beharreko ondasun higiezinak duten balioaren gainean.

n) Eskubidea du tributu ikuskaritza ezer konprobatzen edo ikertzen hasi baino lehen, informazioa jasotzeko konprobatze-ikertze horien izaera eta irispidearen gainean, eta bai ekintza horiek dirauteino dituen eskubide-betebeharren gainean eta ekintza horiek foru lege honek agintzen dituen epeetan egin daitezten.

2. Artikulu honetan islatzen diren eskubideek ez dute zertan galarazi gainerako lege antolamenduan aitortzen diren beste eskubideak.

3. Foru lege honetan tributudun esaten denean, ulertzen da bertan subjektu pasiboak, erantzuleak, tributu zor bateko ondorengoak, legezko ordezkariak nahiz borondatezkoak eta tributu administrazioari laguntza edo informazioa emateko obligazioa dutenak ere sartzen direla.

II. TITULUA

Tributu arauak

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

10. artikulua. Tributu zuzenbidearen iturriak

1. Tributuek zein ere izaera duten, honakoak izanen dituzte araubide:

a) Hitzarmen ekonomikoa.

b) Foru lege hau eta haren osagarri diren beste xedapen lege mailako guztiak.

c) Tributu bakoitzak bere dituen foru legeak.

d) Foru lege hau garatzeko ematen diren erregelamenduak eta tributu bakoitzak bere dituenak.

e) Nafarroako Gobernuak eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariak ematen dituen beste errege-lamendu xedapenak.

2. Hutsune betegarri izanen dira araubide komuneko tributu arauak, administrazio zuzenbideko xedapen orokorrak, foru antolamendu zibileko arauak eta zuzenbide komuneko gainerakoak.

3. Aurreko ataletan xedatu denak ez du galarazten Estatuak sinatu dituen eta barne antolamenduaren osagai bihurtu diren hitzarmen edo itunetan xedatzen denik ezer.

11. artikulua. Foru lege bidez arautuko diren gaiak.

Nolanahi ere alderdi hauek arautuko dira foru lege baten bidez:

a) Zergagaia finkatzea, subjektu pasiboa, erantzulea, oinarria, karga tasa, sortzapena eta tributu zorra zuzenean zehazten duten beste elementu guztiak.

b) Salbuespenak, murrizketak eta beste tributu hobariak ezarri, kendu eta luzatzea.

c) arau-hauste eta zehapenak, foru lege hone-tako 67. artikulua xedatzen duena ezertan galarazi gabe.

d) Preskribitzeko eta iraungitzeko epeak.

e) Barkamenak, beherapenak edo luzapenak ematea.

f) Tributu gaietako ikuskatzailatza edo eskuhartze iraunkorrak ezartzea zenbait ustiakuntza edo jardura ekonomiko motatan.

g) Partikularrek tributu likidazioko operazioak egiteko duten obligazioa.

12. artikulua. Bateratzea.

Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren arau behin-behineko guztiak emateko Hitzarmen Ekonomikoak hala aginduta Estatuaren arau mamizko eta formazko beraren arabera gobernatu behar diren tributuetarako.

Arau horiek atzera-balioa ere izan dezakete, haiek eta itxura ematen dieten araubide komuneko arauak momentu berean indar hartu dezaten.

Arau horiek foru legearen maila izan behar badute, Nafarroako Parlamentuari bidaliko zaizkio onetsi eta hurrengo hamar egunetan, hark behin betiko onetsi ditzan.

13. artikulua. Tributuen gaineko araudia.

1. Foru legeek eta tributu gaiez ari diren erregelamenduek hala eman beharko dute espreski

aditzera beren tituluan eta kasuko artikuluen errubrikan.

2. Foru legeek eta tributu arauak aldatzen dituzten erregelamenduek indargabetu diren arauen zerrenda osoa edukiko dute eta aldatu direnen testu berria.

II. KAPITULUA Arauen aplikazioa

14. artikulua. Indar hartzea.

1. Foru Komunitateko tributu arauak, berek beste zerbait agintzen ez badute, Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hogeigun buruan indar hartzen dute.

2. Tributu gaietako arau-hauste eta zehapenen erregimena gobernatzeko arauak, eta bai errekar-guena gobernatzekoek ere, atzera balioa izanen dute interesatuarentzat hala baldin bada mesede.

15. artikulua. Aplikazio eremua.

Nafarroako tributu arauak Nafarroako lurraldean dira lotgarri, nahiz horrek ez dituen galarazten Hitzarmen Ekonomikoan ezartzen diren Estatuaren erregimen orokorrarekin bateratzeko irizpideak.

Legeak kasu bakoitzean xedatzen duena salbu, tributua honako printzipioen arabera aplikatuko dira:

a) Pertsona fisiko nahiz juridikoen egoitza, delako karga pertsonala denean.

b) Lurraldea, gainerako tributuetan eta bereziki haien helburua delarik produktua, ondarea, ustiategi ekonomikoak edo ondasun trafikoa.

16. artikulua. Interpretazioa.

1. Tributu arauak Zuzenbidean onarturik dauden printzipioen arabera interpretatuko dira.

2. Tributu antolamenduaren arabera definitzen ez diren artean bere arauetako terminoak adiera juridikoan, teknikoan edo ohikoan, ulertuko dira.

3. Ez da analogiarik onartuko zergagaiaren, edo salbuespen edo hobarien eremua hertsiki duena baino zabalagoa izateko.

IDATZ-ZATI BERRIA. Araua interpretatzean zalantzarik baldin badago, tributua ordaindu behar duenari onuragarrien gertatzen zaion irizpidea aplikatuko da.

17. artikulua. Lege iruzurra.

1. Lege iruzurra galarazteko, ez da ulertuko zergagaiaren eremua zabaldu denik kargatzen dena direlarik tributua ez pagatzeko asmotan

egindako gertaera, egintza edo negozio juridikoak, beste helburu baterako emandako arauen tesuez baliaturik, beti ere baldin zergagaiak sortzen duena adinako emaitza sortzen badute. Tributu legeko iruzurra espediente berezian deklaratu beharko da, bertan interesatuari entzunaldia emanik.

2. Tributu legearen iruzurrez egindako gertaerek, egintzek edo negozioek ez dute galaraziko ihes egin nahi zaion tributu araua aplikatzea ez eta sortuko haien bidez erdietsi nahi ziren abantaila fiskalak.

3. Lege iruzurrezko espediente bereziaren bidez egiten diren likidazioetan, ihes egin nahi izan zaion tributu araua aplikatuko da eta tokatzen diren berandutza korrituak likidatuko, eta ondorio hauetarako ez bestetarako ez da zehapenik zorko.

18. artikulua. Simulazioa.

Egintza edo negozio simulatu batean, kargatu beharreko zergagaia parteek egitez egin dutena izanen da, zein ere forma edo izen juridiko erabili duten interesatuek.

III. TITULUA **Tributuak**

I. KAPITULUA **Tributu motak**

19. artikulua. Sailkapena.

1. Tributuak honela sailkatzen dira: zerga, tasa eta kontribuzio bereziak.

a) Zergak kontraprestaziorik gabe eskatutako tributuak dira, zeinaren zergagaia baitira subjektu pasiboaren zerga gaitasuna agertzeraren ematen egintza edo gertaera juridikoak, ondare baten jabe izan, ondasunak zirkulatu edo errentaren gastuagatik.

b) Tasa direlako tributuen zergagaia jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia da, subjektu pasiboari eragin edo onura berezia ekartzen dioten jarduerak edo zerbitzuak Zuzenbide Publikoko erregimenean egiteko, baldin honakoetako inguruabar bat gertatzen denean:

Lehenbizikoa. Zerbitzu edo jarduerak ez izatea administratuek beren oldez eskatu beharrekoak. Hartarako honako eskaerak ez dira hartuko administratuek beren oldez eskatutzat:

Lege edo erregelamendu xedapenek inposatzen dituztenean.

Eskatzen diren ondasun, zerbitzu edo jarduerak ezinbestekoak direnean eskatzailearen bizitza pribatu nahiz sozialerako.

Bigarrena. Sektore pribatuak emanak ez izatea, arau indardunen arabera sektore publikoaren aldeko erreserba ezarriarik egon ala ez.

c) Kontribuzio bereziak direlako tributuen zergagaia da subjektu pasiboak erdiestea onura bat edo bere ondasunen balioa gehitzea, obra publikoak egin edo zerbitzu publikoak zabaltzearen ondorioz.

2. Zerga dira, halaber, ordainarazpen parafiskalak deitutakoak, subjektu pasiboari eragiten edo onura ekartzen dioten Administrazioaren zerbitzu edo egintzak bereziki aintzat hartu gabe eskatzen direnean.

II. KAPITULUA **Zergagaia**

20. artikulua. Kontzeptua.

1. Zergagaia legeak tributu bakoitza itxuratzeo finkatzen duen kasu juridikoa da, zeina gertaetzeak sortzen baitu tributu eman beharra.

2. Tributua eskatzeko, aintzat hartuko da zerizaera juridiko duen legeak definitzen duen kasuak, zein ere forma edo izen eman dizkioten interesatuek, eta baliogabetzeko moduko akatsak baldin baditu ere.

3. Foru legeak, hala behartzen bada, osatu eginen du zergagaiaren definizio konkretua, tribututik libre dauden kasuak aipatuz.

III. KAPITULUA **Tributudunak**

1. atala **Subjektu pasiboa**

21. artikulua. Subjektu pasiboa.

Subjektu pasiboa da foru legearen arabera tributu prestazioak egitera beharturik dagoen pertsona fisiko nahi juridikoa, dela zergadun gisa, ordezkari gisa, atxikitzaile edo konturako sarrerak egiteko obligaziodun gisa.

22. artikulua. Zergaduna.

Zergaduna da foru legeak zergagaiak sortzen duen tributu zama egozten dion pertsona fisiko nahiz juridikoa.

Foru Legeak hala aginduta tributuaren zama jasan behar duen pertsona beti izanen da zergadun, zama besteri helarazten badio ere.

23. artikulua. Ordezkoa.

Zergadunaren ordezko izanen da foru legeak hala aginduta eta haren ordez tributu eginkizunaren prestazio material eta formalak egitera behar turik dagoen subjektu pasiboa.

24. artikulua. Atxikitzailea eta konturako sarrera egiteko obligazioduna.

Atxikitzailea da zein ere subjektu pasibo, ordaintzen dituen errentak direla medio, behar turik baitago foru legeak hala aginduta diru kopuru jakin batzuk edekitzera zerga baten konturako pagu gisa, bere gain hartuz diru kopuru horren sarrera egiteko obligazio nagusia eta bai ezartzen diren beste obligazio osagarriak ere. Errenta horiek gauzak ordaintzen badira, zilegi izanen da foru legeak sarrera bat egiteko obligazioa ezartzea zerga baten konturako pagu gisa.

25. artikulua. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak.

Hala ezartzen den foru legeetan subjektu pasibo izanen dira, herentzia banatu gabeak, ondasun komunitatea eta zein ere beste entitate, nortasun juridikorik izan gabe, unitate ekonomiko edo ondare bereizi bat baitira, zerga jartzeko modukoak.

26. artikulua. Titularren konkurrentzia.

Zergagaian bi titular edo gehiagok bat egiten badute, biek izanen dute obligazio solidarioa Nafarroako Ogasun Publikoarekiko, non eta tributu bakoitzaren foru lege berariazkoak besterik agintzen ez duen.

27. artikulua. Obligazioak.

1. Subjektu pasibo guztien obligazio nagusia da tributu zorra pagatzea. Behar turik dago, halaber, tributu bakoitzerako eskatzen diren aitorten eta komunikazio guztiak egitera.

2. Behar turik daude, halaber, kontabilitate eta erregistro liburuak eta kasuan-kasuan ezartzen diren beste dokumentuak eramatera; bide ematera ikuskatze eta konprobazioak egiteko eta Administrazioari zergagaiarekin lotura duten datuak, aurrekariak eta frogagiriak ematera.

3. Aurreko idatz-zatiak aipatu dituen obligazioak, osagarri diren neurrian, ezin eskatuko dira behin obligazio nagusia konplitzeko administrazio ekintzaren preskripzio epea iragan ondoren.

28. artikulua. Tributu obligazioaren aldaezintasuna.

Ez da zilegi izanen partikularren egintzek edo hitzarmenek tributudunaren jarrera eta tributu obligazioaren beste elementuak aldatzea. Egintza

edo hitzarmen horiek ez dute administrazioarekiko ondoriorik izanen, haien ondorio juridiko-pribatuak ezertan galarazi gabe.

2. atala
Erantzuleak**29. artikulua.** Araubide orokorra.

1. Zilegi izanen da foru legeak beste pertsona batzuk deklaratzeko tributu zorraren erantzule solidario edo subsidiario, subjektu pasibo edo zordun nagusien ondoan.

2. Lege batek espreski besterik agintzen ez badu, erantzukizuna beti subsidiarioa izanen da.

3. Erantzukizunak tributu zor osoa hartuko du, zehapenak izan ezik. Hala ere erantzukizunak zehapenak ere hartuko ditu erantzuleak tributu gaietako arau-hauste batean parte hartuak sortu badu erantzukizun hori.

Ez da zilegi izanen erantzuleari premiamenduzko errekarua eskatzea hurrengo idatz-zatiko hirugarren lerroaldeko kasuan baizik.

4. Nolanahi ere, erantzuleei tributu zorra paga dezatela eskatzeko administrazio ekintza desbideratzeko, administrazio egintza bat beharko da, eta hartan, interesatuari entzunaldia eman ondoren, erantzukizuna deklaratu eta haren irispidea finkatzea.

Egintza hori jakinarazi egingen zaie, likidazioaren elementu funtsezkoak adieraziz, erregelamendu bidez finkatzen den moduan, eta ordutik aurrera zordun nagusiaren eskubide guztiak haiei pasako zaizkie.

Sarrera egiteko erantzuleak duen borondatezko aldia iragan eta pagamendua egin ez bada, erantzukizuna besterik gabe zabalduko da foru lege honetako 117. artikulua aipatzen duen errekarua eta premiamendu bidean eskatuko da zorra.

5. Administrazio egintza erantzule subsidiario-etara desbideratzeko, aurretiaz zordun nagusia eta beste erantzule solidarioak huts egindakotzat deklaratu beharko dira, aitorten hori baino lehen legez aurreikusten den markoan har daitezkeen kautelazko neurriak ezertan galarazi gabe.

6. Zor beraren erantzule solidario edo subsidiarioak bat baino gehiago direlarik, zilegi izanen da zor hori haietako edozeini osorik eskatzea.

30. artikulua. Erantzukizun solidarioko zenbait kasu berezi.

1. Tributu obligazioen erantzule solidario izanen dira tributu gaietako arau-hauste baten egile edo laguntzaile izan diren pertsona guztiak.

2. Kasuko aitorpena sendotu direnetakoa bada, taldeko sozietateak tributu zorraren erantzule solidario izanen dira, zehapenak salbu.

3. Foru lege honetako 25. artikulua aipatzen dituen entitate juridiko edo ekonomikoen partaide edo titularkideak entitate horien tributu obligazioen erantzule solidario izanen dira, bertan duten partaitearen proportzioan.

31. artikulua. Ustiategi edo jarduera ekonomikoak erostearen ondoriozko erantzuleak.

1. Zilegi izanen da pertsona fisiko nahiz juridikoak eta foru lege honetako 25. artikulua aipatzen dituen erakundeak ustiategi eta jarduera ekonomikoetan aritzearen ondorioz sortzen diren tributu zor eta erantzukizunak edozein arrazoirengatik haietan hurrengo titular edo erabiltzaile bihurtzen denari eskatzea, legedi zibilak herentzia eskuratzeko xedatzen duena ezertan galarazi gabe.

2. Erantzukizunak bai likidatutako zorrak eta bai likidatzekoak hartzen ditu, direlako ustiategi edo jardueretan aritzeagatik, haietatik ateratako errentak barne direla.

3. Erostenaren erantzukizuna solidarioa izanen da eta ez dio eskualdatzaileari tributu obligaziorik kentzen.

4. Ustiategi edo jarduera ekonomikoaren titulartasuna erosi nahi duenak zilegi izanen du, oraingo titularra ados badago, Administrazioari eskatzea ustiategi edo jardueran aritzeak sortu dituen tributu zor eta erantzukizunen ziurtagiri zehetua. Ziurtagiri horren edukia negatiboa izaten bada edo bi hilabeteko epean luzatzen ez bada, artikulua honetan ezartzen den erantzukizunetik libre egonen da.

32. artikulua. Erantzukizun subsidiarioko kasu bereziak.

1. Administrazioaileak izanen dira tributu arau-hauste bakunen eta pertsona juridikoek egindako arau-hauste larrietan tributu zor osoaren erantzule solidarioak, ez badituzte egin eginkizun zituzten egintzak hautsitako tributu obligazioak betetzeko, edo onartu badute beren mendekoek ez betetzea edo arau-hauste horiek ahalbidetu dituzten erabakiak hartu badituzte.

Halaber, eta edozein kasutan, administrazioaileak izanen dira erantzule solidario beren jardueratik gelditu diren pertsona juridikoek eginkizun dituzten tributu obligazioetarako.

Agindu honetan aurreikusten denak ez die ezertan eragiten tributuei buruzko legedia indardunak aurreikusten dituen beste erantzukizun kasuei.

2. Erantzule subsidiarioak izanen dira kiebra, lehiaketa, sozietate eta oro har entitateen sindikotak, esku-hartzaileak edo likidatzaileak, baldin utzieriaz edo fede txarrez egin ez badituzte egoera horiek izan baino lehen sortu ziren tributu obligazioak, kasuan kasuko subjektu pasiboek egoztekotak, osorik betetzeko behar ziren kudeaketak.

3. atala **Ondorengoak eta tributupeko** **ondasunen erosleak**

33. artikulua. 1. Mortis causako ondorengoak hildakoaren tokian subrogatuko dira eta betekizun dauden tributu obligazioen erantzule izanen dira, herentzia eskuratzeko legedi zibilak xedatzen duenaren ondoriozko mugekin. Zehapenik ez da inoiz eskualdatuko.

2. Sozietate edo entitate desegin eta likidatuaren kasuan, haien tributu obligazioak sozioei edo kapitalaren partaideei eskualdatuko zaizkie, zeinak haien erantzule solidario izanen baitira, zer likidazio kuota esleitu zaien, haren balioaren mugaraino.

34. artikulua. Tributupeko ondasunen erosleak.

1. Foru legeak hala aginduta tributu zorraren mendean dauden ondasunak erosten dituztenak, haien erantzule solidario izanen dira, tributu ekintza desbideratzearen ondorioz, zorra pagatzen ez bada.

2. Tributupeko ondasunen kontrako tributu egintza desbideratzeko, Administrazio egintza beharko da, erregelamenduak agindu bezala jakinarazia, eta erosleak zilegi izanen du dela pagatzea, dela ekintzari aurrera egiten uztea edo egindako likidazioaren kontra erreklamatzeko, edo desbideratze horren zilegitasunaren kontra.

3. Desbideratzea ez da iritsiko foru legeak aurreikusten duen mugara ondasunen tributupekotasuna adieraztean baizik.

4. atala Jarduteko gaitasuna

35. artikulua. Nork duen jarduteko gaitasuna.

Tributu gaietan, Zuzenbide Pribatuko arauen arabera jarduteko gaitasun hori duten pertsonak ez ezik, adin txikikoek ere izanen dute gaitasuna, antolamendu juridikoaren arabera haien gaineko guraso boterea edo tutoretza duten pertsonak lagundu gabe zilegi dituzten jarduerak sortzen dituzten tributu harremanetarako.

36. artikulua. Ordezkaritza.

1. Jarduteko gaitasuna duen tributudunak zilegi izanen du ordezkaritza baten bidez egintzak egitea, eta ordezkaritza horri zuzenduko zaizkio administrazioaren ondorengo egintzak besterik agintzen ez den artean.

2. Errekurtsoak edo erreklamazioak jartzeko, haiek edozein pausotan bertan behera uzteko eta tributudun baten izenean eskubide bati uko egiteko, ordezkaritza frogatu beharko da, eta hartarako behar adinako ahala erakutsi notario batek konprobatutako sinadura duen dokumentu publiko nahiz pribatu bat aurkeztuz edo Administrazio organo eskudunaren aurrean agertuz. Tramite hutseko egintzetarako ordezkaritza jakintzat ematen da.

3. Ordezkaritzarik ez badago ere edo behar adina frogatu ez bada ere, kasuko egintza egintzat hartuko da, frogabide hori aurkeztu edo duen akatsa zuzentzen bada Administrazio organoak hartarako eman behar duen hamar eguneko epean.

4. Unitate ekonomiko edo ondare bereizi diren entitate, elkarte, herentzia banatu gabe eta ondasun komunitateen kasuan, haiek ordezkaritza zeini eman, huraxe arituko da ordezkaritza, modu sinesgarrian frogatzen badu; inor ez badute izendatu ordezkaritza, itxuraz kudeaketa edo zuzendaritza lanetan aritzen dena hartuko da halakotzat, eta halakorik ez bada, entitatea edo komunitatea osatzen duten bazkide edo partaideetako edozein.

5. Jarduteko gaitasunik ez duten tributudunek beren legezko ordezkaritza bidez egiten dituzte egintzak.

5. atala Helbide fiskala

37. artikulua. Araubide orokorra.

1. Tributu gaietarako helbidea hauxe izanen da:

a) Pertsona fisikoaren kasuan, haien ohiko bizilekua.

b) Pertsona juridikoentzat, sozietatearen helbidea, beti ere baldin eta administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza egitez eta benetan bertan zentralizaturik badago. Bestela kudeaketa edo zuzendaritza hori kokaturik dagoen lekua hartuko da.

2. Helbide fiskala Nafarroan duten tributudunak beharturik daude helbide hori tributu administrazioari jakinaraztera. Tributudunak helbide fiskal hori deklaratu ez badu, bera titular duen edozein eraikin edo ustiategiarena hartuko da halakotzat.

3. Tributuduna helbidez aldatzen bada, hala eman beharko dio aditzera tributu administrazioari, hartarako aitortpen espresua eginaz. Aldaketak ez du Administrazio horrekiko ondorioz izanen harik eta delako tributu aitortpena egin arte. Administrazioak zilegi izanen du tributu helbidea zuzentzea kasurako konprobazio bat eginez.

Helbide aldaketa deklaratu ez bada aurreko errokadaren xedatu den bezala, tributudunak azken deklaratu duen helbidea edo edozein tributu agiritan jarri duena hartuko da helbidetzat ondorio guztietarako.

38. artikulua. Kasu bereziak.

Tributu administrazioak zilegi izanen du helbide fiskala Nafarroaz kanpo duten subjektu pasiboak Nafarroan helbidea duen ordezkaritza bat izendatzeko eskatzea, harekin izateko harremanak.

Aurreko errokadaren xedatu denak ez du ezertan galarazten araubide komuneko legediak Espainian egoitzarik ez dutenentzat agintzen duena.

IV. KAPITULUA Oinarria

1. atala Zerga oinarria nola finkatu

39. artikulua. Araubideak.

1. Tributu bakoitzaren arau berariazkoak finkatu du zer bide eta metodo erabiliko diren zerga oinarria finkatzeko, honako araubideetan:

a) Zuzeneko estimazioa

b) Estimazio objektiboa

c) Zeharbideko estimazioa

2. Subjektu pasiboak zilegi izanen du, hartarako frogak aurkeztuz, aurreko idatz-zatikoa a) eta c)

letretako araubideek ezartzen dituzten oinarriak ezeztatzea.

40. artikulua. Zuzeneko estimazioa.

Tributu oinarriak zuzeneko estimazioaren araubidean finkatzea, Administrazioari dagokio eta hartarako, aurkeztu diren aitorten edo dokumentuak edo administrazioak konprobatu liburu eta erregistroetan jasotzen diren datuak erabiliko ditu.

41. artikulua. Estimazio objektiboa.

Estimazio objektiboko araubidea subjektu pasiboek hala eskatuta erabiliko da tributu bakoitzaren foru lege berariazkoak hala xedatzen duenean.

42. artikulua. Zeharbideko estimazioa.

Subjektu pasiboek aitorten aurkeztu ez edo aurkeztu dituztenetan Administrazioak ez baditu aurkitzen zerga oinarrien edo etekinaren estimazio osoa egiteko behar dituen datuak, edo subjektu pasiboek trabaz, aitzakiaz, edo ukoz ezintzen badute ikuskatze lana, edo beren kontabilitate obligazioak nabarmenki betetzen ez badituzte, orduan oinarriak edo etekinak zeharbideko estimazio araubidean finkatuko dira, hartarako bide hauetako bat erabiliz:

a) Kasurako ardurako diren datuak eta aurrekariak aplikatuz.

b) Ondasun eta errenta horien existentzia zeharbidez frogatzen duten elementuak erabiliz, eta kasuko sektore ekonomikoan normalak diren diru sarrera, salmenta, kostu eta etekinena ere bai, tributu gaietarako konparatu behar diren produkzio unitateen edo famili unitateen tamaina aintzat hartuta.

c) Kasuan kasuko zergadunek bere dituzten zeinu, indize edo moduluak baloratuz antzeko edo igualeko kasuetarako eskura dauden datu eta aurrekarien arabera.

43. artikulua. Zeharbideko estimazioaren prozedura.

1. Zeharbideko araubidearen aplikazioa tributu ikuskaritzaren lanak sortu badu, subjektu pasiboaren tributu egoera erregularizatzeko aktekin batera honako puntuei buruzko txosten arrazoitua aurkeztuko da:

a) Zeharbide estimazioaren araubidea aplikatzea ekarri duten arrazoioak.

b) Ikuskatu beharreko subjektu pasiboaren nahitaetzko kontabilitatea eta erregistroak zertan diren.

c) Oinarriak edo etekinak finkatzeko hautatu diren bideen arrazoia.

d) Aurrekoak oinarri egin diren kalkulu eta estimazioak.

Kasuko txostenarekin batera hasitako aktak haien izaera eta motaren arabera prozeduran tramitatuko dira.

2. Tributu ikuskaritza tarteko izan ez den kasuetan, kudeaketa organo eskudunak administrazio egintza emanen du tributu oinarri eta likidazioa finkatzeko, eta bai hala jakinaraziko ere interesatuari, foru lege honetako 113 eta 114. artikuluek aipatzen dituzten baldintzekin eta aurreko idatz-zatiko a), c) eta d) letretako datuak adieraziz.

3. Zeharbideko estimazioaren araubidea aplikatzeko ez da behar administrazio egintzarik hala deklaratzeko, nahiz horrek ez duen galarazten handik heldu diren egintza eta likidazioen kontra errekursoak jartzea. Jarritako errekursoetan zilegi izanen da zeharbideko estimazioaren araubidea aplikatzea bide zen ala ez eztabaidatzea.

2. atala

Balioen konprobazioa

44. artikulua. Konprobazio bideak

1. Tributu administrazioak zilegi izanen du errenta, produktu, ondasun eta beste zergagai elementuen balioa konprobatzea honako bide hauek erabiliz:

a) Etekinen kapitalizazioa edo egozpena egitea tributu bakoitzaren foru legeak ezartzen duen portzentajea, edo erregistro fiskal ofizialetan ageri diren balioen arabera estimazioa.

b) Merkatuko prezio batz bestekoak.

c) Espainiako nahiz atzerriko merkatuetako kotizazioak.

d) Administrazioako perituen irizpena.

e) Kontraesanezko peritu tasazioa

f) Zein ere beste baliabide ezarriko baititu tributu bakoitzaren foru legeak.

2. Subjektu pasiboak zilegi izanen du edozein kasutan ere, kontraesanezko peritu tasazioa eginaraztea konprobazio fiskala egiteko aurreko idatz-zatian aipatu diren beste prozeduren zuzengarri, administrazioak konprobatu dituen balioak oinarri egin den likidazioaren kontrako, edo hala aurreikusia badago behar bezala jakinarazitako balio konprobatze egintzaren kontrako lehen erreklamazioa egiteko epean.

Kontraesanezko peritu tasazioa egitea erabaki delarik, erregelamendu bidez ezarri den moduan, peritu horiek ez badira bat etortzen ondasun edo eskubideen balioaren gainean eta Administrazio-ko perituak egindako tasazioa ez bada subjektu pasiboa egindakoa baino 100eko 10 altuagoa eta ez badu 20.000.000 pezeta gehiago egiten, azken hori hartuko da likidazio oinarritzat.

Administrazio-ko perituaren tasazioak muga horri goiti egiten badio, hirugarren peritu bat izendatuko da. Hartarako, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak urteroko urtarrilean eskatuko die elkargo profesional eta legez aitortutako elkargo edo korporazio profesionali zerrenda bat bidal dezatela hirugarren peritu aritzeko prest dauden kideekin. Jendaurreko zozketa eginda zerrenda bakoitzetik bat hautatuta, handik eginen dira izendapenak, hurrenkera korrelatiboan, baloratu beharreko ondasun eta eskubideak nolakoak diren aintzat harturik eta beti ere izendapenari muzin egiten ez bazaio behar adinako arrazoi batengatik.

Baloratu beharreko ondasun eta eskubideen izaera dela eta ez badago elkargo profesional eskudunik edo hirugarren peritu aritzeko prest dagoen profesionalik, Espainiako Bankuari eskatuko zaio tasazio sozietate bat izenda dezala, kasuko erregistro ofizialetan inskribatua.

Administrazio-ko perituak lege indardunek agindu bezalako lansaria jasoko du. Subjektu pasiboaren peritua subjektu pasiboak pagatuko du. Hirugarren perituak egindako tasazioa ordainduko du hirugarren perituak egindako tasaziotik kuantitatiboki gehien urruntzen den tasazioa egin duen perituaren alderdiak; kuantitatiboki neurri berean urruntzen badira, erdi bana ordainduko dute. Hirugarren perituaren tasazioa deklaraturako balioa baino txikiagoa bada, subjektu pasiboak eskubidea izanen du gordailuak sortu dizkion gastuak itzul dakizkion.

Hirugarren perituak zilegi izanen du eskatzea ezen, bere lana hasi baino lehen, bere lansariak altxa daitezela. Hartarako 10 eguneko epean gordailu bat eginen da Foru Komunitateko Diruzaintzan. Edozein partek ez badu gordailu hori egiten, ulertuko da onartzen duela beste partearen perituak egindako balorazioa, zein ere den bi balorazioen arteko aldea.

Hirugarren perituak bere balorazioa entregatu duelarik tributu administrazioan, hala emanen zaio aditzera interesatuari eta aldi berean 15 eguneko epea emanen, hala tokatzen bada, bere karguko lansarien pagamendua frogatzeko. Hala tokatzen

bada, baimena emanen da Foru Komunitateko Diruzaintzan gordailaturako lansariak erabiltzeko.

3. Tributu bakoitziburuzko arauak araupetuko dute artikuluko honetako 1. idatz-zatian aipaturiko konprobazio bideen aplikazioa.

45. artikulua. Balorazioari buruzko alde aurreko erabakiak.

1. Subjektu pasiboek Tributu Administrazioari eskatu ahal izanen diote, tributuari buruzko arauak halakorik aurreikusten duenean, alde aurretik eta era loteslean zehatz dezan ondorio fiskaletarako errentek, produktuek, ondasunek, gastuek eta zergagaiaren gainerako elementuen balorazioa.

2. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko da, zergaia gauzatu baino lehen, edo, kasua bada, tributu bakoitzari buruzko arauetan ezartzen diren epeetan, eta harekin batera subjektu pasiboak egindako balorazio proposamen bat ere aurkeztu beharko da.

3. Tributu administrazioak zilegi izanen du subjektu pasiboak deklaratu dituen egitezko elementuak eta inguruabarrak konprobatzea.

4. Tributu administrazioaren balorazioa idatziz emanen da, aditzera emanaz balorazioa lotgarria dela, zer ustezko egitateren gainekoa den, eta zer zergari aplikatzen zaion, prozeduraren arabera eta tributu bakoitzaren araudiak finkatzen dituen epeetan. Tributu administrazioak ez badu esandako epe horietan erantzuten, ulertuko da subjektu pasiboak proposatzen dituen balioak onartzen direla.

5. Legea aldatzen ez bada, edo balorazioaren oinarri izandako egoera ekonomikoa nabarmen aldatzen ez bada, tributu administrazioak erabakian esandako balioak aplikatu beharko dizkio subjektu pasiboari.

6. Erabakiak luzeenez hiru urteko indarraldia izanen du, bera ezartzen duen araudian besterik agintzen ez bada.

7. Subjektu pasiboek ez dute zilegi izanen inolako errekurtsorik jartzea agindu honetan arautzen diren erabakien kontra, nahiz zilegi duten errekurtsua jartzea ondoren eman litezkeen likidazioen kontra.

3. atala Likidazio oinarria

46. artikulua. Kontzeptua.

Likidazio oinarria da zerga oinarriari, hala toka-tzen bada, tributu bakoitzaren foru legeak ezar-tzen dituen murrizketak egin ondorengo emaitza.

V. KAPITULUA Tributu zorra

1. atala

Karga tasa, kuota eta tributu zorra

47. artikulua. Karga tasak.

Karga tasatzat hartuko dira kuota finkatzeko kasuko likidazio oinarriari aplikatu behar zaizkion tasa proportzional edo progresibo guztiak.

48. artikulua. Tributu kuota.

Zilegi izanen da tributu kuota kasurako aplika-tzekoa den karga tasaren arabera zehaztea, har-tarako foru legeetan ezarri den kopuru finkoaren arabera, edo bai aldi berean bi prozeduretan.

49. artikulua. Tributu kuota ofizioz murriztea.

Ofizioz murriztu beharko da tributu kuota noiz ere karga tasa aplikatzearen ondoriozko oinarri gehikuntza batek bera baino handiagoko kuota zatia ekartzen baitu. Murrizketa, gutxienean, diferentzia horrena izanen da. Arau honen sal-buespen dira tributu zorra tinbre gaien bidez pagatu behar den kasuak.

50. artikulua. Tributu zorra.

1. Tributu zorraren osagai dira foru lege hone-tako 48. artikulua aipatzen duen kuota, kontura-ko paguak edo pagu zatikatuak, atxikitako kopu-ruak edo atxiki beharko zirenak eta konturako sarrerak.

Hauek ere, zein bere kasuan, tributu zorraren osagai izanen dira:

a) Oinarri edo kuoten gainean legez eska dai-tezkeen errekareruak, dela Foru Komunitatearen alde edo beste ente publiko baten alde.

b) Foru lege honetako 52. artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusten diren errekareruak.

c) Berandutza korritua; korritua sortzen den al-dian indar duen diruaren legezko korritua, 100eko 25 batean gehitua, foru legeak beste zer-bait agintzen ez badu.

d) Premiamenduzko errekareruak.

e) Diruzko zehapenak.

2. atala Ordainketa

51. artikulua. Ordaintzeko moduak.

1. Tributu zorra dirutan edo tinbregaiak erabiliz pagatu ahalko da, erregelamenduak zer agintzen duen.

2. Tributu zor bat dirutan pagatu dela ulertzen da haren zenbatekoa Foru Komunitateko Diru-zaintzan, Bilketa bulegoetan edo behar bezalako baimena eta hura hartzeko eskumena duten enti-tateetan sartu denean.

3. Tinbre gaiak erabiltzen badira, ulertuko da tributu zorra pagatu dela gai horiek erregelamen-duak agintzen duen moduan erabiltzen direnean.

4. Zilegi izanen da tributu zorra pagatzeko Espainiako Ondare Historikoaren osagai diren ondasunak entregatzea, Ondasun Higigarrien Inbentario Orokorrean edo Interes Kulturalako Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribaturik daudenak erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

Zilegi izanen ere da tributu zorra pagatzeko Nafarroako Gobernuak horretarako propio interes kulturalakotzat deklaratu edo Foru Komunitate-arentzat interes berezikotzat jotako bestelako ondasunak entregatzea.

52. artikulua. Epeak eta errekareruak.

1. Pagamendua tributua arautzen duen arau-diak edo bestela dirubilketaren araudiak ezartzen duen epean eginen da.

2. Pagamendua egiteko jarritako epea iragan eta pagatu ez bada, berandutza korritua hasiko da sortzen.

Halaber, berandutza korritua eskatuko da egin-tza betearaztea eteten den kasuetan eta edonola-ko geroratze, zatikatze edo luzamenduetan.

3. Epez kanpo eta errekerimendurik gabe aur-keztu aitorpen-likidazioei dagozkien diru sarrerek eta epez kanpo eta errekerimendurik gabe aur-keztu autolikidazioek honako errekareruak izanen dituzte:

a) Aurkeztu eta diru sarrera egiteko boronda-tezko epea bukatu ondoko hiru hilabeteetan, 100eko 5eko errekareruak ezarriko da, berandutza korritua eta bestela eska zitezkeen zehapenak kenduta.

b) aurkeztu eta diru sarrera egiteko boronda-tezko epeko laugarren hilabetetik hamabigarrene-ra bitarte, 100eko 10eko errekareruak aplikatuko

da, berandutza korritua eta bestela eska zitezkeen zehapenak kenduta.

c) Aurkeztu eta diru sarrera egiteko borondatezko epea bukatu eta hamabigarren hilabetetik aurrera, 100eko 20ko errekarua aplikatuko da, bestela eska zitezkeen zehapenak kenduta baina berandutza korrituak kendu gabe.

Zilegi izanen da errekaru horiek bateratzea tributudunek ez badute diru sarrera egin epez kanpoko aitorpen-likidazioa aurkeztearekin batera, beti ere zordunaren egoera ekonomikoak ezintzen badio, aldi batez, behar den denboran pagatzea.

Geroratu edo zatikatutako zorrak dirubilletaren araudian aurreikusten den moduan bermatu beharko dira, salbu eta kasu hauetan:

a) Zor horiek erregelamenduz finkatzen diren zifrak baino gutxiagoak direnean.

b) Zordunaren ondasunak ez direnean aski zorra bermatzeko eta haren ondarea exekutatzeko nabarmen eragingo badie produkzio gaitasunari eta kasuko jarduera ekonomikoaren enplegu maila mantentzeko, edo Foru Komunitatearen interesari kalte handiak ekartzen badizkio.

53. artikulua. Tributu zorren autonomia.

1. Tributu zorrak autonomoak dira.

2. Tributudun bat berak tributu zor bat baino gehiago metatu, eta nahitaezko exekuzioa eginik ere zor guztiak ezin badira erabat berdinu, tributu administrazioak, hurrengo idatz-zatian xedatzen den kasuan salbu, kreditu zaharrenari aplikatuko dio pagua, eta zahartasun hori finkatzeko eskagarri izan zen data hartuko da.

3. Geroagoko mugaeguna duen zordunketa bat kobratzeak ez dio kentzen Foru Komunitateari, lehenagoko pagatu gabeko edo diru sarrera egin gabekoak jasotzeko eskubidea.

54. artikulua. Tributu zorraren kontsignazioa.

Tributudunek zilegi izanen dute tributu zorraren zenbatekoa Foru Komunitateko Diruzaintzan kontsignatzea, eta hala tokatzen bada, erregelamendu bidez sortu diren kostuak ere.

3. atala Preskripzioa

55. artikulua. Epeak.

Honako ondasun-eskubideek lau urteren buruan preskribituko dute:

a) Administrazioak likidazioa eginez tributu zorra finkatzeko eskubidea.

b) Likidatu diren tributu zorrak pagatzea eskatzeko egintza.

c) Tributu zehapenak ezartzeko egintza.

d) Zuzenez kontra egindako diru sarrerak itzultzeko eskubidea.

56. artikulua. Kontaketa.

Preskripzio epea aurreko artikulua aipatzen dituen kasuetan hasiko da kontaktzen:

a) kasuan, aitorpena aurkezteko erregelamenduzko epea bukatzen den egunetik; b) kasuan, borondatezko pagamendua egiteko epea bukatzen den egunetik; c) kasuan, direlako arau-haustea egin ziren egunetik; eta d) kasuan zuzenez kontrako diru sarrera egin zen egunetik.

57. artikulua. Etendura.

1. 55. artikuluko a), b) eta c) letrek aipatzen dituzten preskripzio epeak honako kasuetan eten dira:

a) Subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean dela egindako edozein Administrazio egintza dela medio, zergagai bakoitzak sortu duen tributua atzeman, erregulatu, ikuskatu, segurtatu, konprobatu, likidatu eta biltzea helburu.

b) Edonolako erreklamazio edo errekurtsioak jartzea.

c) Zorra pagatu edo likidatu beharrez subjektu pasiboak egiten duen edozein ekintza.

2. 55. artikuluko d) letrek aipatzen duen preskripzio epea eten egiten da subjektu pasiboak zuzenez kontrako diru sarrera itzularazi beharrez egiten duen edozein egintza sinesgarriekin, edo Administrazioak edozein egintzatan zuzenez kontrako diru sarrera hori badela aitortzen duen orduko.

58. artikulua. Aplikazioa.

Preskripzioa ofizios aplikatuko da, subjektu pasiboak hura eskatu edo deitu gabe.

4. atala Iraungitzeko bestelako bideak

59. artikulua. Konpentsazioa.

1. Zilegi izanen da tributu zorrak konpentsazioz osorik edo partez iraungitzea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan:

a) Tributudunei edozein tribututan zuzenez kontrako diru sarrerak egiteagatik tokatzen zaizkien eta administrazio egintza irmo baten bidez aitortutako kredituekin.

b) Administrazio egintza irmo baten bidez tributudun berari aitortu zaizkion kredituekin.

c) Tributu administrazioak ofizioz egin behar dituen itzulketekin tributu bakoitzaren araudi berriazkoaren arabera.

2. Nafarroako toki entitateek Foru Komunitatearekin dituzketen tributu zorrak osorik nahiz partez berdintzeko, zilegi izanen da konpentsazio bat eratzea erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

60. artikulua. Kondonazioa.

Tributu zorrak barkatzeko nahitaezkoa izanen da foru lege bat ezartzea, eta orduan ere bertan xedatzen den zenbatekoan eta baldintzetan baizik ez dira barkatuko.

61. artikulua. Ordainezintasun frogatua.

Subjektu pasiboaren eta beste erantzuleen ordainezintasun frogatua dela medio tributu zorra ez bada gauzatu kasuko prozedura exekutiboan, behin-behinekoz kobratu ezinekotzat deklaratu da bide den zenbatekoan, preskripzio epean sartzen ez den artean.

5. atala **Bermeak**

62. artikulua. Kredituen lehentasuna.

Foru Komunitateak lehentasuna izanen du mugaeguna pasa duten eta pagatu ez diren tributu kredituak kobratzeko, beti ere baldin beste hartzekodunak ez badira jabari, bahi, hipoteka edo Foru Komunitatearen eskubidea hasi zen data baino lehendik kasurako erregistroan inskribatutako beste eskubide benetako baten hartzekodun, foru lege honetako 63 eta 64. artikuluetan xedatzen dena ezertan galarazi gabe.

63. artikulua. Legezko hipoteka isilbidezkoa.

Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasun eskubideak edo haien produktu zuzenekoak, egiazkoak nahiz ustezkoak, kargatzen dituzten tributuetan, Foru Komunitateak lehentasuna izanen du beste edozein hartzekodun edo erostunen aurretik, horiek administrazioaren kobratze ekintza gertatzen ari den urteko eta haren aurreko urteko zor pagatu gabeak kobratzeko eskubideak inskribatu badituzte ere.

64. artikulua. Eraginak

1. Eskualdatutako ondasun eta eskubideek, eskualdaketa, erosketa edo inportazio horiek kargatzen dituzten tributuei dagozkien diru kopuruak, likidatuak nahiz likidatu gabeak, pagatzeko obligazioa izanen dute, zein ere den haien jabea, non

eta erregistroko fede publikoak jabe hori babesten ez duen, eta non eta frogatzen ez den ondasunak on beharrez eta titulu justuan erosi direla edo merkataritza nahiz industriako establezimenduan inskribatu ezineko ondasun higiezinak badira.

2. Tributu bakoitza arautzen duen foru legeak salbuespen bat edo hobari bat ematen badu, eta onura horrek benetan indar hartzeko baldintza baldin bada subjektu pasiboak gero batean foru legeak eskatzen duen betekizun bat betetzea, tributu administrazioak agertzera emanen du zenbateko osoa izango zen onura fiskalik izan ez balitz egin beharko zen likidazioa, eta hala jasoko da orri bazterreko ohar batean erregistro publikoetan.

65. artikulua. Atxikipen eskubidea.

Foru Komunitateak beste inork baino lehena-goko atxikitze eskubidea izanen du beren gaineko trafiko eta zirkulazio tributuak tramitatu eta ordainarazteko aurkezten diren salgaietan, eta hori likidatutako kredituaren kasuko zenbatekoan, haren pagamendua behar adina segurtatzen ez bada.

VI. KAPITULUA

Tributu gaietako arau-haustek eta zehapenak

1. atala **Arau-haustek**

66. artikulua. Araubide orokorra.

1. Tributu gaietako arau-hauste dira foru legeetan tipifikatzen diren egintzak eta egintza ezak. Tributu gaietako arau-haustek utzikeria hutsezkoak badira ere zehatzekoak dira.

Zergadunen jokabidea berez on beharrezko dela juzkatzen da.

Tributu administrazioari dagokio frogatzea tributu gaietako arau-haustean arau-hauslearen erruduntasuna finkatzen duten inguruabarrak gertatu direla.

2. Tributu gaietako arau-hauste eta zehapenak foru lege honek eta gainerako tributu arauak gobernaturiko dituzte.

3. Arau hausle izanen dira foru lege honetako 25. artikuluan aipatu eta foru legeetan arau-haustetzat tipifikatzen diren egintzak edo egintza ezak egin dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, hauek bereziki:

a) Tributuen subjektu pasiboak, zergadunak izan, ordezkioak, atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar dutenak izan.

b) Aitorpen sendotuko araubidean, sozietate nagusia.

c) Gardentasun fiskalaren araubideko entitateak.

d) Tributu administrazioari informazioa edo laguntza eman behar diotenak, foru lege honetako 103 eta 104. artikuluetan eta tributu bakoitzaren arauetan finkatu denaren arabera.

e) Jarduteko gaitasunik gabeko tributudunen legezko ordezkaria.

4. Honako kasuotan foru legeetan sailkatu diren egintzek edo egintza ezek ez dute sortuko tributu gaietako arau-haustearen erantzukizunik:

a) Tributu gaietan jarduteko gaitasunik ez dutenek eginak direnean.

b) Ezinbestez egin direnean.

c) Talde erabaki baten ondoriozkoak direnean, beren botoa salbatu edo erabakia hartu zen bileran izan ez zirenentzat.

d) Tributu obligazioak eta eginbeharrak betetzeko behar adinako arreta eta axola jarri direnean. Behar adinako arreta jarri dela juzkatuko da, bereziki, zergadunak aitorpen egiazko eta osoa aurkeztu duenean eta, hala tokatzen bazen, kasuko autolikidazioa egin duenean, arauaren interpretazio arrazoizko baten babesean.

e) Tributudunen jokabidea tributu administrazioak argitarapen, komunikazio eta kontsulten gaineko erantzunetan agertu dituen irizpideen arabera izan denean foru lege honetan ezarri bezalako moduan.

5. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen kasuetan, subjektu pasiboen edo gainerako tributudunen tributu egoera erregularizatzen denean, kasuko berandutza korritua ere eskatuko da, bide diren kuotaz, atxikipen edo konturako sarreraz, itzulketaz, onura fiskalaz eta errekarquez gain.

6. Tributu administrazioak juzkatzen badu kasu batean arau-haustea Ogasun Publikoaren kontrako delitu izan daitekeela, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunari helaraziko dio eta ez dio aurrera eraginen administrazio prozedurari Epaileak epai irmoa eman, egintzak largetsi edo artxibatu edo Ministerio Fiskalak espedientea itzultzen ez duen artean.

Epailearen kondenazio epaiak ezindu eginen du administrazio zehapenik ezartzea.

Delitu zantzurik atzeman ez bada, tributu administrazioak aurrera eraginen dio zehapen espedienteari, auzitegiek frogatutzat eman dituzten gertaerak oinarri.

67. artikulua. Arau-hauste bakunak.

1. Arau-hauste bakuna da edozein pertsonari eskatzen zaizkion tributu obligazio edo eginbeharrak ez betetzea, subjektu pasiboa izan ala ez izan, tributuen kudeaketagatik, arau-hauste larri edo zehapena graduatzeko osagai ez direnean.

Bereziki, honako portaerak dira arau-hauste bakun:

a) Aitorpenik ez aurkeztea edo aitorpen faltsuak, osagabeak edo okerdunak aurkeztea.

b) Ez betetzea tributu gaietan ardura duten datuak, txostenak edo aurrekariak emateko obligazioa, hirugarrenekin izandako harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioetatik heldu dena, foru lege honetako 103 eta 104. artikuluetan finkatzen den bezala.

c) Kontabilitate, erregistro eta zentsu eiteko obligazioak ez betetzea.

d) Fakturazio obligazioa ez betetzea eta, oro har, frogagiriak eta balio bereko agiriak jaulki, entregatu eta kontserbatzeko obligazioa ez betetzea.

e) Identifikazio Fiskaleko Zenbakia erabili eta jakinarazteko obligazioa ez betetzea.

f) Tributu administrazioaren jokaera trabaz, aitzakiaz edo ukoz ezintzea, kudeaketa, ikuskatze edo bilketa aldietan.

2. Tributu bakoitzaren foru legeek zilegi izanen dute arau-hauste bakunen kasuak sailkatzea bakoitzaren kudeaketak dituen izaera eta ezaugarrien arabera. Zilegi izanen da ezaugarri horiek tributuen gaineko erregelamenduek zehaztea foru legeak ezartzen dituen mugen barrenean.

3. Bestalde, foru lege hau garatzeko erregelamenduek zilegi izanen dute zehaztea, lege honen mugen barrenean, zer arau-hauste eta zehapen dagozkien arestian aipatu egin behar orokorrak ez betetzeari.

68. artikulua. Arau-hauste larriak

Honako portaerak dira arau-hauste larri:

a) Erregelamendu bidez ezarri diren epeetan tributu zorra osorik edo partez ez sartzeari, non eta foru lege honetako 52.3 artikulua arabera erregularizatzen ez den edo foru lege honetako 117. artikulua agintzen duena aplikatzea tokatzen ez den.

b) Ez aurkeztea, epez kanpo eta errekerimendua eginda aurkeztea edo gaizki edo osatu gabe aurkeztea tributu administrazioak autolikidazio

bidez eskatzen ez diren tributuak likidatu ahal izateko behar dituen aitortpenak edo dokumentuak.

c) Onura fiskalak, salbuespenak, desgrabazioak edo itzulketak zuzenez kontra lortu edo gozatzeari.

d) Bide denaz kontra kontusail negatiboak nahiz positiboak edo zerga kredituak finkatzea, gero bateko aitortpenen kuotan edo oinarrian kendu edo konpentsatu beharrekoak.

e) Gardentasun fiskaleko araubidepean dauden sozietateengatik egiazkoak ez diren zerga oinarriak finkatu edo sozioei egotzi beharreko kopuruak deklaratzeari.

2. atala Zehapenak

69. artikulua. Zehapen motak.

Tributu gaietako arau-hausteak zehatzeko honako bideak erabiliko dira, zein bere kasuan:

1. Diruzko isuna, finkoa edo proportzionala.

Diruzko isun proportzionala, foru lege honetako 77. artikuluko 1 eta 2. idatz-zatikoko kasu berezietan izan ezik, tributu kuotari eta, halakorik bada, foru lege honetako 50.2.a) artikuluko aipatzen dituen errekaragueti, sartu gabe geratu diren kopurueti edo zuzenez kontra izandako onura edo itzulketen kopuruari aplikatuko zaie.

2. Bost urtetarainoko epean aukera guztiak galtzea subentzio edo dirulaguntza publikoak erdiesteko eta onura edo pizgarri fiskalak izateko eskubide guztiak ere bai.

3. Bost urtetarainoko epean debeku izatea Foru Komunitateko Administrazioarekin edo beste erakunde publikoekin kontratuak egitea.

4. Urtebeterainoko epean etenik izatea lanbide ofizialetan, enplegu edo kargu publikoetan aritzea.

Hartarako, honakoak hartuko dira lanbide ofizialtzat: jabetzaren erregistratzaileak, notarioak, merkataritzako artekari ofizialak eta nork ere, funtzio publikoetan arituz, ez baitu lansaririk jasotzen Estatutik, autonomia erikidegoetatik, toki entitateetatik edo zuzenbide publikoko korporazioetatik.

70. artikulua. Zehatzeko gaitasuna duten organoak eta zehapen prozedura.

1. Honakoek erabaki eta ezarriko dituzte tributu gaietako zehapenak:

a) Nafarroako Gobernuak, zehapen horiek honakoetakoak badira: lanbide ofizial, enplegu edo kargu publikoetan aritzea etetea, onura edo pizgarri fiskalak izateko eskubidea galtzea, suben-

tzio edo dirulaguntza publikoak izateko aukera galtzea, edo Foru Komunitateko Administrazioarekin edo beste erakunde publiko batekin kontratuak egiteko debekua.

b) Nafarroako Zerga Ogasuna delako erakunde autonomoko zuzendari kudeatzaileak, zehapena arau-hauste bakunen ondoriozko dirutako isuna bada.

c) Zein ere administrazio organok baitu tributuaren edo haien konturako pagua egiteko diru sarreraren likidazio behin-behineko edo behin betikoa egiteko administrazio-egintzak emateko ardurara, ordainketa horiek arau-hauste larrien ondoriozko dirutako isunak badira.

2. Tributu zehapenak ezartzeko, subjektu arau-hauslearen tributu egoera ikertu edo konprobatzeko eratzten den espediente ez, beste espediente bat erabiliko da, zeinean beti ere interesatua entzuna izan den baita kasuan kasuko ebazpena eman aurretik.

3. Zehapen prozedura batean subjektu arau-hauslearen edo erantzulearen tributu egoera ikertu edo konprobatzeko eratu den espedientetik ateratako datuak, frogak edo inguruabarrak erabili behar badira, horiek denak formalki erantsi behar zaizkio zehapen espedienteari azken horri dagokion entzunaldi tramitea egin baino lehen.

4. Zehapen espedientearen ebazteko luzeeneko epea sei hilabetekoa izan da.

5. Zilegi izan da zehapena ezartzeko egintza kontra aparteko errekurso edo erreklamazioa jartzea, baina zergadunak tributu kuota ere aurkatzen badu, bi errekurso edo erreklamazioak metatu egiten dira.

6. Tributu zehapenak betearaztea besterik gabe etenen da bermea aurkeztu beharrik gabe, baldin eta behar den denboran eta moduan aurkezten bada haien kontra bide den errekurso edo administrazio erreklamazioa eta ez da zilegi izan zehapenak betearaztea harik eta administrazio bidean irmotzen diren arte.

7. Isunez beste zehapenak ezartzeko, subjektu arau-hauslearen tributu egoera erregularizatzeko eta tokatzen diren isunak ezartzeko eratu espediente ez, beste bat erabiliko da. Funtzionario eskudunak hala proposatuta hasiko da eta bertan, nolahi ere den, entzunaldia emanen zaio interesatuari kasuko ebazpena eman baino lehen.

71. artikulua. Zehapenen graduazioa.

1. Tributu zehapenak kasuan-kasuan honakoak aintzat hartuta graduatuko dira:

a) Tributu gaietako arau-haustek behin eta berriz egin diren.

Arau-hauste larri batean inguruabar hau gertatzen bada, zehapena 10etik 50 puntura bitarte gehituko da.

b) Tributu administrazioaren ikerketa lanei trabak jarri edo uko egin zaien.

Arau-hauste larri batean inguruabar hau gertatzen bada, zehapena 10etik 50 puntura bitarte gehituko da.

c) Arau-haustea egitean iruzurrezko bideak erabili badira edo beste norbait tarteko egin bada. Hartarako, honakoak hartuko dira nagusiki iruzurrezko bidetzat: mamizko anomaliak egotea kontabilitatean eta fakturen, frogagirien edo beste dokumentu faltsu edo faltsutuen erabileran.

Inguruabar hori arau-hauste larri batean gertatzen bada, zehapena 20tik 75era puntu bitarte gehituko da.

d) Aitorpenak aurkeztu gabek edo aitorpen osagabeak edo okerrak aurkeztuz Administrazioari ezkutatzea tributu zorra finkatzeko behar dituen datuak, eta horren ondorioz tributu zorra gutxiagotzea.

Inguruabar hori arau-hauste larri batean gertatzen bada, zehapenaren kopurua 10 puntutik 25era bitarte gehituko da.

e) Norbere buruz ez betetzea edo berandu betetzea formazko edo laguntza eman beharreko eginbeharrak.

f) Zer garrantzia duten tributu kudeaketarako eman ez diren datu, txosten edo aurrekariak eta, oro har, formazko eginbeharrak, kontabilitate edo erregistro eginbeharrak eta tributu administrazioari informazioa edo laguntza emateko obligazioa bete izan ezak.

2. Graduazio irizpideak aldi berean aplikatu daitezke.

Aurreko idatz-zatiko e) eta f) letretan finkatu diren irizpideak ez dira erabiliko arau-hauste bakunen zehapenak graduatzeko baizik. Idatz-zati horretako d) letretan ezarritako irizpidea arau-hauste larrien zehapenak graduatzeko baizik ez da erabiliko.

Erregelamendu bidez finkatuko da graduazio irizpide bakoitza noiz aplikatu.

3. Tributu gaietako arau-hauste larriengatik zehapenen zenbatekoa 100eko 40 gutxituko da subjektu arau-hausleak edo erantzuleak aditzera

ematen badu ados dagoela egin zaion erregularizazio eta zehapen proposamenarekin.

72. artikulua. Arau-hauste bakunen zehapenak.

1. Arau-hauste bakun bakoitzak 1.000tik 150.000 mila bitarteko isuna hartuko du, hurrengo idatz-zatietan agintzen dena salbu.

2. Tributu gaietarako ardura duten datak, txostenak edo aurrekariak eman nahi ezagatik, dela oro har eskatzen direnak dela norbanako bati eskatu zaizkionak, foru lege honetako 103 eta 104. artikuluek aipatzen duten moduan, 1.000tik 200.000ra bitarteko isuna jarriko da kasuko aitorpenetan agertu behar zen edo izandako errekerimenduen ondoren aurkeztu behar zen datu eman gabeko, faltsutu edo oker bakoitzeko. Ezarritako zehapena, dena den, ez da izanen subjektu arau-hausleak arau-haustea egin duen momentuaren aurreko urte naturalean izan duen operazio bolumenaren ehuneko 3 baino gehiagokoa. Gehieneko muga hori 5.000.000 milioi pezetakoa izanen da aurreko urte naturaletan operaziorik izan ez denean, aurreko urte naturala jardueraren hasierakoa zenean edo produkzio zikloa nabarmen irregularra denean. Eskatu diren datuak ez baziren subjektu arau-hauslearen enpresa- edo lanbide-jarduera bati buruzkoak, ezarritako zehapenaren gehieneko muga ez da izanen 300.000 baino gehiagokoa.

Subjektu arau-hausleak jarritako traba dela medio edo bere forma edo kontabilitate eginbeharrak ez betetzeagatik tributu administrazioak ezin badu eskatu duen informazioa erdietsi, ez eta informazio horrek zenbat datu izan behar lituzkeen jakin ere, hasieran egindako arau-hauste bakunari jarriko zaion isuna ez da izanen subjektu arau-hausleak arau-haustea egin momentuaren aurreko urte naturalean izan duen operazio bolumenaren 100eko 5 baino gehiagokoa, eta betiere ez 150.000 pezeta baino gutxiagokoa. Gehieneko muga, berriz, 8.000.000 pezetakoa izanen da aurreko urte naturaletan operaziorik izan ez bada edo aurreko urte naturala jardueraren hasierakoa bada edo produkzio zikloa nabarmen irregularra bada. Datuak ez badira subjektu arau-hauslearen enpresa- edo lanbide-jarduera bati buruzkoak, gehieneko muga hori 500.000 pezetakoa izanen da.

3. Kasuan-kasuan 25.000 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko isunak jarriko zaizkie honako arau-hausteei:

a) Arau fiskalek eskatzen dituzten kontabilitate eta erregistroetan operazio bat edo gehiago falta izatea edo faltsuak izatea.

b) Berez tokatzen zaiena ez, beste esangura bat duten kontuak erabiltzea, tributu egoera konprobatzea zailtzeko moduan.

c) Tributu aitortpenetan oker transkribaturik egotea nahitaezko liburu eta erregistroetan ageri diren datuak.

d) Kontabilitatea izateko edo arau fiskalek agindu bezalako erregistroak izateko obligazioa ez betetzea.

e) Lau hilabete baino gehiago berandutzea arau fiskalek agindu bezalako kontabilitatea eta erregistroak eramaten.

f) Jarduera eta ekitaldi bererako kontabilitate bat baino gehiago eramatea, enpresaren benetako egoera jakitea ezintzeko moduan.

g) Tributu administrazioak eskatu dituen frogak eta agiriak ez aurkeztea edo erakutsi nahi eza.

4. Enpresa- nahiz lanbide-jardueren gaineko datu zentsu-gaietarako ardura dutenak emateko obligazioa ez betetzeak 1.000tik 150.000 pezetara bitarteko isuna izanen du.

5. Zehatu diren tributu gaietako arau-hauste bakunak enpresariak edo profesionalek egin behar duten bezala fakturak luzatu eta entregatu eta hala tokatzen bada tributu kuoten egozpena kontsignatu beharra ez betetzea edo gaizki betetzea izan bada, artikuluko honetako 1. idatz-zatiak agintzen duena aplikatuz jartzen diren isun guztien zenbatekoa ez da izanen kasuko arau-hausteek sortu dituzten operazioen kontraprestazio guztien zenbatekoaren 100eko 5 baino gehiagokoa.

Subjektu arau-haustek oro har ez baditu bete aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen tributu kudeaketan laguntza emateko obligazioak, edo tributu administrazioak ezin badu harengatik jakin zenbat operaziok, fakturak edo antzeko agirik sortu duten arau-hauste bakun bat, arau-hauste bakun bakar baten erantzuleztat hartuko da eta 25.000 pezetatik eta konprobazioak hartu duen aldian izan dituen operazioen bolumenaren 100eko 5era bitarteko isuna jarriko zaio.

6. Inork, bere tributu harremanetan edo tributu gaietarako ardura duten harremanetan, ez badu bere identifikazio fiskaleko zenbakia erabili edo eman, erregelamenduak agintzen duen bezala, 1.000tik 150.000 pezetara bitarteko isuna izanen du. Zehapen hau bakarka ezarriko da, egin den arau-hauste bakun bakoitzeko. Hala ere, subjektu arau-haustek oro har bete ez badu laguntza emateko obligazioa, arau-hauste bakun bakar baten erantzule dela juzkatu eta 25.000tik

500.000ra bitarteko isuna jarriko zaio, edo ez betetze hori lanbide- edo enpresa-jarduera batean ari zela egina bada, konprobazioak hartu duen aldian izan dituen operazioen bolumenaren 100eko 5ekoa.

Kreditu erakunde batek ez baditu betetzen kontu edo operazio bat gaizki identifikatzeagatik berariaz dagozkion betebeharrak, 1988ko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeko 72. artikuluko 2. zenbakiak agintzen duen bezala, zuzenez kontra ordaindu edo kargatutako zenbatekoen 100eko 5eko isuna jarriko zaio, eta gutxienez 150.000 pezeta, edo operazioa edo gordailua ezereztatu behar bazuen, 150.000tik 1.000.000 pezetara bitartekoa.

Eramailearentzako txeeen libramenduan edo ordainketan identifikazio fiskaleko zenbakia jarri beharra ez betetzeak ondorioaren itxurazko balioaren 100eko 5eko isuna izanen du eta gutxienez 150.000 pezeta.

Kreditu erakundeek ez badituzte aurkezten titularrak bere identifikazio fiskaleko zenbakia aurkeztu ez duen kontuen edo beste operazioen gaineko aitortpenak edo komunikazioak, edo bertan agertu behar duten datuak falta badira edo oker badaude, artikuluko honetako 2. idatz-zatiak aurreikusten duen moduan zehatuko dira.

Tributu gaietako Ikuskaritza edo Dirubilletaren ekintzari traba, aitzakia edo uko egiten bazaio, dokumentu, liburu, fitxategi, faktura, frogagiri eta idazpenak, kontabilitate nagusikoak zein osagarrikoak, programa, sistema operatibo eta kontrolak eta aurkeztu edo eman beharreko datuak dauzkaten beste edozein aurrekari edo informazio ikertzearen gainean, eta bai traba, aitzakia edo uko egiten bazaio aurkeztu aitortpen edo zerrendak konprobatu edo konpultsatzeari, 50.000tik 1.000.000 pezetara bitarteko isuna jarriko zaio.

73. artikulua. Arau-hauste bakunen zehapen osagarriak.

Zilegi izanen da aurreko artikuluen 2. idatz-zatian ezarri diren arau-hausteak, 1.000.000 pezetatik gorako isunaz zehatzen direnak, horrez gain ere zehatzea, egindako arau-haustetik tributu kudeaketarako ardura handia duten ondorioak sortzen badira. Osagarritzko zehapena izanen da bi urtetarainoko epean galtzea kasurako diren onura edo pizgarri fiskalak izateko eskubidea eta subentzio edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera, eta bai, halaber, denbora ber horretan Foru Komunitateko Administrazioarekin eta beste ente publikoekin kontratuak egiteko debekua.

74. artikulua. Kreditu erakundeetako kargudunen zehapenak.

Subjektu arau-hauslea kreditu erakunde bat izaten bada, foru lege honetako 72. artikuluko 7. idatz-zatiaren arabera tokatzen diren zehapenez gain, zilegi izanzen da Kreditu Erakunde Diziplinari eta Kontu-hartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legeko 12 eta 13. artikuluetan aurreikusituen diren zehapenak ezartzea erakunde horietan administrazio edo zuzendaritza kargudunei, lege ber horren arabera arau-hausteen erantzule badira.

75. artikulua. Agintari, funtzionario edo lanbide ofizialetan aritzen diren pertsonen zehapenak.

Subjektu arau-hausleak agintariak, funtzionarioak edo lanbide ofizialean aritzen direnak badira, eta beti ere egindako arau-haustetik tributu kudeaketaren efikaziarako irispide handiko ondorioak heldu badira, foru lege honetako 72. artikuluko 2. idatz-zatiak agintzen duen isunak hilabeteko etendura ere ekarriko du berekin 1.500.000 pezetatik gorako bada, sei hilabeteko etendura 6.000.000tik gorakoa bada, eta urtebetekoa 30.000.000tik gorakoa bada.

76. artikulua. Arau-hauste larrien zehapenak.

1. Tributu arloko arau-hauste larriak diru isun proportzionalen bitartez zehatuko dira, hots, foru lege honen 69. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren zenbatekoen ehuneko 50etik 150era bitarte, hurrengo artikuluan xedatutakoa izan ezik, eta ez da galaraziko foru lege honen 71. artikulua 3. idatz-zatian ezarritako murriztapena.

2. Halaber, pagatzeko borondatezko epea bukatzen denetik tributu-egoera erregulatzen duen likidazioa egiten den egunera arte igarotzen den denboragatik berandutze korrituak eskatzen ahal dira.

3. Tributu gaietako arau-hauste larriari dago-kion kalte ekonomikoaren zenbatekoa sartu beharko ziren zenbatekoen 100eko 50 baino handiagoa baldin bada, 5.000.000 pezetatik gorakoa denean, eta gainera, foru lege honen 71. artikulua 1. idatz-zatiko b) edo c) letretan aurreikusitako inguruabarren bat suertatuz gero, arau-haustea egin dutenei zehapen hauek jartzen ahal zaizkie:

a) Bost urteko epean, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea, bai eta onura edo pizgarri fiskalak eskuratzeko eskubidea ere.

b) Bost urteko epean, Foru Komunitateko Administrazioarekin edo beste entitate publikoekin kontratuak egiteko debekua.

77. artikulua. Beste zehapen batzuk, arau-hauste larriengatik.

1. Arau-hausteak egiten badira etorkizuneko aitortpenen, -norberaren edo hirugarrenen- zerga oinarrian konpentsatu edo kendu beharreko zenbateko, gastu edo kontusail negatiboen zehaztapenaren arloan, zehatuko dira aipatu kontzeptuen zenbatekoaren 100eko 10eko diru isun proportzionalarekin, foru lege honen 71. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako murriztapena galarazi gabe.

Arau-hausteen funtsa baldin bada kuotan konpentsatu beharreko kontusailak edo itxurazko tributu kredituak behar ez bezala konprobatzea, zehatuko dira behar bezala konprobatu ez diren zenbatekoen 100eko 15eko diru isun proportzionalarekin, foru lege honen 71. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako murriztapena galarazi gabe.

Idatz-zati honetan aurreikusitakoari jarraikiz ezarritako zehapenak kenkari izan daitezke ondoren eginiko arau-hausteengatik jartzen ahal diren arau-hausteetatik, aipatu kontzeptuak konpentsatuz edo kenduz, edo horien ondoriozko itzulketak lortuz.

2. Gardentasun fiskaleko araubideko entitateei zehapen hauek jarriko zaizkie:

a) Bazkideen zerga oinarriari egotzi beharreko zenbatekoen eta aitortutakoaren arteko diferentziazaren 100eko 20tik 60ra arteko diru isun proportzionalarekin, foru lege honen 71. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako murriztapena galarazi gabe.

b) Kenkari, hobari eta atxikipenen egozpenen kasuan, bidezkoak ez diren zenbatekoen 100eko 50etik 150era arteko diru isun proportzionalarekin, foru lege honen 71. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako murriztapena galarazi gabe.

3. Tributu egotziak, gauzazko pagamenduei edo dozein motatako zergaren kontura atxikitako nahiz atxiki beharko ziren zenbatekoei dagozkien konturako dirusarrerak ez sartzegatik eginiko arau-hauste larriak zehatuko dira 100eko 75etik 150era arteko diru isun proportzionalarekin, foru lege honen 71. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako murriztapena galarazi gabe.

78. artikulua. Erantzukizunaren amaiera.

Arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna amaituko da zehapena ordaindu edo bete delako, preskripzioagatik edo arau-hauslea hil delako.

IV. TITULUA Tributu arloko kudeaketa

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

79. artikulua. Ebatzi beharra.

1. Tributu arloko Administrazioa behartua dago tributu arloko kudeaketa prozeduretan, ofizioz nahiz parte baten eskariz irekitzen diren horietan, planteatzen diren auzi guztiak espreski ebaztera, eskubideez baliatzeari dagozkien prozeduretakoak izan ezik, horiek jakinaraztea besterik ez baita eginen, eta iraungipena, prozeduraren gaiaren gerora sortutako galera, interesatuaren ukoa edo atzera egitea gertatuz gero.

Hala ere, interesatuak espreski eskatzen duenean inguruabar hauetako bat gertatu dela tributu administrazioak deklaratu dezala, hura eskaera horri buruzko ebazpena ematera behartua egon da.

2. Likidazio egintzak, balioa frogatzekoak, errekursoak eta erreklamazioak ebaztekoak, tributu arloko kudeaketa egintzen exekuzioa eteteari uko egiten diotenak, zehapenak ezartzekoak, eta indarra duen araudian ezartzen diren guztiak, arrazoituak izanen dira, egitateak eta eskubide oinarriak aipatzen direla.

80. artikulua. Prozeduren tramitazioaren egoera. Dokumentuen kopia.

Tributu arloko kudeaketa prozedura batean parte den tributudunak jakiterik izanen du, edozein momentutan, prozeduraren tramitazioa nola dagoen. Era berean, espedientearen ageri diren dokumentuen ebazpena emateko orduan organo eskudunak kontuan izan beharreko horien kopia ere lortzerik izanen du, non ez dituzten hirugarrenen interesak edo beste pertsona batzuen intimitatea ukitzen edo legeak ez duen horrela xedatzen. Konprobazio eta ikerketetan, kopia horiek emanen dira interesatuaren entzunaldi tramitean, foru lege honen 86. artikulua dioen arabera.

81. artikulua. Prozeduren tramitazioaz arduratzen direnen identifikazioa.

Tributudunek eskubidea izanen dute jakiteko tributu arloko Administrazioako zein agintari eta langileren ardurapean ari diren tramitatzen berek parte duten tributu arloko prozedurak.

82. artikulua. Aitorpen eta dokumentuak aurkeztu direla konprobatzen duten ziurtagiriak eta kopiak luzatzea.

Tributudunek eskubidea izanen dute berek aurkeztutako tributu aitortzen ziurtagiriak edo

horietan bildutako datu konkretuak eskuratzeko. Era berean, dokumentuak tributu administrazioan aurkeztu direla konprobatzeko, bai eta aurkeztearen data ere, tributudunek eskubidea dute horien kopia zigilatua eskuratzeko, betiere jatorrizkoekin batera eramaten badituzte elkarrekin erkatzeko eta, dokumentu horiek espedienteari atxiki beharrekoak ez direnean, jatorrizko horiek itzultzea eskatzen ahal dute.

83. artikulua. Dokumentuen aurkezpena.

Tributudunek zilegi dute tributu arloko kudeaketaren prozedurari aplikatu beharreko araudiak eskatzen ez dituen dokumentuen aurkezpenari uko egitea. Eskubidea dute, gainera, berek jada aurkeztu eta Administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak ez eramateko.

Administrazio hark ahalmena izanen du, edonola ere, interesatuari eskatzeko berretsi ditzala berriazko datu propioak edo hirugarrenekoak, lehendik aurkeztuak, dokumentu horietan ageri direnak.

84. artikulua. Tributu administrazioaren obligazioa eskubideak erabiltzeko aukera emateko.

Tributu administrazioak, une oroz, eskubideak erabiltzeko eta betekizunak betetzeko aukera emanen dio tributudunari.

Tributudunen eskuhartzea eskatzen duten tributu administrazioari ekintzak burutu behar dira haiei ahalik eta zergarik arinena ekar lekiekeen moduan, non eta horrek tributu arloko obligazioak betetzea galarazten ez duen.

85. artikulua. Alegazioak.

Tributudunek zilegi izanen dute entzunaldi tramitea egin edo, hala denean, ebazpen proposamena erredaktatu aitzineko tributu arloko kudeaketa prozeduraren edozein momentutan alegazioak egitea eta dokumentuak edo iritzia osatzeko beste datu batzuk eramatea, zeinak kontuan hartuko baitituzte organo eskudunek ebazpen proposamena erredaktatzeko unean.

86. artikulua. Interesatuaren entzunaldi tramitea.

1. Tributu arloko kudeaketa prozedura orotan interesatuaren entzunaldi tramitea izanen da ebazpena eman aurretik.

2. Entzunaldi tramitea saihesten ahal da prozeduran ageri ez eta ebazpenean kontuan hartzen ere ez direnean interesatuak aipatutako egitateak, alegazioak eta frogak baizik.

87. artikulua. Epeak.

1. Tributu arloko kudeaketa prozedurei buruz ebazpena emateko sei hilabeteko epea egonen da, aplikatzekoa den araudiak beste epe bat jartzen ez badu. Prozeduran izaten diren atzerape- nek, Administrazioa bera errudun ez denean, ebazpena emateko epea eten eginen dute.

2. Parte baten eskariz irekitako prozeduretan ebazpena emateko epea organo eskudunak espreski diktatu gabe bukatzen bada, berariazko araudiak ezarritako ondorioak sortuko dira. Horretarako, tributu arloko kudeaketa prozedura orok araututa beharko du izan dagokion isiltasun administrazioaren araubidea.

3. Aurreko aurreikuspenetik bazterturik gelditzen da premiamenduzko prozedura, zeinaren ekintzak luzatzen ahal dira kobrantzako epea bukatzen den arte.

4. Tributu arloko kudeaketaren erregelamen- duan adieraziko dira tramite bakoitzerako epeak.

Administrazioak epeak ez betetzeak ez du berekin ekarriko ekintza administrazioaren iraun- gipena, baina subjektu pasiboek aukera izanen dute kexu bidez erreklamatzeko.

Kexu bidez ere erreklamaterik bada tramita- zio akatsen kontra eta, bereziki, prozedura geldia- raztea edo gaiari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik konpon daitezkeen tramiteak ez- egitea eragin dezaketen akatsen kontra.

Kexa kontuan hartzearen ondorioz, horretara- ko arrazoirik badago, diziplina espedientea irekiko zaio erantzukizuna duen funtzionarioari.

88. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

Tributu administrazioak ofizio bidez itzuliko ditu bidezko diren zenbatekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko berariazko araudian ezarritakoaren ara- bera. Tributu bakoitza erregulatzen duten araeu- tan ezarritako epea eta, nolana ere, sei hilabete- ko epea iragan bada tributu administrazioari egotz lekiokkeen kausagatik itzuli beharrekoa pagatzea agindu gabe, zergadunak eskubidea izanen du foru lege honen 50.2.c) artikuluan araututako berandutza korritua kobratzeko, horretarako erre- kerimendurik egin beharrik gabe. Hortaz, korritu hori sortuko da tributu administrazioak behin-behi- neko likidazioa egiteko duen epea bukatzen dene- tik dagokion itzulketa pagatzea agintzen den egu- nera arte.

89. artikulua. Administrazio organoak.

1. Administrazioak tributu arloan dauzkan egin- kizunak burutuko dira haren bi arloak bereiziz: kudeaketakoak, likidaziorako eta dirubilketarako, eta kudeaketa haren kontra jartzen ahal diren errekurtso nahiz erreklamazioei buruzko ebazpe- nekoak. Eginkizun horiek organo desberdinen ardurapean jarriko dira.

2. Organo desberdinen arloari (likidazio nahiz dirubilketa arlokoa izan edo errekurtso nahiz erre- klamazioak ebaztekoa) dagokion eskumena zehaztuko da bakoitzaren erregelamenduzko arauen barnean.

90. artikulua. Gizarte lankidetzak.

1. Tributuak kudeatzeko gizarte lankidetzak gauzatzeko, tributu administrazioak akordioak sinatuko ditu gizarte, lan, enpresa edo lanbideeta- ko sektore edo interesen ordezkari diren entitate, instituzio eta erakundeekin.

Lankidetzak hori ondoko gaietara bideratzen ahal da:

- a) Informazio eta zabalkunde kanpainak.
- b) Tributu arloko heziketa.
- c) Tributu arloko obligazioak eta betekizunak errazago betetzea.
- d) Aitorpenak egiteko laguntza ematea.
- e) Tributu oinarrien estimazio objektiboaren araubidea.

2. Gizarte lankidetzak, halaber, tributuen erre- forma eraginen duten printzipioen eraketan buru- tzen ahal da, aurreko 1 idatz-zatiak aipatzen dituen entitate, instituzio eta erakundeek parte hartuz.

II. KAPITULUA**Tributudunari informazioa eta laguntza ematea****91. artikulua.** Informazioa eta laguntza.

1. Tributu administrazioak behar duten lagun- tza eta eskubideei buruzko informazioa emanen die tributudunari.

Eginbehar hori bideratzeko ondoko ekintza hauek erabiliko dira: tributuen arloko arauen testu eguneratuak argitaratzea, jakinarazpenak igor- tzea, tributuen arloko kontsultei erantzutea eta balorazioak egiteko aurretiazko erabakiak har- tzea.

2. Foru legeek ezarritako moduan, tributu arlo- ko arau-hausteen erantzukizunetik salbu geldituko dira aurreko idatz-zatiak aipatutako argitalpen,

jakinarazpen eta kontsulten erantzunetan tributu administrazioak adierazitako irizpideetara beren ekintza egokitzen duten tributudunak.

92. artikulua. Argitalpenak.

1. Ekonomi eta Ogasun kontseilariak, ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, tributu arloko lege eta foru dekretuen testu eguneratu osoak argitaratzea erabaki eta aginduko du, baldin eta aurreko ekitaldian indarra zuten testuetan aldaketak sartu badira. Gainera, ekitaldi horretan onetsitako tributu xedapen guztien zerrenda epe eta modu berean argitaratzeko agindua emanen du.

2. Aldiro-aldiri argitara emanen ditu argitara, kasu bakoitzean egoki juzkatzen diren prozeduren bidez, kontsulten erantzunak eta garrantzi eta eragin handieneko ebazpen ekonomikoak eta administratiboak.

3. Tributu administrazioak interesatuen eskura jarri beharko du, haiek hala eskatuta, kontsulta edo ebazpen konkretuen testu osoa, baina horietan ageri diren pertsonak identifikatzeko bide ematen duten datu guztiak kenduz.

93. artikulua. Jakinarazpenak.

Tributu administrazioak tributuen araudia aplikatzeko dauden irizpide administratiboei buruzko informazioa emanen die tributudunei, jendearentzat irekita dauden bulegoetan, aipatu irizpideak biltzen dituzten informatika baseak haien esku jarriko ditu, kontsulta ditzaten eta sektore, jarduera edo errenta iturri jakin batzuen tributazioari buruzko informazioa emateko jakinarazpenak igorriko ditu.

94. artikulua. Tributu gaietako kontsultak.

1. Tributudunek kontsultak egiten ahal dizkiote tributu administrazioari, behar bezala dokumentatuak, kasu bakoitzean egokitzen den tributu kalifikazioaren, araubidearen edo sailkapenaren gainean.

Kontsultak egiteko, tributudunek idazkia bidaliko diote organo eskudunari, hark erantzuna eman dezan, eta idazki horretan, planteatutako auziarekin lotuta, ulertzeko moduan eta behar den tamainan, ondoko hauek azalduko dira:

a) Kasuaren aurrekariak eta inguruabarrak.

b) Aplikatzekoa den tributuen araudiak sortzen dituen zalantzak.

c) Tributu administrazioak iritzi bat eratzeko lagungarri izan dezakeen gainerako datuak eta elementuak.

2. Artikulu honen 4 eta 5. idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan salbu, erantzunak ez du loturazko ondorioz izanen tributu administrazioarentzat. Alabaina, tributudunak berak egindako kontsultaren erantzuna jaso ondotik, haren arabera tributu obligazioak bete izan baditu, ez du erantzukizunik izanen, bidezkoak diren kuotak, zenbatekoak, errekarquak eta berandutze korrituak zertu beharra galarazi gabe, betiere, kontsulta egin bada zergagaita gertatu aitzin edo aitortpena egiteko epearen barnean, eta artikulu honen 1 idatz-zatiko a) eta c) letretan adierazitako inguruabar, aurrekari eta gainerako datuetan aldaketarik izan ez bada.

3. Era berean, behar bezala dokumentatutako kontsultak egiteko gai dira ondoko hauek: lanbide elkargoak, ganbara ofizialak, erakunde patronalak, sindikatuak, kontsumitzaileen elkarteak, enpresarien elkarteak eta lanbide erakundeak, bai eta aipatutako erakunde edo entitate horiek biltzen dituzten federazioak, orokorrean beren kide edo bazkideak ukitzen dituzten aferak direnean.

Ez dute erantzukizunik izanen, aurreko idatz-zatiaren zentzuan, aipatu kontsulten erantzunari lotuz beren tributu obligazioak bete dituzten tributudunek.

4. Idatzizko kontsulten erantzuna loteslea izanen da tributu administrazioarentzat kasu hauek gertatzen direnean:

a) Enpresen aktiboetako inbertsioak, kontsulta egiten bada inbertsioa gauzatu aurretik.

b) Inbertsiorako pizgarri fiskalak, denbora baterako edo koiuntura baten ondorioz ezarritakoak.

c) Komunitate barneko eragiketak, Europako Batasuneko estatu kideetako enpresek burututakoak.

d) Tributuen legeek edo komunitateko errege-lamenduek horrela aurreikusten dutenean.

e) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko IX. kapitulua enpresa berrantolatzeke eragiketetan interpretatu eta aplikatzea.

f) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 66. artikuluan aurreikusitako pizgarrien berariazko proiektu eta kasuetan interpretatu eta aplikatzea.

LETRA BERRIA) Atzerriko baloreen edukitzarako entitateei dagokienez Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen ezarritako araubidea interpretatu eta aplikatzea.

Erregelamenduz zehaztuko dira aurreko letretan aurreikusitako kasuen norainokoak eta kontsulta horiek tramitatzeke eta erantzuteko prozedura.

5. Loteslea izanen da, halaber, erregelamenduz zehazten den eran, idatzizko kontsulten erantzuna, ondokoak egile direnean:

a) Enpresak edo langileen ordezkariak, Administrazio eskudunak baimendutako enplegua erregulatzeko espedienteen ondoriozko tributu araubideari eta enpresako langile guztiak ukitzen dituzten gizarte aurreikuspeneko sistemen ezarpen edo aldaketei dagokienez.

b) Kreditu eta aseguru entitateak, atxikipen kontratuen bitartez denei eskaintzen zaizkien bizi aseguruari eta aktibo finantzarioari dagokienez, kontsulta egin baldin bada haiek zabaldu eta hedatu aitzin.

6. Aurreko 4 eta 5. idatz-zatietan jaso diren kontsulta lotesleek kasuan, salbu eta legeak aldatzen badira edo kasuari aplikatzeko den jurisprudentzia baldin badago, tributu administrazioa behartua dago erantzunean adierazitako irizpideak kontsulta egileari aplikatzera, baldin eta kontsulta egin bada zergaia sortu baino lehen edo aitorten egilearentzako zegoen epean, eta artikuluhonon 1. idatz-zatiko a) eta c) letretan azaldutako inguruabar, aurrekari eta gainerako datuak aldatu ez badira.

III. KAPITULUA

Tributu kudeaketaren prozedura

1. atala

Hasiera eta tramiteak

95. artikulua. Hasteko erak.

Tributuen kudeaketari hasiera eman:

a) Aitorpena egitean, aitorten-likidazioa edo autolikidazioa, edo tributudunaren ekimenez, foru lege honen 27. artikulua dioenari jarraikiz.

b) Administrazio organoen konprobazio eta ikerketaren ondorioz.

96. artikulua. Tributuen aitorpena.

1. Tributu aitorpena izanen da zergagai baten inguruabarrak edo osagaiak gertatu direla tributu administrazioari adierazi edo aitortzen dion edozein dokumentu.

2. Aitorten bat tributu bulego batean aurkezteak ez du berez zergaren jatorria onartzen edo ontzat jotzen dela adierazten.

3. Tributu aitorpena dela ulertuko da zergaia ageri edo osatzen duten dokumentuak Administrazioari aurkeztea.

97. artikulua. Salaketa publikoa.

1. Salaketa publikoak ez du zerikusirik tributu administrazioarekin lankidetzan aritu beharrekin, foru lege honen 103 eta 104. artikuluekin bat. Salaketa publikoa egin dezakete tributu arloan jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek, haiek ezagutzen dituzten egitate edo egoeren gainean, baldin eta tributuen kudeaketan eragina izan dezaketen tributu hauste edo bestelako hausteak izan badaitezke.

2. Salaketa bat jasotzen denean, organo eskudunei igorriko zaie bidezko ekintzak egin ditzan.

3. Arrazoi aski gabeko salaketak besterik gabe artxibatuko dira.

4. Salaketaren ondorioz hasitako ekintza administrazioan ez da interesatutzat hartuko eta ez du zilegi izanen salaketaren emaitzekin loturiko errekursoak edo erreklamazioak jartzea.

98. artikulua. Tributu administrazioak aitortzen eskatzeko duen eskubidea.

Tributu administrazioak eskatzen ahal ditu aitortpenak, aitorten-likidazioak, horien zabaltzea eta horietan ageri diren aurrekariaren justifikazioa, bai eta hautemandako akatsak zuzentzea ere, tributua likidatzeko eta konprobatzeko beharrezkoa denean.

99. artikulua. Jakinarazpenak.

1. Tributuen kudeaketa, likidazio, konprobazio, ikerketa eta dirubilketa prozeduretan, jakinarazpenak egiteko edozein bide erabiliko da, betiere jakinarazpenak jasoko direla bermatuz, bai eta jakinarazpenaren data, hartzailea eta edukia ere.

Egindako jakinarazpenaren konprobazioa espedienteari erantsiko zaio.

2. Jakinarazpena igorriko da interesatuak edo haren ordezkariak propio adierazitako helbidera edo tokira. Hori posible ez bada, horretarako egoia den beste edozein tokitara, eta edozein bide erabiliz, aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

Jakinarazpena interesatuaren edo haren ordezkariaren helbidera igorri eta momentu horretan bertan ez bada, haren ordeztuaren suertatzen den edozeinek jaso dezake, bere nortasuna agerraraziz.

3. Interesatuak edo haren ordezkariak jakinarazpena errefusatzen dutenean, jakinarazpena

egiteko ahaleginaren gorabeherak agerraraziko dira espedientean, eta legezko ondorio guztietarako egindakotzat hartuko da.

4. Bi aldiz saiatuta ere tributu administrazioari lepora ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jakinarazpena ezin bazaio egin interesatuari edo haren ordezkariari, gertaera hori espedientean agerraraziko da, jakinarazpena egiteko ahaleginen gorabeherak azalduz. Horrelakoetan, jakinarazpena agerraldian egin dakion, interesatuari edo haren ordezkariari hitzordua jarriko zaio iragarkien bidez. Interesatu bakoitzarentzako iragarki bana argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta helbide ezaguneko Udaleko iragarki oholean ere argitaratzen ahalko da.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, egiteko dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da, honakoak azalduz: tributuduna edo haren ordezkaria, arrazoitzen duen prozedura, tramitazioaz arduratzen den organoa, eta horien hartzailak jakinarazpena jasotzeko non eta zein epetan agertu behar duen. Nolanahi ere, agerraldia hamar eguneko epean egingen da, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori agerraldia egin gabe bukatzen bada, jakinarazpena egindakotzat joko da legezko ondorio guztietarako agertzeko adierazitako epea bukatu eta hurrengo egunetik aitzina.

100. artikulua. Akats materialen edo egitatekoen zuzenketa.

Kudeaketa prozeduran, foru lege honen 143. artikuluan akats materialen, aritmetikoen edo egitatekoen gainean ageri diren arauak aplikatuko dira.

2. atala **Konprobazioa eta ikerketa**

101. artikulua. Ahalmenak.

1. Tributu administrazioak zergagaia osatzen edo baldintzatzen duten egitateak, egintzak, egoerak, jarduerak, ustiaketak eta gainerako ingurubarrak konprobatu eta ikertuko ditu.

2. Konprobazioa iritsi daiteke tributu aitortpenetan agertutako egintza, elementu eta balorazio guztietara, eta zerga oinarrien estimazioa bil dezake, foru lege honen 44. artikulua aipatzen dituen baliabideak erabiliz.

3. Ikerketak ukituko du tributudunak aitortu ez edo partzialki aitortutako zergagaia. Era berean, tributudunak berak likidatu beharreko zergagaiak ere ukituko ditu.

102. artikulua. Baliabideak.

Tributuen konprobazioa eta ikerketa burutzeko aztertuko dira tributudunaren dokumentuak, liburuak, fitxategiak, fakturak, frogagiriak eta idazpenak, kontabilitate nagusikoak nahiz laguntzailekoak, eta orobat ikuskatuko dira ondasunak, elementuak, ustiapenak eta tributu administrazioari eman beharreko beste aurrekari edo argibideak ere, edo tributua zehazteko beharrezkoak direnak.

103. artikulua. Kolaboratu beharra.

1. Pertsona fisiko edo juridiko oro, publiko nahiz pribatu, behartua dago tributu administrazioari tributu arloan eragina duten era guztietako datu, txosten edo aurrekariak ematera, beste pertsonetik harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozkoak.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoarekin bat, hauek bereziki:

a) Atxikitzaileak eta konturako dirusarrera egin behar dutenak behartuta daude, lan etekinaren, kapitalaren, ondare gehikuntzaren eta enpresa- edo lanbide-jardueren arloko etekinengatik beste pertsonen pagatutako zenbatekoen zerrendak aurkeztera.

b) Etekin horiek notatu eta tributu administrazioari adieraztera behartuta daude sozietateak, elkarteak, lanbide elkargoak eta beste entitate batzuk, zeinen eginkizunen artean baitaude lansari profesionalak edo jabetza intelektualeko edo industrialeko edo egileen lansariak beren bazkide, elkartekide edo elkargoko kideen kontura kobrantzak egitea.

Obligazio bera izanen dute kapitalen merkantuan kaptazio, kokatze, lagapen edo bitartekotza jarduerengatik lansari profesionalen edo komisioren kobrantzan kudeaketa edo eskuhartzeak legez, estatutuaren arabera edo ohikotasunez burutzen dituzten pertsonen edo entitateen, banku entitateak, kreditu-entitateak nahiz bitartekotza finantzario orokorrekoak barne.

c) Tributu administrazioari, exekuzioaldian, zordunen dirua eskudirutan, kontuetan, baloreetan edo beste ondasunetan gordailatzen duten pertsonak edo entitateak behartuta daude derrigorezko dirubilketako organoei informazioa ematera eta haiek beren legezko eginkizunetan eskatzen dietena betetzera.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen obligazioak bete beharko dira, izaera orokorrean edo tributu administrazioko organo eskudunen banan-

banan eginiko eskaeraz, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta epeetan.

3. Artikulu honetan ezarritako obligazioak ez betetzea ezin da banka-sekretuan babestu.

Kontu korranteak, aurrezki deposituak eta epe-kakoak, mailegu eta kreditu kontuak eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboak -kontu iragankorretan islatzen edo entitatearen, bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta banku edo kredituen trafikoan aritzen direnen kargurako txeketan edo beste motatako pagamendu aginduetan gauzatzen direnak barne direla- xedetzat dituzten banan-banakako errekerimenduak eginen dira Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoko zuzendari kudeatzaileak baimena eman ondotik. Banan-banakako errekerimenduetan txekearen edo pagamendu aginduaren identifikazio-datuak zehaztuko dira, edo bestela ikergai diren eragiketak, ukitutako tributudunak eta zein den hartzen duen denbora.

Aurreko lerrokadan ezarritako prozedurarekin bat, tributu egoera erregulatzeko izandako konprobazio edo ikuskaketen barnean eginiko ikerketak uki dezake mugimenduen jatorria eta helmuga edo txekeen nahiz pagamenduko beste agindue-na, baina kasu horietan ezin da pertsonen identifikazioa edo jatorri eta helmuga horietan aurkitzen diren kontuak baino haratago joan.

4. Funtzionario publikoak, profesional ofizialak barne, tributu administrazioarekin lankidetzan beharturik daude, tributu arloan eragina duen mota guztietako informazioa ematera, salbu eta aplikatzekoa denean:

a) Korrespondentziaren edukiaren sekretua.

b) Administrazioari helburu estatistikorako, eta horretarako bakarrik, emandako datuen sekretua.

Notarioen protokoloen sekretuak Notariotzari buruzko 1962ko maiatzaren 28ko Legearen 34 eta 35. artikulua aipatzen dituen tresna publikoak biltzen ditu, ezkontideen sozietatearen araubide ekonomikoari buruzkoak salbu.

5. Gainerako profesionalak tributu arloan garrantzizko informazioa tributu administrazioari emateko duten obligazioa ez da iritsiko beren jardura dela-eta ezagutzen dituzten ondarez beste-ko datu pribatuetara, baldin eta haiak jakitera emateak arriskuan jartzen badu pertsonen ohorea edo intimitatea edo haien familiarrena. Ez da iritsiko, halaber, aholkularitza edo defentsako zerbitzu profesionalak ematearen ondorioz bezeroen datu konfidentzialetara.

Profesionalek ezin izanen dute sekretu profesionala aipatu beren tributu egoera konprobatzeari oztopo egiteko asmoz.

Ohorea, Intimitate Pertsonala eta Familiarra eta Norberaren Irudia izateko Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 8. artikulua 1. idatz-zatiaren ondorioetarako, agintari eskuduntzat hartuko da Ekonomi eta Ogasun kontseilaria.

104. artikulua. Agintariak eta instituzioek datuak emateko duten obligazioa.

1. Agintariak, edozein motatakoak direla ere, Estatuko eta lurraldetako beste entitate publikoetako bulego zibil edo militarretako buru edo arduradunak, erakunde autonomoak eta sozietate estatalak; ganbara eta korporazioak, lanbide elkargo eta elkarteak; Gizarte Aurreikuspeneko mutualitateak, gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren kudeatzaileak barne, eta, oro har, funtzio publikoetan dihardutenak, denak behartuta daude tributu administrazioari ematera hark izaera orokorreko xedapenen edo errekerimendu konkretuen bidez eskatzen dituen tributu arloan garrantzia duten datu eta aurrekari guztiak, eta hari eta haren agenteei laguntza eta babesa ematera beren eginkizunetan.

Parte hartuko dute, gainera, tributuen kudeaketan eta ordainarazpenean, zeren bidez eta ohartarazpen, jasanarazte eta atxikipen dokumental nahiz diruzkoen bidez, indarra duten lege edo arauetan ezarrita dagoen bezala.

2. Obligazio berak izanen dituzte partidu politikoek, sindikatuak eta enpresarien elkarteak.

3. Epaitegi eta auzitegiek tributu administrazioari eman beharko dizkiote, ofizio bidez nahiz hark eskatuta, beren ardurapean dituzten ekintza judizialean ezagutzen dituzten tributuetan eragina duten datu guztiak, eginbide sumarialen sekretua gordez, betiere.

4. Foru lege honen 103. artikuluan, artikulua honen aurreko idatz-zatian edo lege mailako beste edozein arautan xedatutakoari jarraikiz, tributu administrazioari datu pertsonalak emateko ez da beharrezkoa izanen ukituaren baimena. Eredu horretan ere ez da aplikatuko datu pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluko 1. idatz-zatian administrazio publikoei buruz ezarritakoa.

105. artikulua. Tributu informazioaren izaera eta xedeak.

1. Tributu administrazioak bere eginkizunetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpean gordetzekoak dira eta ezin izanen dira erabili tributuak edo baliabideak, zeinen kudeaketa agintzen zaion, benetan aplikatzeko ez bada, eta ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo jakitera eman, lagapenak ondokoak xedetzat dituenen salbu:

a) Organo jurisdikzionalek edo Ministerio Publikoak delitu publikoak aztertu edo zehatzea.

b) Lankidetzak, beste tributu administrazioekin, zerga obligazioak beren eskumenen eremuan betetzeko.

c) Lankidetzak, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzarekin eta Gizarte Segurantzako Entitate Kudeatzaileekin eta Zerbitzu Komuneekin, iruzurraren kontrako borrokan, Gizarte Segurantzako sistemako kotizazioan eta kuoten bilketan, eta orobat, sistema beraren kargurako prestazioak lortzean eta haietaz baliatzean.

d) Lankidetzak, iruzurraren kontrako borrokan beste edozein administrazio publikorekin, fondo publikoen edo Europako Batasunaren karguko laguntzak edo dirulaguntzak lortu edo eskuratzeko.

e) Lankidetzak, ikerketako batzorde parlamentarioekin, lege ezarritako esparruan.

f) Adin txikikoen eta ezinduen eskubideen eta interesen babesa, Organo jurisdikzionalek edo Ministerio Publikoak ematen dutena.

g) Lankidetzak, Kontuen Ganbarekin, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren fiskalizazio eginkizunetan.

h) Lankidetzak, epaile eta auzitegiekin, ebazpen judizial irmoak betearazteko. Informazioa lortzeko eskaera judizialari ebazpen espresua eman behar zaio. Delako ebazpenean, gaiak ukitutako interes publiko eta pribatuak neurtu ondotik eta zordunak ondasunik eta eskubiderik ba ote duen jakiteko bide edo iturriak agortu eta gero, arrazoitu behar da tributu administrazioari datuak eskatzeko premia.

2. Datu, txosten edo aurrekari horien berri duten agintari edo funtzionario guztiak beharturik daude horietaz erabateko isiltasuna gordetzera, aipatu kasuetan izan ezik. Izan daitezkeen erantzukizun penal edo zibilak gora-behera, isilpean gorde beharra haustea hutsegite diziplinario oso larritzat joko da beti.

Delitu publiko bat egin dela ikusten bada, tributu administrazioak erruduntasun-testigantza ondorioztatuko du edo delitu kontsideratzen diren egitateen zerrenda esplikatua igorriko dio Ministerio Fiskalari, berak, Zerbitzu Juridiko eskudunaren bitartez, kereila bidez, zuzenean behar den prozedura hastea galarazi gabe.

3. Aurreko idatz-zatietan aurreikusiriko esparruan, tributudunek artxibo administratiboetan diren erregistro eta dokumentuak, espediente baten parte direnak, eskura izanen dituzte, baldin eta espediente horiek eskaera egiten den egunean bukatutako eta eskatzaileak esku hartutako prozeduretakoak badira.

3. atala Froga

106. artikulua. Frogaren karga.

1. Kudeaketaren prozeduran ezezik baita erreklamazioen ebazpenean ere, bere eskubideaz baliatu nahi denak, hori normalean osatzen duten egitateak frogatu beharko ditu.

2. Obligazio hori bete dela ulertuko da baldin eta tributu administrazioak dituen frogaren elementuak era konkretuan zehazten badira.

107. artikulua. Frogen balorazioa eta baliabideak.

Tributu prozeduretan aplikatuko dira Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Bilduman, Kode Zibilean eta Prozedura Zibileko Legean zehazten diren frogen baloraziori eta baliabideei buruzko arauak, ondoko artikuluetan ezarritakoak izan ezik.

108. artikulua. Aitorpenen egiazkotasun presuntzioa.

Foru Lege honen 96. artikulua aipatzen dituen tributu aitortpenak egiazkoak direla kontsideratuko da, eta tributudunak horiek zuzendu ahal izateko frogatu beharko du haiek betetzerakoan egitateko akatsa egin zela.

109. artikulua. Aitorpena.

1. Tributudunen aitortpena egitatezko kasuen gainekoa izanen da eta ez besterik.

2. Aitortpenak ez du balioko, dagozkion legezko arauak aplikatzearen emaitzari buruzkoa denean.

110. artikulua. Presuntzioak.

1. Tributuen arloko legeek ezarritako presuntzioak desegin daitezke kontrako frogaren bitartez, espreski debekatuak dauden kasuetan izan ezik.

2. Foru legeak ezarri ez dituen presuntzioak frogatzat onartuak izateko, ezinbestekoa da frogatutako egitatearen eta ondorioztatu nahi denaren artean lotura zehatza eta zuzenekoa izatea, giza irizpidearen arauen arabera.

111. artikulua. Erregistro Publikoen frogatze ahalmena.

Tributu administrazioak eskubidea du edozein ondasun, eskubide, enpresa, zerbitzu, jarduera, ustiapen edo eginkizunen titulartzat hartzea Zerga Erregistroan edo izaera publikoko besteetan horrela ageri dena, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

IV. KAPITULUA Tributuaren arloko likidazioak

112. artikulua. Motak.

1. Tributu likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

2. Behin betikoak izanen dira:

a) Administrazioak zergagaia eta haren balorazioa konprobatu ondoren, behin-behineko likidazioa izan bada nahiz ez bada.

b) Tributu bakoitzari buruzko foru Legean adierazitako epean konprobatu ez direnak, preskripzioa inola ere kaltetu gabe.

3. Tributu baten likidazioan, oinarria zehazten bada beste batzuentzat ezarritakoaren arabera, hura ez da behin betikoa izanen harik eta azken horiek irmo bihurtu arte.

4. Gainerakoetan behin-behinekoak izanen dira, direla konturakoak, direla osagarriak, kausiozkoak, partzialak edo osoak.

113. artikulua. Ofiziozko behin-behineko likidazioak. Konprobazio laburtua.

1. Tributu administrazioa ez dago behartua likidazioak tributudunen aitortpenetan kontsignatutako datuei egokitzera.

2. Kudeaketa organoek behin-behineko likidazioak diktatzen ahal dituzte ofizioz, tributu aitortpenetan kontsignaturiko datuen eta aitortpenarekin aurkeztutako edo propio eskatutako frogagirien arabera.

Era berean, behin-behineko likidazioak diktatzen ahal dituzte ofizioz, bere esku dituen frogaelementuek agerrarazten dutenean zergagaia gauzatu dela, aitortu gabeko elementuak badaudela edo tributu zorraren zenbatekoa determinatzen duten elementuak, aitortutakoez bestekoak, badaudela.

Era berean, behin-behineko likidazioak diktatu ko dira, noiz eta tributu itzulketak burutzen direnean, tributu administrazioak itzultitako diru kopurua tributudunak galdatutakoarekin bat ez datorrenean, betiere lehenbiziko erroaldean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira edo idatz-zati honetako bigarren erroaldean aipatzen diren frogaelementuak eskura badaude.

3. Likidazio horiek egiteko, kudeaketa organoek behar diren konprobazio laburtu guztiak egiten ahal dituzte, baina inola ere ezin izanen dira hedatu enpresa- edo lanbide-jardueren kontabilitate liburuak aztertzeraz.

Dena den, tributu itzulketak egiteaz gero, tributudunak aurkeztu beharko ditu, horrela eskatzen bazaio, tributu arauetan ezarritako erregistro eta dokumentuak, tributu administrazioak bidezkoak diren konprobazioak egin ahal ditzan.

4. Likidazioa diktatu aitzin, espedientea interesatuei erakutsiko zaie edo, hala behar baldin bada, haien ordezkariari, 10 eguneko epean, gehienez ere, alegazioak egin eta egoki iruditzen zaizkien dokumentuak eta frogagiriak aurkez ditzaten.

114. artikulua. Tributu likidazioen jakinarazpena.

1. Tributu likidazioak jakinaraziko zaizkie tributudunei, honakoak agerraraziz:

a) Haien funtsezko elementuak. Likidazioan agerraraziko dira era konkretuan likidazioa arrazoitzen duten egitateak eta elementuak.

b) Erabili daitezkeen inpugnazio baliabideak, halakoak jartzeko epeak eta organoak aipatuz.

c) Tributu zorra pagatzeko tokia, epea eta modua.

2. Behin betiko likidazioak, behin-behinekoak zuzentzen ez badituzte ere, egintza administrati boaren bidez egin beharko dira eta erregelamenduak dioenari jarraikiz jakinaraziko zaio interesatuari.

3. Ordainagiri bidezko aldiak aldiko kobrantzako tributuetan, tokatzen den erregistro, errolda edo matrikulan alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, ondoko likidazioen berri taldeka eman daiteke, horrela dela ohartarazten duten ediktuen bitartez. Aitortpenen emaitzen gaineko tributu oinarria handitzen bada, horren berri eman beharko zaio tributudunari, hura arrazoitzen duten egitate eta elementu gehigarriak modu konkretuan adieraziz, non eta aldaketa egiten ez den foru legeen bidez baimendutako birbalorazioen ondorioz.

4. Erregelamendu bidez xedatzen ahal da zein kasutan ez den aginduz bete beharrekoa jakinarazpen espresua, tributu administrazioak aitorpena, dokumentua edo alta hartzeko partea aurkeztu duenari idatziz ohartarazten badio, betiere.

5. Tributudunak jakinarazpena hartzea errefusatzeko badu edo tributu administrazioarenak ez diren arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezkoa bada, foru lege honen 99. artikuluko 3 eta 4. idatz-zatietan xedatutakoak aginduko du.

115. artikulua. Jakinarazpen akastuna.

1. Jakinarazpen akastunek ondorioak sortuko dituzte tributudunak espreski jakinarazpena jaso duela adierazten, bidezkoa den errekurtsioa jartzen edo tributu zorra pagatzen duen egunetik aitzina.

2. Sei hilabete barru ondorioak sortuko dituzte tributudunei banan-banan egindako jakinarazpenek, betekizunen bat bete gabe utzitakoek, non eta epe horretan protesta formal bat egiten ez den tributu administrazioari akatsa zuzen dezan eskatuz.

V. KAPITULUA
Dirubilketa

116. artikulua. Borondatezko eta exekuziozko aldiak.

1. Tributuen dirubilketa borondatezko aldiaren edo exekuziozko aldiaren burutuko da.

2. Borondatezko aldiko pagamendua foru lege honen 52. artikuluan aurreikusitako moduan eta ondorioekin burutuko da.

3. Exekuziozko aldia hasiko da:

a) Tributuen administrazioak likidatutako zorretarako, dirusarrera egiteko epea, erregelamenduz ezarritakoa, amaitu eta hurrengo egunean.

b) Dirusarrera egin gabe aitorpen-likidazioaren edo autolikidazioaren bidez pagatu beharreko zorretarako, dirusarrera egiteko epea, erregelamenduz ezarritakoa, amaitzen denean edo, epea bukatu bada hura aurkeztean.

4. Dirubilketaren prozedura administratiboan egiten diren jakinarazpenen araubidea foru lege honen 99. artikuluan ezarria da.

117. artikulua. Dirubilketa exekuzio aldiaren.

1. Exekuzio aldiaren hasierak pagatu ez den zorren 100eko 20ko errekarua sortarazten du, bai eta hari dagozkion berandutza korrituena ere.

Errekargua 100eko 10ekoa izanen da pagatu gabeko tributu zorra pagatzen bada artikuluko

honen 3. idatz-zatian ezarritako premiamenduzko probidentzia zordunari jakinarazi aurretik, eta ez dira eskatuko exekuzio aldia hasten denetik sortutako berandutza korrituak.

2. Exekuzio aldia behin hasita, tributu administrazioak likidatutako edo autolikidatutako zorren dirubilketa, foru lege honen 116.3 artikuluan aipatzen dena, egiten du, pagatzera behartuta dagoenaren ondarearen gaineko premiamenduzko prozeduraz.

3. Premiamenduzko prozedurari hasiera emanen zaio zordunari jakinarazitako probidentziaren bidez, zeinetan zehaztuko baita zenbat zor duen eta errekerimendua egiten baitzaio errekarua eta guzti osorik paga dezan.

Zordunak ez badu erregelamenduz ezarritako epean pagatzen, ondasunak bahituko zaizkio, eta horrela ohartaraziko zaio premiamenduzko probidentzian.

4. Aipatutako probidentzia, organo eskudunak luzatua, aski titulu da premiamenduzko prozedura irekitzeko eta epai judizial baten indar exekutibo bera dauka pagatzera behartuta daudenen ondasun eta eskubideen kontra ekiteko.

5. Zordunak ordaindu beharko ditu premiamenduzko prozeduraren kostuak.

118. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Tributu zorra kobratuko dela bermatzeko, tributu administrazioak behin-betikoak kautelazko neurriak hartzen ahal ditu susmorik badu, bestela egitera, kobrantza ez dela egiten edo hagitz zaila izanen dela.

2. Neurriak saihestu nahi den kaltearen arabera finkatuko dira. Kalte konponezina edo konpongaitza sor dezakeen neurriarik ez da inola ere hartuko.

Kautelazko neurriak honelakoak izan daitezke:

a) Tributu itzulketetatik edo Foru Komunitateak egin beharreko beste pagamenduetatik atxikitzea, zorren kobrantza bermatzeko behar den zenbatekoan, hain zuzen.

Tributu itzulketa baten kautelazko atxikipena, osoa edo partziala, jakinarazi beharko zaio interesatuari itzulketa akordioarekin batera.

b) Ondasunen edo eskubideen prebentziozko bahitura.

c) Legez aurreikusitako beste edozein.

Prebentziozko bahitura segurtatuko da dagozkion erregistro publikoan notatuz edo bahitutako ondasun higigarriak gordailatuz.

3. Tributu zorra likidatuta ez baina sortua baldin bada eta hura pagatzeko erregelamenduzko epea iragan baldin bada, eta hirugarrenei atxikitako edo erasandako zenbatekoei badagokie, tributu administrazioak kautelazko neurriak hartzen ahal ditu zor haren kobrantza segurtatzeko.

Horrela hartzen diren kautelazko neurriak hila-beteko epean jasoko dira, non eta Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoko zuzendari kudeatzaileak neurriak luzatzea erabakitzen ez duen, edo behin betiko bilakatzen ez diren premiamenduzko prozeduraren esparruan.

4. Horrela hartzen diren kautelazko neurriak jasoko dira, tributu zorra pagatzen ez bada ere, neurri horiek hartzea justifikatu zuten inguruabarrak desagertzen badira edo, interesatuaren eskariz, askitzat jotzen den beste motatako bermeaz ordezteka erabakitzen bada.

Kautelazko neurriak behin betiko neurri bilaka daitezke premiamenduzko prozeduraren esparruan. Bestenaz, ofizioz jasoko dira, eta ezin luzatuko dira sei hilabeteko epeetik goiti, hartzen direnetik hasita.

5. Erabakitzen ahal da prebentziozko bahitura dirutan edo salgaitan egitea, establezimendurik gabeko irabazizko jardueretan, deklaratu ez direnetan, aritzeagatik eskatzea tokatzen den tributu zorra pagatuko dela segurtatzeko adinako diru kopuruan.

Era berean, tributu administrazioari aurretiaz aitortu ez zaizkion ikuskizun publikoetako dirusarreretan ere esku hartzen ahal da.

119. artikulua. Premiamenduzko prozeduraren izaera.

1. Premiamenduzko prozedura erabat administratiboa izanen da. Tributu administrazioa da eskudun bakarra horretaz arduratzeko eta gora-behera guztiak ebazteko.

2. Prozedura hori ez zaie gehituko prozedura judizialei ez eta exekuziozko beste prozedurei ere. Horren hasiera edo jarraipena ez da etengo beste haiek hasi direlako, salbu eta bidezkoa denean, Gatazka Jurisdikzionalerik buruzko maiatzaren 18ko 2/1987 Lege Organikoan edo heldu den idatz-zatian ezarritakoak dioenaren arabera.

3. Legeak, prozeduraren izaera kontuan hartuta, kredituak kobratzeko ezarri duen lehentasun hurrenkera errespetatzea galarazi gabe, tributuen bilketarako premiamenduzko prozedurari exekuziozko beste prozedura batzuk metatzen bazaizkio -singularrak nahiz unibertsalak, judizialak nahiz judizialak ez direnak-, prozedurarekin traba-

tutako ondasunen exekuziorako lehentasuna ondoko erregelen arabera zehaztuko da:

a) Beste prozesu batzuekin edo exekuziozko prozedura singularrekin batera suertatzen bada, premiamenduzko prozedurak izanen du lehentasuna, prozedura horretan zehar burututako bahitura zaharrena denean.

b) Premiamenduzko prozedura exekuziozko prozesu edo prozedura konkurtsalekin edo unibertsalekin batera suertatzen bada, premiamenduzkoak lehentasuna izanen du prozedura horretan zehar ondasunen edo eskubideen bahituraren exekuziorako, baldin eta bahitura hura prozesu konkurtsalaren hasierako eguna baino lehen egin bada.

4. Tributu kredituen lehentasunezko izaerak Foru Komunitateari prozesu konkurtsaletan abstenitzeko eskubidea ematen dio. Hala ere, prozesu konkurtsaletan zehar itundutako akordioak edo hitzarmenak sinatzen ahal ditu, eta horretarako tributu administrazioko organo eskudunaren baime-na besterik ez da behar.

120. artikulua. Bermearen exekuzioa.

Zorra bermatzen baldin bada abal, bahitura, hipoteka edo beste edozein bermeren bitartez, lehenbizi exekutatu egingen da. Exekuzio hori diru-bilketako organo eskudunek burutuko dute, premiamenduzko prozedura administratiboaren bitartez.

121. artikulua. Lehentasun-ordena.

1. Bahitura zordunaren ondasunen gainean burutuko da, tributu zorra, Foru Komunitateko Diruzaintzan dirusarrera egiten den egunetik sortu diren edo sortuko diren korrituak eta prozeduraren kostuak pagatzeko adinako diru kopuruan, proportzionaltasun printzipioa errespetatuz, betiere.

2. Bahituraren ordena honi jarraituko zaio:

a) Eskudirua edo kreditu entitateetan irekitako kontuetan.

b) Unean berean edo epe laburrean gauzatu daitezkeen kredituak, efektuak, baloreak eta esku-bideak.

c) Soldatak, lansariak eta pentsioak.

d) Ondasun higiezinak.

e) Merkataritza edo industria arloko establezimenduak.

f) Metal preziatuak, harri finak, joiak, urrea eta antzinako gauzak.

g) Era guztietako etekinak eta errentak.

h) Ondasun higigarriak eta aziendak.

i) Kredituak, eskubideak eta baloreak, epe luzera gauzatu daitezkeenak.

3. Aurreko ordenari jarraikiz, tributu administrazioak une horretantxe ezagutzen dituen ondasunak edo eskubideak bahituko dira, hurrenez hurren, harik eta zorra pagatuta dagoela juzkatzen den arte; azkeneko tokian utziko dira tratatu ahal izateko zordunaren etxean sartzea eskatzen dutenak.

Zordunaren eskariz bahituraren ordena alda daiteke, berak seinalatutako ondasunek bermatzen badute lehenatasunez tratatu beharrekoen eraginkortasun eta arintasun berberarekin kobratuko dela zorra eta horrela eginez ezein hirugarreni kalterik egiten ez bazaio.

4. Ez dira bahituko Legeek izaera orokorreztatik bahiezintzat jotzen dituzten ondasunak edo eskubideak, ez eta, horiek bahituz, bahitzearen kostua ordaintzeko adina ez dela aterako juzkatzen denean.

5. Tributu zorra solidarioki pagatzera behartuta daude, bahitu izandako ondasunen edo eskubideen balioaren zenbatekora iritsi arte, ondoko pertsonak:

a) Pagatzera behartutakoaren ondasunak edo eskubideak tratatzea eragozteagatik, horiek ezkatuta dituztenak edo horretarako laguntzaile direnak.

b) Beren erruz edo alferkeriaz bahitzeko aginduak betetzen ez dituztenak.

c) Bahituraren berri izanik ere, ondasunak desagertzen laguntzen edo amore ematen dutenak.

122. artikulua. Entregatu edo gordailutatutako ondasunen bahitura.

1. Tributu administrazioak kreditu entitate bateko bulego bati edo beste pertsona edo entitate gordailuzain bati entregatu edo haien esku utzitako fondo, balore eta bestelako ondasunen berri duenean, haien bahitura xedatzen ahal du bidezkoa den zenbatekoan, aipatu bulegoan dauden identifikazio datuak eta kontu, gordailu edo eragiketarako zehaztu beharrik gabe. Baloreen kasuan, bahitura egiten den momentuan pertsona edo entitate gordailuzainek emandako informazioetik ondorioztatzen baldin bada han daudenak ez direla homogeenak edo haien balioa aurreko artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako zenbatekoa baino handiagoa dela, dirubilketa organoak zehaztuko du zein diren tratatu beharrekoak.

2. Fondoak edo baloreak titular baten baino gehiagoren izeneko kontuetan gordailatuak daudenean, zordunari dagokion parte baizik ez da bahituko. Ondorio horietarako, bereizgabeko titularitateko kontuak direnean, gordailuzainen aurrean solidaritate aktibodunak edo komuneko titularitate bateratukoak, saldoa zati berdinetan banatuztat hartuko da, non ez den titularitate material desberdina frogatzen.

3. Bahiturak ukituriko kontuaren bidez kobratzen badira soldatak, lansariak edo pentsioak, errespetatu beharko dira Prozedura Zibileko Legean ezarritako mugak, kasuan kasuko soldata, lansari edo pentsioari dagokion zenbatekoari dagokionez. Alde horretatik kontuan hartuko da kontzeptu horregatik aipatu kontuan sartutako zenbatekoa.

123. artikulua. Ondasunen eta eskubideen konprobazioa eta ikerketa.

1. Dirubilketa organoek konprobatu eta iker-tzen ahal dute tributu zor bat ordaintzera behartuta daudenean ondasunik edo eskubiderik ba ote duten eta haien egoera, haien kobrantza segurtatu edo burutzeko, eta foru lege honen 102.etik 104.era arteko artikuluek tributu administrazioari onartzen dizkieten ahalmen guztiak edukiko dituzten, han ezarritako baldintzak eta guzti. Ondorio horietarako, halaber, Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoko zuzendari kudeatzaileak baimena ematen ahal du egindako ikerketek mugimenduen edo txeekeen edo bestelako pagamendu aginduen jatorria eta destinoa uki ditzaten, baina kasu horietan ezin izanen da pertsonen eta jatorri eta destino horiek biltzen dituzten kontuen identifikazioa baino haratago joan.

2. Zor bat ordaintzera behartuta dagoen orok tributu administrazioak eskatzen dionean, adierazi beharko ditu bere ondareko ondasun eta eskubideak, tributu zorra pagatzeko adinakoak, foru lege honen 121. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako ordenan.

3. Bilketa organoek aurrera eramanez dituzte premiamendu prozeduran zehar diktatzen diren egintzak gauzatzeko behar diren ekintza materialak.

Tributudunak ez baditu betetzen bilketa organoek propio diktatutako ebazpenak edo errekerimenduak, organo horiek zilegi izanen dute horien exekuzio subsidiarioa gauzatzeko, organo eskudunak hartutako erabakiaren bitartez.

4. Ahalmen horiek erabiltzerakoan edo premiamendu prozeduran zehar beharrezkoa bada ukitutakoaren etxean sartzea edo arakatzea, tributu

administrazioak ukitutakoaren baimena eskuratu beharko du edo, hori ezean, epailearen baimena.

5. Premiamendu prozeduran zehar, dirubilketa organoetan lan egiten duten funtzionarioek dirubilketa eginkizunetan luzatutako eginbideak dokumentu publikoak dira eta beren formalizazioa arrazoitzen duten egitateen frogagarri, non ez den kontrakoa konprobatzen.

6. Dirubilketa organoetan lan egiten duten funtzionarioak agintaritzako agenteak dira dagozkien bilketa eginkizunetan aritzen direnean. Agintari publikoek behar den babesa eta laguntza emanen die dirubilketa kudeatzeko egintzan.

124. artikulua. Bahitura gauzatzea.

1. Bahitura ekintza bakoitza eginbidean dokumentatuko da, eta ekintza horren xedeko pertsonari jakinaraziko zaio.

Bahitura buruturik, zordunari jakinaraziko zaio eta, kasua bada, ondasunen hirugarren titularrari, edukitzaileari edo gordailuzainari, haiekin ez bada ekintzarik egin, bai eta zordunaren ezkontideari, bahitutako ondasunak irabazizkoak edo konkista bidezkoak direnean, eta horien jabekide edo titularkideei.

2. Bahituriko ondasunak erregistro publiko batean inskribatzekoak izanez gero, tributu administrazioak eskubidea izanen du dagokion erregistroan bahituraren prebentziozko notazioa egiteko, organo eskuduneko funtzionario batek luzatutako manuaekin bat, eta epailearen bahitura manua- ren balioa izanen du. Horrela eginiko prebentziozko notazioak ez du aldatuko foru lege honen 62. artikuluan ezarritako tributu kredituak kobratzeko lehentasun-ordena.

3. Ondasun higigarriak bahitzen direnean, tributu administrazioak zilegi izanen du erregelamenduan adierazten den moduan haiek gordailutzea.

4. Merkataritza nahiz industria arloko establezimenduaren bahitura agintzen denean edo, oro har, enpresa baten osagai diren ondasunen eta eskubideena, pentsatzen baldin bada jardueraren zuzendaritzan segitzeko zordunaren kaudimenari kalte konponezinak ekartzen ahal dizkiola, Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoko zuzendari kudeatzaileak, negozioaren titularrari edo entitateko administrazio organoari entzun ondoren, erabaki dezake funtzionario bat izendatzea, negozioaren kudeaketan esku hartuko duena erregelamenduz ezarritako moduan, eta hark fiskalizatuko ditu akordio administratiboan zehazten diren egintzak, exekutatu aurretik.

125. artikulua. Premiamendu prozeduraren etenaldia.

1. Premiamendu prozedura eten eginen da errekurtsio eta erreklamazio ekonomikoak eta administratiboak arautzen dituzten xedapenetan aurreikusiriko moduan eta baldintzetan.

2. Premiamendu prozedura berehala etengo da, bermea jarri beharrik gabe, interesatuak frogatzen baldin badu ezen, zorra zehazterakoan, akats material, aritmetiko edo egitateko bat suertatu dela bere kaltetan, edo zorra pagatu dela, barkatu, konpentsatu, atzeratu edo eten egin dela.

126. artikulua. Hirugarrengotzak.

1. Hirugarren baten asmoa baldin bada bahitura jasotzea, haren ustez bahitutako ondasunen edo eskubideen jabetza berari dagokiolako, edo hirugarren batek pentsatzen badu Foru Komunitatearen lehentasunezko kreditua berreskuratzeko eskubidea duela, hirugarrengotzako erreklamazioa eginen dio administrazio organo eskudunari.

2. Jabetzako hirugarrengotzako erreklamazioa izanik, premiamendu prozedura eten eginen da, ondasun eztabaidatuei dagokienez, bidezkoak diren segurtatze neurriak hartu ondotik, pagatzera behartuta dagoenaren gainerako ondasun edo eskubideen gainean -bahitzeko modukoak badira-, prozeduraren bidetik jarraitzea galarazi gabe, harik eta zorra pagatu arte. Horrelakoetan, erreklamazioaren xedeko ondasunen gaineko bahitura indargabe geldituko da, baina horrek ez dio erreklamatzailaren titularitateari inolako onarpenik ematen.

3. Hirugarrengotza eskubide hobekoa baldin bada, prozedurak jarraituko du ondasunak gauzatu arte, eta handik ateratakoa gordailatuko da hirugarrengotzaren ondorioetarako.

4. Dirubilketaren araudian zehaztuko da hirugarrengotzako erreklamazioak tramitatu eta ebazteko prozedura.

127. artikulua. Bahitutako ondasunen besterentzea.

1. Tributu administrazioak ezin izanen du premiamendu prozeduran zehar bahitutako ondasunak eta eskubideak besterendu, harik eta exekutatutako tributu zorra irmo bihurtu arte, salbu eta eskudirua denean edo finantza entitateetan sartutakoa, ezinbesteko kasuak suertatzean, ondasun galkorrak direnean, edo balioa galtzeko arrisku hur-hurrekoa duten ondasunak, edo zergadunak espreski haien besterentzea eskatzen duenean.

2. Bahitutako ondasunak enkante, lehiaketa edo zuzeneko adjudikazio bidez besterenduko

dira, erregelamenduz finkatutako kasu eta baldintzetan.

3. Premiamendu prozedura bukatzen ahal da bahitutako ondasunak Foru Komunitateari adjudikatzearekin, erregelamenduz araututako prozeduraren bidez besterendu ezin izan direnean.

Ondasun horiek adjudikatuko dira pagatu ez den zorraren truke, eta ez da izaten ahal besterentzeko prozeduran hasierako prezioztat hartu zen balorazioaren 100eko 75 baino handiagoa.

4. Ondasunak adjudikatu aitzin, bahitutako ondasunak edozein momentutan libra daitezke, nola eta tributu zorra, kostuak eta prozeduran zehar sortutako ondoko korrituak pagatuz.

128. artikulua. Premiamenduari aurka egiteko arrazoiak.

1. Premiamenduaren bidez kotasunari aurka egiteko arrazoi hauek izanen dira zilegi, eta ez besterik:

- a) Zorra pagatzea edo iraungitzea.
- b) Preskripzioa.
- c) Atzeratzea.

d) Likidazioaren jakinarazpenik eza edo hura deuseztatu edo etetea.

2. Premiamendu probidentzia ez jakinaraztea aski arrazoi izanen da premiamendu prozeduran zehar gertatzen diren egintzak inpugnatzeko.

129. artikulua. Dirubilketaren kudeaketaren eskumena.

1. Kontrako agindurik ez badago, Foru Komunitateko Administrazioak edo hari loturiko edo menpeko Zuzenbide publikoaren arloko entitateek kudeatu beharreko tributu zorrak exekuzio aldian biltzeko, premiamendu prozedura erabiliko du Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoak.

2. Administrazioarekin nahiz entitate interesatuarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko baita, Nafarroako Zerga Ogasunak tributu baliabideak, berari ez dagozkionak, biltzeko kudeaketa bere gain hartzen ahal du, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat.

VI. KAPITULUA Tributu Ikuskaritza

130. artikulua. Eginkizunak.

1. Tributu Ikuskaritzak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Zergagaien gaineko ikerketa, Administrazioak atzeman ez dituenak aurkitzeko.

b) Tributu oinarrien behin betiko integrazioa, konprobazioen bidez, estimazio zuzeneko eta objektiboko kasuetan eta zehar bidezko estimazioari dagozkion ikuskaritza ekintzen bitartez.

c) Konprobazio eta ikerketaren ondoriozko tributu likidazioak egitea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

d) Ikuskaritzaren beraren ekimenez edo Administrazioako beste organoek eskatuta, partikularrei edo beste erakundeei buruz egin beharreko galdeketa eta informazio ekintzak burutzea, zuzenean nahiz zeharka tributuen aplikaziora bideratuko dituztenak.

2. Ikuskapen organoetan lan egiten duten funtzionarioak agintaritzako agenteak dira, dagozkien ikuskatze eginkizunetan aritzen direnean. Agintari publikoek ikuskatze eginkizunetarako behar den babesa eta laguntza emanen dute.

131. artikulua. Tributuen arloko ikuskaritzak non esku hartzen ahal duen.

1. Tributu Ikuskaritzak ahalmena izanen du zergapeko jarduera nahiz ustiapenetan aritzen direneko finka, negozioko lokal eta gainerako establezimendu eta tokietan sartzeko, foru lege honen 101. artikuluan aurreikusitako eginkizunak gauzatzeko.

2. Finkaren edo eraikinaren jabeak edo egoileak, edo hura zaintzen duen pertsonak, bertan sartzeara eragozten badie ikuskatzaileei, hauek ezin izanen dute ikuskatu Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoko zuzendari kudeatzailearen baimen idatzia ez badute; pertsona fisikoen edo juridikoen helbidearen kasuan, beharrezkoa izanen da epailearen manamendua.

132. artikulua. Dokumentazioa aztertzea.

1. Zergagaiarekin zerikusia duten tributudunaren liburuak eta dokumentazioa, programa informatikoak eta euskarri magnetikoko artxiboak barne, Tributu ikuskatzaileek aztertuko dituzte haren etxean, lokalean, despatxuan edo bulegoan, hura bertan dela edo haren ordezkioa.

Hala eta guztiz ere, interesatuaren edo haren ordezkariaren adostasunez, aztertzen ahalko dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuko bulegoetan, horrela egitea egoki jotzen bada, jarduera mota ikusita edo aztertu beharreko dokumentazioa gutxi dela kontuan hartuta.

2. Tributuen arloko arauetan ezarritako erregristroen eta dokumentuen kasuan, edo arauak

eskatzen dituzten frogagiriaren kasuan, haiek aztertzeko tributu administrazioko bulegoetara eramatea eskatzen ahal da.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako dokumentazioa gordetzeko, edo tributu zorra zehazteko balio duen beste edozein frogagiri, beharrezkotzat kontsideratzen diren kautelazko neurriak hartzen ahal dira, haiek galdu, desegin edo aldatu ez daitezzen. Neurriok helburuaren heinekoak izanen dira. Inola ere ez da hartuko kalte konponezina edo konpongaitza ekar lezakeen neurririk. Neurriok hauek izan daitezke, kasuen arabera: zergapeko produktuak edo salgaiak prezintatzea, gordailatzea edo inkautatzea, eta orobat, informazioa eduki dezaketen artxiboak, lokalak edo ekipo elektronikoak.

Horrela hartzen diren kautelazko neurriak jaso eginen dira haiek hartzeko arrazoiak desagertzen badira.

133. artikulua. Tributu Ikuskaritzak bere egin-kizuna non betetzen ahal duen.

1. Ikuskapen egintzak honako tokietan egin daitezke berdin:

a) Tributudunak bere helbide fiskala duen tokian edo haren ordezkariaren etxean, despatxuan edo bulegoan, azken hori Nafarroan baldin badago, betiere.

b) Zergapeko jarduerak osoan nahiz partez burutzen diren tokian.

c) Zergagaiaren frogaren bat, partziala bada ere, dagoen lekuan.

d) Foru lege honen 135. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen dituen bulego publikoetan, aztergai diren elementuak toki haietan aztertzerik baldin badago.

2. Tributu Ikuskaritzak kasuz kasu zehaztuko du non eginen dituen ekintzak, eta dagokion jakinarazpenean agerraraziko du.

134. artikulua. Ikuskapen ekintzen dokumentazioa.

Tributu Ikuskaritzaren ekintzak, subjektu pasiboentzat eragin ekonomikorik duten neurrian, eginbide, jakinarazpen eta aurretiazko akta edo behin betikoetan dokumentatuko dira.

135. artikulua. Ikuskapenaren aktak: edukia eta luzatzeko tokia.

1. Ekintzen emaitza dokumentatzen duten Tributu ikuskapeneko aktetan hauek adieraziko dira:

a) Zein pertsonekin luzatzen den, haren izena eta deiturak, eta zeren izenean eta nola ageri den.

b) Zergagaiaren funtsezko elementuak eta tributudunari egotzi beharrekoak.

c) Tributu egoerei buruz Ikuskaritzak bidezko kontsideratzen duen erregularizazioa.

d) Tributudunaren adostasuna edo desadostasuna.

2. Tributu Ikuskaritzak zehazten ahal du ezen, aurreko idatz-zatian aipatutako aktak luza daitezkeela hala tributudunaren bulegoan, lokalean edo negozioan, despatxuan edo etxebizitzan, nola tributu administrazioko bulegoetan edo ekintzak egin direneko udalerriko udaletxeko bulegoetan.

3. Tributu Ikuskaritzak luzatutako aktak eta eginbideak dokumentu publikoak dira eta beren formalizazioa arrazoitzen duten egitateen frogagarri, non ez den kontrakoa konprobatzen.

136. artikulua. Desadostasuneko aktak eta aurrez eraturako frogenak. Baimen askirik gabe sinatutako aktak.

1. Tributudunak ez badu akta sinatzen edo, sinatu arren, bertan kontsignaturiko gorabeherekin ados dagoela ez badu baieztatzen, akta horien tramitazioa erregelamendu bidez ezarritako prozedurari jarraikiz burutuko da.

2. Ez da beharrezkoa izanen tributudunak Tributu Ikuskaritzaren akta sinatzea zergagaiaren aurrez eraturako frogarik baldin badago, baina, horrelakoetan dagozkion ekintza administratiboan hasiera jakinarazi beharko zaio hari, hamabost eguneko epea izanen duelarik aipatutako aurretiazko frogari buruz izan daitezkeen akatsak edo hutsegiteak alega ditzan.

3. Baimen askirik gabeko pertsonen sinatutako aktak artikuluko honen 1. idatz-zatiak dioenaren arabera tramitatuko dira.

137. artikulua. Ikuskapen planak.

Tributu administrazioak urtero Ikuskapen Plana argitzen duten irizpide orokorrak argitaratuko ditu.

138. artikulua. Konprobazio eta ikerketa ekintzen anpliazioa.

1. Tributudun orok, baldin eta Tributu Ikuskaritzak aurrera daraman konprobazio eta ikerketa ekintza baten helburu bada, tributu administraziolari eskatzen ahal dio orokorra izan dadila ekintzak ukitzen dituen tributu eta ekitaldiari dagokienez, baina eskaera horrek ez du abian diren ekintzak etengo.

2. Tributudunak eskaera egiteko hamabost eguneko epea izanen du, ikuskapen ekintza partzialen hasiera jakinarazten denetik hasita.

3. Tributu administrazioak konprobazio orokorra hasi beharko du eskaera egiten denetik sei hilabeteko epean.

139. artikulua. Epea.

1. Tributu Ikuskaritzak burututako konprobazio eta ikerketa ekintzak eta lidikazioari buruzkoak hamabi hilabeteko epean bukatu beharko dira, haien hasiera tributudunari jakinarazten den egunetik aitzina. Alta, epe hori beste hamabi hilabeteko luzatzen ahal da, erregelamenduz ezartzen diren norainoko eta baldintzetan, ekintzetan inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Ekintzak bereziki konplexuak izatea. Inguaruabar hori gertatu dela ulertuko da ikusirik pertsonaren edo entitatearen eragiketen kopurua, jardueren barriadura geografikoa edo talde finkatu gisa tributatzea, edo nazioarteko gardentasun fiskaleko araubidean.

b) Jardueretan zehar aurkitzea tributudunak tributu administrazioari ezkutatu egin diola berak burututako jarduera enpresarial nahiz profesionalen bat.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako epearen ondorioetarako, ez dira kontatutako tributudunari egozten ahal zaizkion atzerapenak ez eta erregelamendu bidez zehazten diren etenaldi justifikatuak ere.

3. Ikuskapen jarduerak, tributudunari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, sei hilabetez etenez gero, edo aurreko 1. idatz-zatiak aipatzen duen epea ez betetzera, ekintza horien ondorioz, ez da ulertuko preskripzioa eten egin dela.

4. Aurreko idatz-zatien ondorioetarako, ulertuko da konprobazio eta ikerketa ekintzak eta lidikazioari buruzkoak bukatzen direla ekintza horien ondoriozko egintza administratiboa diktatzen den egunean.

VII. KAPITULUA

Egintzaren berrikuspena bide administratiboan

1. atala

Berrikuspeneko prozedura bereziak

140. artikulua. Egintza baliogabeen berrikuspena.

1. Ekonomi eta Ogasun kontseilariari dagokio edozein momentutan, Nafarroako Kontseiluari

entzun ondotik, honako egintza hauek erabat baliogabeak direla deklaratzeara:

a) Argi eta garbi eskumenik ez duten organoek diktatutakoak.

b) Delitu egintzak.

c) Legez ezarritako prozedura erabat eta guztiz saihestuz diktatutakoak, edo organo kolegiatuen borondatea eratzeko funtsezko erregelak biltzen dituzten arauak baztertzuz.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den baliogabetasun prozedura honela hasi daiteke:

a) Egintza diktatu zuen organoaren edo haren hierarkiako nagusiaren erabakiz.

b) Interesatuak eskatuta.

3. Prozeduran eskubideak aitortu zaizkien pertsonen entzunaldi tramitea izanen da.

141. artikulua. Kudeaketa bidean diren egintzen berrikuspena.

Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren ebazpenaren bidez, ekintza administratiboa indargabetzen ez deino, tributu kudeaketa bidean diktatutako egintza hauek berrikusiko dira ondoko kasuetan:

a) Interesatuaren entzunaldi tramiteko espediente aldez aurretik eginik, argi eta garbi legea hausten dutela kontsideratzen denean.

b) Tributu administrazioak, berrikusi behar den egintza diktatzerakoan, bat ere kontuan hartu ez dituen zergagaiaren elementuak konprobatzen dituzten froga berriak aurkezten direnean.

142. artikulua. Bidegabeko dirusarrerak itzultzea.

1. Tributudunek eta haien oinordeko edo esku-bide-hartzaileek eskubidea izanen dute tributu zorrak pagatzerakoan Foru Komunitateko Diruzaintzan bidegabe eginiko dirusarrerak berreskuratzeke. Horrelakoetan foru lege honen 50.2.c) artikuluan erregulatutako berandutza korritua aplikatuko da.

2. Bidegabe eginiko dirusarrerara mota desberdinei erreparatuz, erregelamendu bidez erregulatuko da berreskuratzeke eskubidea eta hura gauzatzeko modua aitortzeko prozedura, zeina konpentsazio bidez gauzatzen ahal baita, foru lege honen 59. artikulua agintzen duen moduan.

143. artikulua. Akats materialak zuzentzea.

Tributu administrazioak, ofizioz nahiz interesatuak eskatuta, edozein momentutan zuzenduko ditu akats material, egitateko eta aritmetikoak,

zuzendu beharreko egintza eman zenetik lau urte igaro ez badira, betiere.

144. artikulua. Erreklamazio ekonomikoa eta administratiboa.

Foru Lege honen 140, 141, 142 eta 143. artikuluen babesean irekitako prozeduretan ematen diren ebazpenen kontra erreklamazioak jarri daitezke, kapitulu honen 4. atalean erregulatzen direnak, hain zuzen.

145. artikulua. Berrikusi ez daitezkeen egintzak.

Ez dira inola ere berrikusiko epai irmoz berretsitako egintza administratiboak.

146. artikulua. Kaltegarritasun aitortpena.

Foru Lege honen 140 eta 143. artikuluetan aurreikusitako kasuez aparte, tributu administrazioak ezin izanen du berak egindako zuzenbidezko adierazpen egintzak deuseztatu, eta horiek deuseztatzeko alde aurretik interes publikorako kaltegarriak direla deklaratu beharko du eta administrazioarekiko auzibidean inpugnatu, aipatu jurisdikzioaren Legeari jarraikiz.

2. atala

Errekurtsoak: arau orokorrak

147. artikulua. Errekurtsoa paratzeko eskubidea.

Tributudunek eskubidea dute, legez aurreikusten den moduan, administrazio bidez errekurtsuak eta erreklamazioak jartzeko tributu administrazioak diktatutako egintzen kontra. Eskubidea dute, halaber, egintza horien jakinarazpenean ager ditzaten bidezkoa den errekurtsua edo erreklamazioa, horiek jartzeko epea eta zein organotan egin behar diren.

VII. kapitulu honen jakinarazpenen araubidea foru lege honen 99. artikuluan ezarri da.

148. artikulua. Inpugnatutako egintzen exekuzioa etetea.

1. Errekurtso nahiz erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzeak ez du eteten inpugnatutako egintzen exekuzioa - legearen aldetik dakartzan ondorio eta guzti- , are kuoten edo lidikatutako eskubideen, korrituen eta errearguen bilketa.

2. Inpugnatutako egintzaren exekuzioa eten egingen da tributudunaren eskariz, baldin eta, errekurtsu edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzerakoan, erregelamenduz eskatzen diren bermeak aurkezten baditu.

3. Tributudunak aurreko idatz-zatian aipatu etenaldia lortzeko behar diren bermeak aurkeztu ezin dituenean, errekurtsua ebatzi behar duen organoak haren etena agintzen ahal du, bermeak aurkeztuta edo gabe, erregelamenduak ezartzen duen bezala, baldin eta exekuzioak kalte konponezin edo konpongaitzak ekartzen baditu.

4. Errekurtsoa ebatzi behar duen organoak errekurtsua izan duen egintzaren exekuzioa eten dezake, bermerik gabe, nabari baldin bada hura diktatzean akats aritmetiko, material edo egitateko bat izan dela.

5. Jarritako erreklamazioa ezatsi dela-eta, tributu zorra pagatzerakoan, berandutza korrituak, etenaldiak irauten duen denbora osoari dagozkionak, ordainduko dira foru lege honen 50.2.c) artikuluan ezarritako zenbatekoan.

6. Berraztertze errekurtsua jarri izanagatik erabakitzen den etenaldiak erreklamazio ekonomiko-administratiboan ere erregelamenduz ezarritako kondizioetan segituko du.

7. Tributudunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen badu, bide administratiboan erabakitako etenaldiak segituko du, aski bermerik dagoeino, harik eta organo judizial eskudunak aipatu etenaldiari dagokion erabakia hartzen duen arte.

149. artikulua. Bermeen kostuen itzulketa.

1. Tributu administrazioak tributu zor baten exekuzioa eteteko aurkeztutako bermeen kostua itzuliko du, haren zenbatekoa konprobatu ondotik, zor hura epai edo ebazpen administratiboaren bidez bidegabekoa dela deklaritzen denean eta aitortpen hori irmo bilakatzen denean.

Tributu zorra partzialki bidegabekoa dela deklaritzen bada, aipatu bermeen kostuari dago-kion partera iritsiko da itzulketa.

Itzulketaren prozedura eta abalaz besteko bermeen kostua zehazteko modua erregelamendu bidez erregulatuko dira.

2. Era berean, jarritako errekurtsua edo erreklamazioa partzialki onartzen diren kasuetan, tributudunak eskubidea izanen du ekarritako bermearen murriztapen proportzionala izateko, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

3. atala

Berraztertze errekurtsua

150. artikulua. Errekurtsoaren erregulazioa.

1. Tributu egintzen kontrako berraztertze errekurtsua aukeran jartzekoa izanen da, eta interesa-

tuek zuzenean jartzen ahal dute egintza horien kontrako erreklamazio ekonomiko-administratiboa.

Berraztertze errekurtsua jartzerik ez dago tributudunaren entzunaldi tramitea egin bada, efektiboa izan edo ez.

2. Interesatuak berraztertze errekurtsua jartzen badu, ezin izanen du erreklamazio ekonomiko-administratiboaren erreklamazioa sustatu harik eta berraztertzea espreski nahiz ustez ebatzi arte.

3. Berraztertze errekurtsua jarriko da errekurrituriko egintza kudeaketa bidez diktatu zuen organoan berean, zeina errekurtsua ebazteko gai baita, non eta haren eskumena goragoko beste bati esleitzen ez zaion.

Errekurtsua idatziz jarriko da, egintza jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

4. Berraztertze errekurtsuak espedientean ageri diren arazo guztiak, errekurtsuan agertu edo ez, ezagutarazten dizkio organo eskudunari, haiei buruzko ebazpena eman dezan.

5. Isilbidez ezetsi egin dela ulertuko da, geroako errekurtsuaren ondorioetarako, erregelamenduz ezarritako epean emandako ebazpena espreski jakinarazi ez bada.

6. Berraztertze errekurtsu baten ebazpenaren kontra ezin daiteke berriro horrelako errekurtsorik jarri.

151. artikulua. Etenaldiaren eragina.

Berraztertze errekurtsuak eten egiten ditu beste errekurtsu edo erreklamazio batzuk paratzeke epeak. Epe horiek hasi-hasieratik kontatzen hasi beharko dira isilbidez ezetsi dela ulertzen den egunetik aurrera edo, bestela, emandako ebazpena jakinarazten den egunetik.

4. atala

Inpugnazio ekonomiko-administratiboak

152. artikulua. Modalitateak.

Erreklamatu daitezkeen egintzen inpugnazio ekonomiko-administratiboak modalitate hauetan sailkatzen dira:

- a) Erreklamazio ekonomiko-administratiboa
- b) Aparteko berrikuspen errekurtsua.

153. artikulua. Organo eskuduna.

Inpugnazio ekonomiko-administratiboaren ardura eta ebazpena Nafarroako Gobernuari dagozkio. Eginkizun horiek horretarako propio sortutako organo bati esleitzen ahal zaizkio.

Nafarroako Gobernuaren ebazpenek bide administratiboa agortuko dute eta haien kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen ahalko da, jurisdikzio horrek berak duen Legeari jarraikiz.

154. artikulua. Erreklamazioetan uki daitezkeen gaiak.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboa dela ulertuko da ondoko gaiak ukitzen dituen, bertan egitatezko arazoak eragiten badira nola Zuzenbidezkoak:

a) Tributuak eta ordainarazpen parafiskalak kudeatu eta ikustatu, baita, oro har, Nafarroako Ogasun Publikoaren Zuzenbide Publikoko dirusarrerera guztiak bildu ere.

b) Foru lege bidez horrela ezartzen direnei buruzko beste edozein gai.

155. artikulua. Inpugnatzekoak izan daitezkeen egintzak.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak planteatu daitezke, aurreko artikuluan mugatu diren gaien buruz, ondoko egintzak aurkatzeko:

a) Eskubide bat behin-behinekoz nahiz behin betikoz aitortu edo ukatzen edo obligazio bat deklarazten dutenak.

b) Tramitezko egintzak, gaiaren funtsa zuzenean nahiz zeharka erabaki, kudeaketa prozedurari epemuga jarri, ezinezko bihurtu, haren jarraipena eten, edo interesatua babesgabe uzten dutenak.

2. Tributu kudeaketari dagokionez, inpugnatzeko modukoak dira, bereziki, honako hauek:

A) Ondoko egintza administratiboak:

a) Behin-behineko edo behin betiko likidazioak.

b) Autolikidazio bat zuzentzeko eskaeraren ondorioz ematen diren ebazpen espresuak nahiz ustezkoak.

c) Ondasunen eta eskubideen balioaren konprobazioak onesten dituztenak, bai eta balore edo oinarriak finkatzeko egintzak ere, haiek erregulazten dituen araudiak horrela ezartzen badu.

d) Tributuen arloko salbuespen edo hobarien araubideak aldeztu aurretik aitortzen edo ukatzen dituztenak.

e) Tributudun bati aplikatzeko den tributu araubidea ezartzen dutenak, etorkizunean hark bere kargura izanen dituen obligazioak, are formazkoak ere, determinatzen dituen heinean.

f) Tributu zehapenak ezartzen dituztenak.

g) Dirubilketazko kudeaketak sortutakoak.

h) Aurrekoen bestera, tributuen arloan diktatutako arauetan espreski inpugnatzekoak direla adierazten direnak.

B) Ondoko tributu ekintzak:

a) Tributu arloan eragina izan dezaketen egintzak, legeak aurreikusitakoak.

b) Legeak konturako dirusarrerak edo atxikipe-na egitera behartutako pertsonak burutzen dituzten konturako dirusarrerak edo atxikipenak.

156. artikulua. Erreklamazioak bultzatzeko legitimazioa.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak bultzatzea zilegi dute:

a) Tributudunek.

b) Beste edozein pertsonak, haren interes legitimoak kudeaketako egintza administratiboek ukituak gertatzen badira.

2. Ez daude legitimatuak:

a) Funtzionarioak, non eta aitorturik duten eskubideren bat gertutik eta zuzenean urratzen ez zaien.

b) Partikularrak, Administrazioaren delegazioz edo haren agente nahiz mandatarari gisa dihardutenean.

c) Salatzaileak.

d) Itun edo kontratu baten indarrez tributu obligazioak beren gain hartzen dituztenak.

157. artikulua. Berrikuspenaren anpliazioa.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak organo eskudunari jakitera emanen dizkio, ebazpena eman dezan, kudeaketa espedienteak bildutako arazo guztiak, interesatuek planteatutakoak izan ala ez.

2. Aurrean adierazitakoari jarraikiz, organo eskudunari iruditzen bazaio interesatuek planteatu ez dituzten arazoak aztertzea eta haiei buruzko ebazpena ematea komeni dela, prozeduran ageri direnei azalduko die eta 15 eguneko epea jarriko die alegazioak egin ditzaten.

158. artikulua. Prozedura.

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa idatziz eginen da, errekurrituriko egintzari edo, bestela, berraztertze errekurtsuaren isilpeko ezepenari buruzko jakinarazpena egin eta biharamunetik hilabeteko epean.

2. Erreklamazio ekonomiko-administratiboek gehienez ere urtebete iraunen dute. Epe hori iraganik, interesatuak erreklamazioa ezetsizat hartzen ahal du, bidezkoa den errekurtsua jarri ahal izateko. Azken errekurtsu hori jartzeko epea aurrekoa ezetsi eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

3. Jarritako erreklamazioa onartzearen ondorioz lehen sartutako dirua itzuli behar baldin bada, interesatuak eskubidea izanen du dirusarrera egin zuen egunetik sorturiko berandutza korrituak eskuratzeko.

159. artikulua. Berrikuspenarako aparteko errekurtsua.

1. Berrikuspenarako aparteko errekurtsua paratzen ahal dute interesatuek kudeaketa egintzen eta erreklamazio ekonomiko-administratiboen gaineko ebazpen irmoen kontra, ondoko inguruabarren bat gertatzen denean:

a) Haiek diktatzerakoan espedientei erantsitako dokumentuen ondorioz akats nabarmena egin bada.

b) Erreklamazioaren gaineko ebazpena emateko funtsezkoak diren dokumentuak agertu badira, diktatu zenean ezagutzen ez zirenak edo orduan espedienteari ezin atxiki izan zitzaizkionak.

c) Ebazpenean funtsezko eragina izan duten dokumentuak edo lekukoak, ebazpena eman aitzinero nahiz ondoko epai judizial irmoak faltsu direla deklaraturakoak, baldin eta, lehenbiziko kasuan, interesatuak faltsutasun aitorten berri izan ez badu.

d) Ebazpena diktatu baldin bada prebrikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria edo iruzurrezko beste azpikeria baten ondorioz eta horrela deklaratu izan baldin bada, epai judizial irmoaren indarrez.

2. Errekurtsua jarriko da:

a) Aurreko idatz-zatiko a) puntuko arrazoia denean, lau urteko epean, inpugnatutako ebazpena jakinarazten den egunetik aitzina.

b) Gainerako kasuetan epea hiru hilabetekoa izanen da, dokumentuak aurkitzen edo epai judiziala irmo bilakatzen denetik aitzina.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko foru legearen aldaketa.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik ondorioak izanen dituztela, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru

Legearen ondoko artikulua honela erredaktatuko dira:

Bat. 17. artikulua.

“17.1. artikulua. Nafarroako Ogasun Publikoak jaso behar dituen tributua, ordainarazpen parafiskalak, prezioak eta, orokorrean, eskubide publikoko dirusarrera gisako diru kopuruak kobratzeko, lege ezarritako ahalmena izanen du eta kasu kasuko prozedura administratiboei jarraikiz jokatu du.

2. Tributuen kudeaketa Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean xedatutakoari lotuko zaio.

3. Eskubide publikoko gainerako dirusarreraren kudeaketa berariazko xedapenetan eta osagarri gisa Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean xedatutakoari lotuko zaio.

4. Artikulu honen 1. zenbakian biltzen ez diren Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideak zuzenbide pribatuaren arau eta prozedurei jarraikiz gauzatu dira.”

Bi. 19. artikulua.

“19.1 artikulua. Kontrako xedapen espresua, foru legearen mailakoa, ematen ez den bitartean, inolako ohartarazpen eta errekerimendurik gabe, Nafarroako Ogasun Publikoari zor zaizkion zenbatekoek indarra duen berandutza korritua sortuko dute, hura sortu zeneko aldiari dagokiona, haien epea akitu eta biharamunetik hasi eta erabat ezeztatu arte.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoa aplikatuko zaie entitate finantzario laguntzaileek, bulego lidingatzaileek eta Nafarroako Ogasun Publikoaren kontura dirua biltzen ari diren entitateek bildutako zenbatekoei, baldin eta ezarritako epean zenbateko horiek sartu ez badira.

2. Berandutza korritua legeak ezarritako dirukorritua izanen da, lege berezietan ezarritakoa galarazi gabe.”

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.

Ondorioak foru lege honek indarra hartzen duenetik izanen dituela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 foru legearen 91.4 artikulua honela erredaktatu da:

“4. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako itzulketa egiteko epea pasatu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik itzulketa egiteko agindurik eman ez bada, itzuli beharreko kopuruari berandutza korritua aplikatuko zaio, Tributuei buruzko Foru Lege

Orokorraren 50.2.c) artikulua ezarritakoa, itzulketa egiteko epea amaitzen den egunetik pagamendua agintzen den egunera arte, subjektu pasiboak hala eskatu beharrik izan gabe”

Hirugarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.

Ondorioak foru lege honek indarra hartzen duenetik izanen dituela, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 86.4 artikulua honela erredaktatu da:

“4. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako itzulketa egiteko epea pasatu eta tributua administratuz egotz dakizkiokeen arrazoiengatik itzulketa egiteko agindurik eman ez bada, itzuli beharreko kopuruari berandutza korritua aplikatuko zaio, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrari buruzko 50.2.c) artikulua ezarritakoa, itzulketa egiteko epea amaitzen den egunetik pagamendua agintzen den egunera arte, subjektu pasiboak hala eskatu beharrik izan gabe.”

Laugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.

Ondorioak foru lege honek indarra hartzen duenetik izanen dituela, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 61.3 artikulua honela erredaktatu da:

“3. Artikulu honetan eta hurrengoan aipatzen diren kasuetan, Administrazioak behin-behineko likidazioa egin beharko du Zerga itzul dadila eskatzen den aitorten-likidazioa aurkezteko epea bukatu eta sei hilabeteko epearen barnean.

Aitorten-likidazioaren edo, bestela, behin-behineko likidazioaren ondorioz itzultzeko diru kopururik gertatzen bada, tributua administratuz ofizios itzuliko du, bidezkoak izan daitezkeen likidazioak, behin-behinekoak nahiz behin betikoak, galarazi gabe.

Behin-behineko likidazioa lehenengo lerrokadan ezarritako epean egin izan ez bada, tributua administratuz ofizios itzuliko du eskatutako diru kopururaren zenbateko osoa, bidezkoak izan daitezkeen likidazioak, behin-behinekoak nahiz behin betikoak, galarazi gabe.

Zenbaki honen lehenengo lerrokadan ezarritako epea pasatu eta tributua administratuz egotz dakiokeen arrazoiengatik itzulketa pagatzeko agindurik eman ez bada, itzuli beharreko kopuruari berandutza korritua aplikatuko zaio, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikulua tributua zorretarako ezarritakoa, itzulketa egiteko epea amaitzen den egunetik pagamendua agin-

tzen den egunera arte, subjektu pasiboak hala eskatu beharrik izan gabe.

Erregelamendu bidez zenbaki honetan aipatzen den ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta modua ezarriko dira.”

Bosgarrena. Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Foru Diputazioak 1970ko apirilaren 10eko Erabakiak, Ondorengotzen gaineko Zerga ordainarazteko Arauak onetsi zituenak, V. tituluko VIII. kapituluaren ezarritako obligazioak ez betetzea Tributuen Foru Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera zehatuko da.

Seigarrena. Nafarroako Zerga Ogasuna.

Zuzenbide publikoko tributuak eta dirusarrerak kudeatu, ikuskatu eta biltzeari dagozkien eskumenak, haien titularra Foru Komunitatea izan eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuari esleituak direnean, Foru Komunitatearen izenean Nafarroako Zerga Ogasuna Erakunde Autonomoak edukiko ditu, Departamentuko titularraren goi plangintza, zuzendaritza eta tutoretzapean.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren eskumenak Nafarroako Zerga Ogasuneko organoek edukiko dituzte. Organo horiek diktatuko dituzte behar diren egintza administratiboak, aipatu Erakunde Autonomoak eta indarra duten gainerako xedapenei esleitzen dizkieten eginkizunak betetz. Horren kariaz, Nafarroako Zerga Ogasuneko organoak dira zuzendari kudeatzailea, eta haren egitura eratzeko erabakiak eta atalak. Azken hauek bulegoetan edo balio bereko unitateetan eratzeko ahal dira, espedienteen tramitea egiteko.

Zazpigarrena. Aitorpen-likidazioen edo autolikidazioen, tributuetan eragina duten egintzen eta konturako dirusarreraren edo atxikipenen inpugnazioa.

Aitorpen-likidazioak edo autolikidazioak, tributuetan eragina duten egintzak eta konturako dirusarrerak edo atxikipenak inpugnatzeko bidea araudi berariazkoan erregulatuko da.

Zortzigarrena. Ekonomi eta Ogasun kontseilariari baimena eman zaio Foru Agindu bidez erregula dezan foru lege honen 90. artikuluan aipatzen diren zergadun eta entitateek zein kasu eta baldintzatan aurkezten ahal dituzten baliabide elektroniko, informatika eta telematikoak erabiliz aitorpenak, jakinarazpenak, aitorpen-likidazioak, autolikidazioak edo eta tributuen arloko araudiak eskatutako beste agiri guztiak.

Xedapen indargabetzailea

1. Foru lege honek indarra hartzean indarrik gabe geldituko dira hemen ezarritakoari kontra egiten dioten xedapen guztiak eta, bereziki, ondoko hauek:

a) Nafarroako Ogasun Publikoa.

– Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Legearen 17.2 artikulua aldatu zuen apirilaren 2ko 4/1996 Foru Legearen xedapen gehigarria.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategina onetsi zuen urriaren 3ko 212/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren hamargarren kapitulua.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen VIII. tituluko I, IV eta VI. kapituluak; IX. eta X. tituluak; eta 68, 83, 87, 88, 89 eta 90. artikulua.

c) Ondarearen gaineko Zerga.

– Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 27. artikulua, 35. artikulua eta Lehen xedapen gehigarria.

d) Sozietateen gaineko Zerga.

– Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategina onetsi zuen ekainaren 13ko 153/1986 Legegintzako Foru Dekretuaren IX. kapitulua.

– Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen VII. tituluko IV. eta VI. kapituluak eta VIII. eta IX. tituluak.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

– Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 117. artikulua.

f) Zerga Bereziak.

– Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen 49.2 eta 50. artikulua.

g) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.

– Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategina onetsi zuen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 38. artikuluen 1, 2, 3, eta 4. idatz-zatiak eta 39. artikuluen 2. idatz-zatia.

– Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua onetsi zuen maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretuaren 85. artikulua 1, 2, 3, eta 4. idatz-zatiak eta 86, 87, 96, 97, 100, 101, 102, 109 eta 110. artikulua.

h) Ondorengotzen gaineko Zerga.

– Ondorengotzen gaineko Zerga ordainarazteko Arauak onetsi zituen Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko

Erabakiaren artikulua hauek: 8, 22, 202, 203, 204, 205, 206, 222, 223, 226, 228, 232, 239, 240, 241, 242, 243, 244, 245, 246, 248, 249 eta 290.

– Ondorengotzen gaineko Zerga ordainarazteko Arauak onetsi zituen Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko

Erabakiaren V. tituluko IX, X eta XI. kapituluak, 338.1goa, artikulua hiruugarren, laugarren eta bosgarren lerroak izan ezik.

i) Beste xedapen batzuk.

– 1981eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Parlamentuaren 1981ko maiatzaren 19ko Erabakiaren 40. artikuluko 3. zenbakia eta 44 eta 45. artikulua.

– 1987ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/1986 Foru Legearen 38 eta 40. artikulua.

– 1988ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 70. artikulua.

– 1989ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legearen 67. artikulua.

– Identifikazio Fiskaleko Zenbakia erregulatze-ari buruzko uztailaren 31ko 182/1990 Foru Dekretuaren 14.4 artikulua.

– 1991ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legearen 67. artikulua.

– Tributuen arloko hainbat gai erregulatzen dituen apirilaren 19ko 3/1994 Foru Legearen 4. artikulua.

– Tributuen arloko aldaketei buruzko abenduaren 30eko 23/1998 Foru Legearen Lehen xedapen gehigarria.

2. a) Tributua arloko arau-hausteak eta zehapenak foru lege honetan eta gainontzeko tributua arauetan ezarritakoak gobernatzeko dituzte.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 116.2 artikulua indarrean iraunen du.

3. Indarra duten arauetan espreski indargabetez diren xedapenei buruzko aipamenak ulertu behar da haiek erregulatzen duten gai bera foru lege honetan erregulatzen duten xedapenei egiten zaizkiela.

Azken xedapenak

Lehen a. Indarra hartzea

Foru Lege honek 2001eko apirilaren 1ean hartuko du indarra eta honakoetan aplikatuko da:

a) Egun horretatik aurrera egiten diren arau-hausteetan, bai eta handik aurrera sortzen diren legez eska daitezkeen errekarguetan, lotzen zaizkien tributuen ordainarazpen eguna edozein dela ere, foru lege honen 14.2 artikuluan xedatutakoa galarazi gabe.

Foru Lege honen 52.3 artikuluan ezarritako errekarguak aplikatuko zaizkie alde aurreko errekerimendurik gabe epe kanpora aurkeztutako aitorpen-likidazioen edo autolikidazioen dirusarrei, bai eta alde aurreko errekerimendurik gabe epe kanpora aurkeztutako aitorpenen ondoriozko likidazioei, baldin eta hark indarra hartzen duenetik aurkezten badira.

Foru Lege honen 117.1 artikuluan ezarritako errekarguak aplikatuko zaizkie exekuzio aldiko tributu zorren pagamenduei, aldi horren hasiera Legeak indarra hartu ondoren gertatu baldin bada.

b) Tributuen arloko kudeaketa nahiz dirubilketa prozeduretan, eta orobat, tributu ikuskapenen eta administrazio bideko egintzen berrikuspenen prozeduretan, aipatu dataz geroztik hasitakoak badira. Lehenagotik hasitakoak aurreko araudiak gobernatzeko dituzte, harik eta bukatu arte.

Hala ere, zehapenak jartzeko ez da subjektu arau-hauslearen tributu egoera konprobatzeko eta ikertzeko konprobazio prozeduretan irekitako espediente erabiliko, baldin eta konprobazio horietan foru lege honek indarra hartzen duenean dagozkion aktetan ekintzen emaitza oraindik jaso ez bada.

Bigarrena. Foru legearen garapena.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta exekutatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

2. Arau horiek onesten ez diren bitartean, erregelamenduzko arauak indarra izaten segituko dute, foru lege honi kontra egiten ez dioten heinean.

Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mantendutako zuzenketak

1 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

4. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Ogasuna arautzen duen abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 14. artikulua berdina da, eta han hobeto kokatzen da.

3 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

7. artikulua aldatzeko zuzenketa:

Erregelamendu ahalmenaren erabilerak eta tributu gaietako kudeaketa egintzak izaera arautua dute, eta administrazio eta jurisdikzio bideetan horien aurka egin daiteke xedapen indardunek agintzen duten moduan.

Zioak: Administrazio jardunaren izaera arautua –hala arautze nola kudeatze jardunarena– biltzea.

4 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

8. artikuluko 2. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago horren beharrik; izan ere, administrazio egintzen berezko ezaugarria da hori, eta ez tributu arauak ematen diona.

5 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu eta ondokoa jartzeko zuzenketa:

3. Foru Lege honetan tributudun esaten denean, ulertzen da bertan subjektu pasiboak, erantzuleak, tributu zor bateko ondorengoak, legezko ordezkariak nahiz borondatezkoak eta tributu administrazioari laguntza edo informazioa emateko obligazioa dutenak ere sartzen direla, bai eta tributu-prozedura batean parte edo interesatu den edonor ere.

Zioak: “Tributuduna” zentzurik zabalenean definitu nahi da, tributu prozedura batek ukitzen dituen guztiak bertan sartuta.

6 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

10. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta ondokoa jartzeko zuzenketa:

1. Tributuek zein ere izaera duten, honakoak izanzen dituzte araubide: Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoa, Foru Lege hau eta Nafarroako Parlamentuaren gainontzeko legeak, Nafarroako Gobernuaren erregelamenduak eta aplikatzekoak diren gainontzeko erregelamenduzko xedapenak.

Zioak: Proiektuan egiten den zerrendak sor dezakeen nahasketa ekidin nahi da, hartan hierarquizatu egiten baitira lerrun bereko arauak.

7 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

10. artikuluko 2. idatz-zatian lerrokada bat gehitzea. Hona:

Foru Komunitateko ordenamendu juridikoa osatzeko aukera guztiak agortu ondotik bakarrik joko da zuzenbide betegarrira tributu-ordenamendua osatzeko.

Zioak: Gure ordenamendua osatzeari ematea lehentasuna.

8 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

15. artikulua goiburua aldatzea gaztelaniazko testuan, euskarazkoan ez baitu eraginik, eta ondokoa jartzea:

Ámbito de aplicación.

Zioak: Aginduaren edukiari doitzea, lurraldeari zein lotuneei eta eusteko irizpideei buruzkoa baita.

9 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

15. artikuluko lehen lerrokada aldatzea, eta ondokoa jartzea:

Foru Komunitateko instituzioek emandako tributu arauak Nafarroako zein estatuko lurraldean dira lotgarri, Hitzarmen Ekonomikoan ezartzen diren Estatuaren erregimen orokorrarekin bateratzeko irizpideekin bat etorritik.

Zioak: Foru Komunitatearen tributu-boterearen indar espazial eta materialari egokitzea.

10 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

16. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa ohiko interpretazio-irizpideak ematea, nahiz eta hori esan TLOko 23. artikulua; 30/1992 Legeak, esaterako, ez du halakorik egiten, eta, gainera estatuaren eskumena da (EKko 149.8 artikulua).

11 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

18. artikulua aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

Egintza edo negozio simulatu batean, kargatu beharreko zergagaia parteek egitez egin dutena izanen da, zein ere forma edo izen juridiko erabili duten interesatuek.

Zioak: Testu hasierako erredakzioa hobetzea.

12 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

19. artikulua aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

1. Tributuak, tributuei buruzko legeria orokorrak ezartzen duen izaera eta araubide juridikoarekin bat etorritz, honela sailkatzen dira: zerga, tasa eta kontribuzio bereziak.

2. Ordainarazpen parafiskalak, errekarquak, eskubideak, kanonak edo gastu publikoak finantzatzeko baliabideak lortzeko batik bat ezarritako gainontzeko edozein karga tasa joko da zerga, tasa edo kontribuzio berezizat, horiek eskatzeko baliatzen diren printzipioei eta araubide juridikoari jarraikiz.

Zioak: Sailkapenak TLOko 26. artikulua jasotzen du, eta hura formal da, inolako eduki normatiborik eta ondorio juridikorik gabea. Sailkapen hori teorikoa eta baliorik gabea da; izan ere, ez dio erantzuten ordainarazpen mota bakoitzaren funtsari eta izaera juridikoari.

13 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

24. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Subjektu pasibo” kendu eta horren orde “persona” jartzea.

14 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

27. artikuluko goiburua aldatu eta ondokoa jartzea:

Obligazioak eta betebeharrak.

Zioak: Obligazioak eta betebeharrak arautzen dituen aginduaren edukiari egokitzea.

15 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

2. Subjektu pasiboak beharturik daude kontabilitate eta erregistro liburuak eta kasuan-kasuan ezartzen diren beste dokumentuak eramatera; bide ematera ikuskatze eta konprobazioak egiteko eta Administrazioari zergagaiarekin lotura duten datuak, aurrekariak eta frogagiriak ematera.

3. Aurreko idatz-zatiak aipatu dituen betebeharrak, osagarri diren neurrian, ezin eskatuko dira behin obligazio nagusia konplitzeko administrazio ekintzaren preskripzio epea iragan ondoren.

Zioak: Aginduak eduki instrumentala, eta ez ondare-dukia, duten obligazio eta betebeharrak jasotzen ditu.

16 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

29. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

3. Erantzukizunak tributu kuota eta legez eskatzekoak diren tributu izaerako errekarquak hartuko ditu, salbu eta zehapenak. Sortzapena eragin duten egintzen erantzuleari egotz dakizkiokeen interesak eta errekarquak ere hartu ahalko ditu, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

Zioak: Erantzukizunaren pertsonalizazioari begira uztailaren 20ko 25/1995 Legeak ekarri zuen arau-garapenari egokitzea. Zehapenak sartzea, argi eta garbi, konstituzioaren aurkakoa da (KAren 146/1994 epaia), zehapenak pertsonalizatzeko printzipioa urratu egiten baita zehapena beste erantzule batzuei ere zabaltzean.

17 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

29. artikuluko 6. idatz-zatia aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

6. Zor beraren erantzule solidario edo subsidiarioak bat baino gehiago direlarik, zilegi izanen da zor hori haietako edozeini osorik eskatzea. Ezin izanen da erantzule subsidiarioen aurka jo harik eta erantzule solidarioak huts egindakotzat deklaratu arte, har daitezkeen kautelazko neurriak ezertan galarazi gabe.

Zioak: Administrazioaren eginbideak ordenatzea da asmoa, erantzule solidario eta subsidiarioen eragingarritasunari begira; izan ere, erantzule subsidiarioak –subsidiarioak direlako hain zuzen ere– azken erantzuleak behar dute izan.

18 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

29. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa:

7. Erantzuleak eskubidea izanen ordaindutako kuotak edo bere ondarearen kargura gauzatutakoak du tributudun nagusiari –zergaduna zein tributu zorrean haren ordezkoa edo ondorengoa izan– eskatzeko. Baldin eta zenbait pertsonaren erantzukizuna maila berekoa –solidarioa zein subsidiarioa– dela deklaratu bada, kuota ordaindu dutenek gainontzeko erantzuleen aurkako atzera-egite akzioa baliatu ahalko dute.

Zioak: Erantzuleak tributudun nagusiaren –edo harengandik gertuen dagoenaren– aurka baliatutako atzera-egite akzioa arautzea.

19 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

31. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

1. Zilegi izanen da pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Foru Lege honetako 25. artikulua aipatzen dituen erakundeak ustiategi eta jarduera ekonomikoetan aritzearen ondorioz sortzen diren tributu zorrak edozein arrazoiengatik haietan hurrengo titular edo erabiltzaile bihurtzen denari eskatzea.

Zioak: Zehaztu egiten da erantzukizuna zorrak direla-eta sortzen dela, hurrengo titular edo erabiltzaile bihurtzen dena ere hartzen duela, eragilearen subrogazioa sortzen duen herentziarekin inongo loturarik izan gabe.

20 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

31. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

2. Erantzukizunak direlako ustiategi edo jardueretan aritzeagatik sortutako zorrak, haietatik ateratako errentak barne direla.

Zioak: Sortzapenaren bidez sortutako zorrari egokitzea erantzukizuna, ez baitio ardura likidatuta dauden ala ez.

21 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

33. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

1. Mortis causako ondorengoak hildakoaren tokian subrogatuko dira betekizun dauden tributu obligazioak direla-eta, herentzia eskuratzeko lege-dia zibilak xedatzen duenaren ondoriozko mugekin. Zehapenik ez da inoiz eskualdatuko.

Zioak: Subrogazioaren ondorioak direla-eta terminologia egokitzea; izan ere, subrogazioa ez da hildakoarekiko tributu erantzukizuna.

23 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

133.1 artikuluko d) letrari zati bat gehitzeko zuzenketa:

...eta modu subsidiarioan, arestian aipatutako tokietan.

24 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

140. artikulua aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu Kontseiluari dagokio edozein momentutan, Nafarroako Kontseiluak irizpena eman eta gero, erabat baliogabeak direla deklaratzeko araubide juridikoari eta guztiondako administrazio prozedurari buruzko legerian ezarritako baldintzak gertatzen diren administrazio egintzak.

2. Arestian aipatutako legeriari jarraikiz eginen dira egintza eta prozedura baliogabeen berrazterketa, egintza deuseztagarrien kaltegarritasun aitortpena eta akatsa zuzenketa.

Zioak: Guztiondako administrazio araubideari egokitzea egintzen berrazterketa, deuseztagarritasuna eta baliogabetasuna.

25 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

143. artikulua aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

Tributu administrazioak, ofizioz nahiz interesatuak eskatuta, edozein momentutan zuzenduko ditu bere egintzetako akats material, egitateko eta aritmetikoak.

Zioak: Eperik ematen ez duen araubide orokorrari egokitzea eta “edozein momentutan” esatearen eta horri preskripzio epe bat jartzearen arteko kontraesana saihestea.

26 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

146. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: 40.2 artikuluko kaltegarritasun aitortpenarekin bat etortzea, 24. zuzenketa jarraikiz.

27 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

150.5 artikulua aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

5. Berraztertze errekurtsua ezetsi egin dela ulertuko da baldin eta jarri zenetik hilabete igaro bada hari buruzko ebazpena espresuki jakinarazi gabe.

Zioak: 4/1999 Legeko araubideari egokitzea.

29 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

158. artikuluko 2. idatz-zatiari ondoko testua gehitzeko zuzenketa.

Erreklamazioa atxikipen eta jasanarazpen egintzen aurkakoa baldin bada, ukitutako pertsonari atxiki edo jasanarazi beharreko zenbatekoa jakinarazi zaiola kreditatzen denetik hasiko da zenbatzen hilabeteko epea, edo atxikipena nahiz jasanarazpena gauzatzen den egunetik hasita.

Zioak: Jakinarazi edo ezagutu den egunetik hasita egitea epeen zenbaketa.

30 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

159. artikulua aldatu eta ondoko testua jartzeko zuzenketa:

Araubide juridikoari eta guztiondako administrazio prozedurari buruzko legerian ezarritako araubideari jarraiki jarriko da berrikuspenerako aparteko errekurtsua.

Zioak: Araubide orokorraren araberakoa izatea beti.

31 “in voce” zenbakiko zuzenketa:

IV. tituluko goiburua aldatu eta ondoko jartzeko zuzenketa:

Tributuen arloko prozedurak

Zioak: Hobeki lotzen zaio edukiari; izan ere, tributu arloko kudeaketaz gain –hori da titulu horretako kapitulu bat–, ondokoa ere biltzen dira, nahiz eta kudeaketarekin zerikusirik izan ez: egintzen berrazterketa eta ikuskaritza.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--